

Hautaketa prozesuetarako galdera sorta: Gaitegi Orokorra

(Lan-kategorien eta A eta B taldeetako
funtzionarioen eskalen Gai-zerrendaren
zati orokorreko galderak)

2026



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA
AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO

Hautaketa prozesuetarako galdera sorta: Gaitegi Orokorra

(Lan-kategorien eta A eta B taldeetako
funtzionarien eskalen Gai-zerrendaren
zati orokorreko galderak)

IVAPek kontserbatu egiten ditu argitaraturiko lanen ondare-eskubideak (copyright), eta lan horien berrerabilpena baimentzen eta sustatzen du, BY-NC-ND erabilera-lizentziaren pean.

Liburu hau edizio elektronikoan argitaratzen da, Creative Commons-en BY-NC-ND lizentziaren pean. Kopiatu, erabili, zabaldu, transmititu eta erakutsi daiteke, honako baldintza hauek beteta: 1) egiletza eta argitalpenaren jatorrizko iturria aipatzea (aldizkaria, argitaletxea eta lanaren URLa); 2) helburu komertzialetarako ez erabiltzea; 3) erabilera-lizentzia eta berorren espezifikazioak aipatzea.



Edizioa: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Administración Pública

ISBN: 978-84-7777-736-6

1. gaia

- 1 Zer mekanismoren bidez bermatzen du 1978ko Espainiako Konstituzioak herritarrek zuzenean parte hartzen dutela erabakietan?
 - 1a) Legegintzako herri-ekimena.
 - 1b) Erreferenduma.
 - 1c) Herri-epaimahaia.
 - 1d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

- 2 Zer elementuk ezaugarritzen dute Espainiako Estatua «zuzenbideko estatu» gisa?
 - 2a) Botere-banaketak (legegilea, betearazlea eta judiziala).
 - 2b) Botere publikoei aitortzeak haiei dagokiela beharrezkoak diren baldintzak sustatzea (politika publikoak), gizabanakoaren askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen.
 - 2c) Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak aitortzeak.
 - 2d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

- 3 Zer elementuk ezaugarritzen dute Espainiako Estatua «estatu sozial» gisa?
 - 3a) Botere publikoei aitortzeak haiei dagokiela beharrezkoak diren baldintzak sustatzea (politika publikoak), gizabanakoaren askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen.
 - 3b) Eskubide sozial eta ekonomikoak aitortzeak: langileen eskubideak, jabetzaren funtzio soziala, etab.
 - 3c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - 3d) Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak aitortzeak.

- 4 Zein da 1978ko Espainiako Konstituzioak gobernu monarkikoari ematen dion izaera?
 - 4a) Iraunkorra.
 - 4b) Oinordetzakoa eta biziartekoa.
 - 4c) Demokratikoa.
 - 4d) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

- 5 Zein printzipiotan oinarritzen da Estatuaren lurralde-eraketa? Aukeratu printzipio zuzena(k)?
- 5a) Batasuna.
 - 5b) Uniformetasuna.
 - 5c) Autonomia.
 - 5d) Aurreko a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 6 Zein dira Espainiako antolamendu juridikoaren balio nagusiak, 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera?
- 6a) Elkartasuna, berdintasuna, autonomia eta askatasuna.
 - 6b) Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
 - 6c) Ordena eta aurrerapena.
 - 6d) Berdintasuna, justizia, senidetasuna eta autonomia.
- 7 Konstituzioa gorena edo legez gaindikoa da. Zer esan nahi du horrek?
- 7a) Ezin da aldatu beste arauak aldatzeko baliagarriak diren prozedura arrunten bidez; prozedura bereziak, legegintza-prozedura arrunta baino konplexuagoak edo zailagoak behar ditu. Legeak ezin du Konstituzioa aldatu.
 - 7b) Botere publikoek ezin dituzte Konstituzioaren aginduak aldatu, ezta haien kontra egin edo alde batera utzi ere; bestela, jardura Konstituzioaren aurkakoa izango litzateke, eta, beraz, hala deklaratu daiteke.
 - 7c) Ezin da aldatu.
 - 7d) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 8 Zein da Konstituzio Auzitegiaren eginkizun nagusia?
- 8a) Konstituzioa defendatzea eta erreformatzea.
 - 8b) Jurisdikzio-bide arrunta ixtea.
 - 8c) Konstituzioa interpretatzea.
 - 8d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 9 Zein dira konstituzionaltasuna kontrolatzeko prozedurazko bide nagusiak?
- 9a) Babes-errekurtsoa.
 - 9b) Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa.
 - 9c) Konstituzio-kontrakotasuneko arazoa.
 - 9d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 10 Hauek dira 1978ko Espainiako Konstituzioaren zati dogmatikoa osatzen duten atalak:
- 10a) Hitzaurrea, atariko titulua eta lehenengo titulua.
 - 10b) Atariko titulua eta lehenengo titulua.
 - 10c) Hitzaurrea eta atariko titulua.
 - 10d) Hitzaurrea eta lehenengo titulua.
- 11 Zein artikulutan daude jasota 1978ko Espainiako Konstituzioan oinarritzko eskubide «autentikoak»?
- 11a) 10. artikulutik 55.era, biak barne.
 - 11b) 14. artikulutik 29.era, biak barne.
 - 11c) 10. artikulutik 29.era, biak barne.
 - 11d) 14. artikulutik 55.era, biak barne.

- 12 Zer jasotzen du 1978ko Espainiako Konstituzioaren I. tituluko III. kapituluak?**
- 12a) Oinarrizko eskubideak.
 - 12b) Eskubideak eta askatasunak.
 - 12c) Politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarriak.
 - 12d) Askatasunen eta oinarrizko eskubideen gaineko bermeak.
- 13 Nor lotzen dituzte edo noren aurrean exijitu daitezke oinarrizko eskubideak?**
- 13a) Partikularren aurrean.
 - 13b) Botere publikoen aurrean.
 - 13c) Partikularren eta botere publikoen aurrean.
 - 13d) Agintari publikoen aurrean.
- 14 1978ko Espainiako Konstituzioak jasotzen dituen berme hauetatik, zein ez dira jurisdikzionalak?**
- 14a) Lege-erreserba.
 - 14b) Babes judiziala.
 - 14c) Babes-errekurtsoa.
 - 14d) Nazioarteko eta nazioz gaindiko babesa.
- 15 1978ko Espainiako Konstituzioak jasotzen dituen berme hauetatik, zein dira jurisdikzionalak?**
- 15a) Babes judiziala.
 - 15b) Lege-erreserba.
 - 15c) Herriaren Defendatzailea.
 - 15d) Oinarrizko eskubideen funtsezko edukia errespetatzea.
- 16 Norekin ditu harremanak Herriaren Defendatzaileak?**
- 16a) Kongresuarekin.
 - 16b) Senatuarekin.
 - 16c) Kongresua-Senatua batzorde misto batekin.
 - 16d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
- 17 Nolakoa izan behar du Espainiako zerga-sistemak, 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera?**
- 17a) Proporzionala.
 - 17b) Ekitatiboa.
 - 17c) Solidarioa.
 - 17d) Zuzena.
- 18 1978ko Espainiako Konstituzioak aparteko babes jurisdikzionala ematen die 14.etik 29.era bitarteko artikuluetan jasotako eskubideei eta kontzientzia-objekzioari (30.2 art.). Zein printzipiotan oinarritzen da auzitegien aurreko prozedura hori?**
- 18a) Hobespen-printzipioan.
 - 18b) Lehentasun- eta sumariotasun-printzipioan.
 - 18c) Azkartasun-printzipioan.
 - 18d) Babes indartuaren printzipioan.
- 19 Zein dira urratuz gero babes-errekurtsoa jartzeko aukera ematen duten eskubideak?**
- 19a) Guztiak.
 - 19b) I. tituluari jasotakoak.
 - 19c) 14. artikulutik 29.era (biak barne) doazen artikuluetan jasotakoak.
 - 19d) 14.etik 29.era doazen artikuluetan eta 30.2 artikuluan jasotakoak.

- 20 Non dago Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren egoitza?**
- 20a) Luxenburgon.
 - 20b) Estrasburgon.
 - 20c) Rotterdamen.
 - 20d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 21 1978ko Espainiako Konstituzioaren 116. artikuluaaren arabera, noiz ezartzen da alarma-egoera?**
- 21a) Hondamendi natural edo istripu handiak gertatzen direnean.
 - 21b) Ordena publikoa larriki asaldatzen denean.
 - 21c) Estatuaren izatearen beraren kontra eta haren lurralde-osotasunaren eta konstituzio-antolamenduaren kontra zuzenean egindako erasoen aurreko erantzun gisa.
 - 21d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 22 1978ko Espainiako Konstituzioaren 116. artikuluaaren arabera, noiz ezartzen da salbuespen-egoera?**
- 22a) Hondamendi natural edo istripu handiak gertatzen direnean.
 - 22b) Ordena publikoa larriki asaldatzen denean.
 - 22c) Estatuaren izatearen beraren kontra eta haren lurralde-osotasunaren eta konstituzio-antolamenduaren kontra zuzenean egindako erasoen aurreko erantzun gisa.
 - 22d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 23 1978ko Espainiako Konstituzioaren 116. artikuluaaren arabera, noiz ezartzen da setio-egoera?**
- 23a) Hondamendi natural edo istripu handiak gertatzen direnean.
 - 23b) Ordena publikoa larriki asaldatzen denean.
 - 23c) Estatuaren izatearen beraren kontra eta haren lurralde-osotasunaren eta konstituzio-antolamenduaren kontra zuzenean egindako erasoen aurreko erantzun gisa.
 - 23d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 24 Salbuespen-egoerak zein eskubide etetea ekar dezake?**
- 24a) Egoitzaren bortxaezintasuna eta komunikazioen sekretua.
 - 24b) Zirkulazio librea.
 - 24c) Erlijio-askatasuna.
 - 24d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 25 1978ko Espainiako Konstituzioaren 55.2 artikuluaaren arabera, «gizabanako jakin batzuen» oinarritzko eskubideak eteteko, beharrezkoa da:**
- 25a) Legezko erabakia.
 - 25b) Esku-hartze judiziala.
 - 25c) Arauzko erabakia.
 - 25d) Gobernuaren nahitaezko esku-hartzea.
- 26 Nori dagokio, azken batean, oinarritzko eskubideen mugak zehaztea eta identifikatzea?**
- 26a) Auzitegi arruntei.
 - 26b) Giza Eskubideen Europako Auzitegiari.
 - 26c) Auzitegi Gorenari.
 - 26d) Konstituzio Auzitegiari.

2. gaia

27 Zeinek osatzen dute Espainiako toki-administrazioa?

- 27a) Udalek.
- 27b) Probintziek.
- 27c) Udalek eta probintziek.
- 27d) Autonomia-erkidegoek.

28 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, errealitate hauetatik zein dira «lurralde-mailako toki-erakunde»?

- 28a) Eskualdeak.
- 28b) Uharteak.
- 28c) Metropolialdeak.
- 28d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

29 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, errealitate hauetatik zein dira «toki-erakunde»?

- 29a) Mankomunitateak.
- 29b) Udalak.
- 29c) Eskualdeak.
- 29d) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

30 Zeinek osatzen dute EAEko lurralde historikoen erakunde-antolaketa?

- 30a) Batzar nagusiek eta foru-aldundiek.
- 30b) Probintziek eta udalek.
- 30c) Udalek eta aldundiek.
- 30d) Batzar nagusiek eta udalek.

31 Printzipio hauetatik, zein da toki-araubidearen printzipio bat?

- 31a) Aginduzko printzipioa.
- 31b) Autonomia-printzipioa.
- 31c) Finantza-nahikotasunaren printzipioa.
- 31d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

- 32 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 4. artikuluaaren arabera, zein ahal dagokie udalei, probintziei eta uharteei, beren eginkizunak betetzean?**
- 32a) Erregelamenduak egiteko ahala.
 - 32b) Zergetako eta finantzetako ahala.
 - 32c) Nahitaezko betearazpenaren ahala.
 - 32d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 33 Probintzia dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**
- 33a) Probintziako diputazioa da haren gobernu-organoa.
 - 33b) Foru-diputazioa da haren gobernu-organoa.
 - 33c) Batzar nagusietan eta diputazioetan antolatzen da.
 - 33d) 1812an sortu ziren, errege-dekretu bidez.
- 34 Zein dira probintziak osatzeko nahitaezko organoak?**
- 34a) Diputatuak.
 - 34b) Presidenteak eta presidenteordeak.
 - 34c) Gobernu-batzarrak.
 - 34d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 35 Zein dira probintziako diputazio bateko presidentearen eginkizunak?**
- 35a) Diputazioaren ordezkari izatea.
 - 35b) Diputazioaren araudia finkatzea.
 - 35c) Udalen ekintza koordinatzea bere lurralde-eremuan.
 - 35d) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 36 Zein dira probintziako diputazioaren osoko bilkuraren eginkizunak?**
- 36a) Diputazioaren ordezkari izatea.
 - 36b) Aurrekontuaren arabera ekonomia-kudeaketa garatzea.
 - 36c) Probintziako planak onartzea.
 - 36d) Zerbitzuak eta obrak ikuskatzea, bultzatzea eta zuzentzea.
- 37 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 36.1. artikuluaaren arabera, eskumen hauetatik, zein da probintziako diputazioaren berezko eskumena?**
- 37a) Udal-politika zuzentzea bere lurralde-eremuan.
 - 37b) Bere lurralde-eremuan dauden udalen gastua fiskalizatzea.
 - 37c) Probintziaren interes bereziak sustatzea eta administratzea.
 - 37d) Aurreko hiru erantzunak okerrak dira.
- 38 Udalerria dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**
- 38a) Kontzeju irekiko sisteman diharduten udalerrietan izan ezik, udalari dagozkio udal-gobernua eta udal-administrazioa; alkateak eta zinegotziek osatzen dute udala.
 - 38b) Auzotarrek hautatzen dute alkatea, zuzenean, sufragio unibertsal, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez.
 - 38c) Alkate hautatua izateko, zinegotzien botoen gehiengo soilak behar da; gehiengo hori lortzen ez bada, boto gehien dituen zerrendako burua izango da alkate.
 - 38d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 39 Eskumen hauetatik, zein ez da udalak egikaritu beharko duen eskumen bat?**
- 39a) Babes zibila.
 - 39b) Prestazio soziosanitarioa.
 - 39c) Gizarte-zerbitzuen prestazioa.
 - 39d) Toki publikoetako segurtasuna.
- 40 Ezaugarri hauetatik, zein dagokio estatu baten lurralde-antolamenduaren eredu bateratuari?**
- 40a) Eredu honek funtsezko aldaketa izan zuen Ameriketako Estatu Batuen Konstituziotik (1787) aurrera.
 - 40b) Estatuaren lurralde osoan eskudunak diren erakundeek multzo bakarra dago.
 - 40c) Estatu batzuen lurralde-antolaketa da; adibidez, Errusiarena eta Indiarena.
 - 40d) Aurreko a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 41 Zer lurralde-antolaketa mota da eskualde-estatua?**
- 41a) Bateratua.
 - 41b) Zentralizatua.
 - 41c) Konposatua.
 - 41d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 42 Nori bermatzen dio autonomia-eskubidea 1978ko Espainiako Konstituzioaren 2. artikulua?**
- 42a) Probintziei.
 - 42b) Nazioei.
 - 42c) Nazionalitateei eta eskualdeei.
 - 42d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 43 Zein printzipio konstituzionalen gainean oinarritzen da Estatuaren lurralde-egitura, 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera?**
- 43a) Batasuna.
 - 43b) Autonomia.
 - 43c) Solidaritatea.
 - 43d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 44 Zer esan nahi du batasun-printzipioak?**
- 44a) Zuzenbideari dagokionez, Espainiako antolamendu juridikoa bakarra dela.
 - 44b) Herria bakarra dela.
 - 44c) Espainiako lurraldea eremu juridiko, politiko eta ekonomiko bakarra dela, bateratua.
 - 44d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 45 Autonomia-printzipioari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**
- 45a) Botere mugatua da, autonomia ez baita subiranotasuna.
 - 45b) Autonomia orokorra da, hau da, lurralde-maila guztiei dagokienez aldarrikatzen da.
 - 45c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - 45d) Printzipio proportzionala da.
- 46 1978ko Espainiako Konstituzioak zenbat prozedura aurreikusten ditu autonomia lortzeko?**
- 46a) Bi.
 - 46b) Hiru.
 - 46c) Lau.
 - 46d) Bost.

- 47 Norkosatzen du autonomia-erkidegoen erakunde-antolaketa?**
- 47a) Batzar legegileak.
 - 47b) Gobernu-kontseiluak.
 - 47c) Lehendakariak.
 - 47d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 48 Noren jurisdikzio-organoak dira autonomia-erkidegoetako justizia-auzitegi nagusiak?**
- 48a) Estatuarenak.
 - 48b) Estatuarenak eta autonomia-erkidegoenak.
 - 48c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - 48d) Aurreko hiru erantzunak okerrak dira.
- 49 Izen hauetatik, zein parekatzen da Espainiako Estatuaren lurralde-antolaketa osatzen duten 17 autonomia-erkidegoetako baten biltzar legegilearen izenarekin?**
- 49a) Gorteak.
 - 49b) Batzar Nagusia.
 - 49c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - 49d) Gorte Nagusiak.
- 50 Zein dira autonomia-erkidegoetako batzar legegileen eginkizun berezkoak?**
- 50a) Autonomia-erkidegoko lehendakaria hautatzea.
 - 50b) Gobernuaren kontrola egitea.
 - 50c) Legegintza-ahala egikaritzea.
 - 50d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 51 Noren aurka aurkez daiteke gaitzespen-mozioa?**
- 51a) Ministro baten aurka.
 - 51b) Autonomia-erkidego bateko kontseilari baten aurka.
 - 51c) Autonomia-erkidego bateko lehendakariaren aurka.
 - 51d) Gobernuko presidentearen aurka.
- 52 1978ko Espainiako Konstituzioaren 147.2 artikulua arabera, zer da autonomia-estatutuek jaso behar duten gutxienezkoa?**
- 52a) Autonomia-erkidegoaren izena.
 - 52b) Erkidegoaren lurralde-mugak.
 - 52c) Konstituzioaren esparruan bereganaturiko eskumenak.
 - 52d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

3. gaia

53 Zein urtetan hasi zen ofizialki Europaren proiektua?

- 53a) 1950ean.
- 53b) 1951n.
- 53c) 1957an.
- 53d) Erantzun guztiak okerrak dira.

54 Zein dira Europar Batasunaren eraketa-testu nagusiak?

- 54a) Zuzentarauak eta erregelamenduak.
- 54b) Europar Batasunaren Tratatua.
- 54c) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatua.
- 54d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

55 Zenbat instituzio ditu gaur egun Europar Batasunak?

- 55a) Lau.
- 55b) Zazpi.
- 55c) Bost.
- 55d) Sei.

56 Nork osatzen du Kontseilu Europarra?

- 56a) Estatuburuek eta gobernuburuek.
- 56b) Kontseiluko lehendakariak.
- 56c) Europako Batzordeko lehendakariak.
- 56d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

57 Europar Batasuneko Kontseiluak eginkizun hauek ditu, besteak beste:

- 57a) Erabakiak hartzea.
- 57b) Europako Parlamentuarekin batera elkarlanean legeak egitea.
- 57c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 57d) Europar Batasunaren Justizia Auzitegiko kideak hautatzea.

58 Europako Batzordeari buruzko baieztapen hauetatik, zein ez da egia?

- 58a) Kide anitzeko organoa da.
- 58b) 5 urteko agintaldia du.
- 58c) Parlamentuak aukeratzen du haren lehendakaria.
- 58d) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

59 Europako Batzordeak eginkizun hauek ditu, besteak beste:

- 59a) Arau juridikoen proposamena egitea Kontseiluari eta Europako Parlamentuari.
- 59b) Europar Batasunaren politikak eta aurrekontua exekutatzeko.
- 59c) Europar Batasuna nazioartean ordezkatzeko.
- 59d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

60 Europako Parlamentuaren eginkizunen artean, hauek nabarmentzen dira:

- 60a) Kontseiluarekin batera legegintza- eta aurrekontu-eginkizunak betetzea.
- 60b) Kontrol politikoaren funtzioak betetzea.
- 60c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 60d) Europar Batasuna nazioartean ordezkatzeko.

61 Europako hauteskundeak direla eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- 61a) 5 urtean behin egiten dira.
- 61b) 4 urtean behin egiten dira.
- 61c) Estatu bakoitzak ez du Europako hauteskundeetarako irizpideak eta prozedurak aplikatzeko eskumena, hauteskunde horien deialdia egiterakoan.
- 61d) Europar Batasun osoan hauteskunde-prozedura uniforme bera dago.

62 Europako hauteskundeak direla eta, baieztapen hauetatik zein ez da zuzena?

- 62a) Herrialde bakoitzeko, gutxieneko diputatuak 5 dira, eta gehienez 96.
- 62b) 2019. urtean, 751 eurodiputatu aukeratu zituzten guztira.
- 62c) Estatu edo eskualde mailan alderdi politikoek aurkeztu dituzten hautagaiak aukeratzeko dituzte herritarrek.
- 62d) Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteak eragindako azken doikuntzen ondoren, gaur egun 705 eurodiputatu daude.

63 Europako Parlamentuan taldea osatzeko orduan, irizpide hauetatik zein ez da egiazkoa?

- 63a) Estatu bakoitzean aukeratutako kideak ez dira bloke nazionaletan biltzen, ezta horietan lanean jarduten ere.
- 63b) Talde politikoa eratzekeko gutxieneko kopurua 20 kidekoa da.
- 63c) Talde batean sartu nahi ez duten kideak «ez-inskribatuen» taldean sartuko dira.
- 63d) Europako Parlamentuko talde politikoek Europaren integrazio-prozesuari buruz dauden ikuspegi diferentek irudikatzen dituzte.

64 Europako Herriaren Defendatzailea («Ombudsman») dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- 64a) Europako Batzordeak izendatzen du, bost urterako.
- 64b) Europako Parlamentuak izendatzen du, bost urterako.
- 64c) Europar Batasuneko edozein organoren kudeaketa txarrari buruz Europako edozein herritarrek egindako erreklamazioak jasotzen ditu.
- 64d) Aurreko a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

- 65 Gaur egun, zenbat instantziak osatzen dute Europar Batasuneko Justizia Auzitegia?**
- 65a) Instantzia bakarrak.
 - 65b) Bi instantziak.
 - 65c) Hiru instantziak.
 - 65d) Aurreko a) eta c) erantzunak ez dira zuzenak.
- 66 Nork aukeratzen ditu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko epaileak?**
- 66a) Estatu kideetako gobernuek.
 - 66b) Europako Parlamentuak.
 - 66c) Europako Batzordeak.
 - 66d) Europako Kontseiluak.
- 67 Nork aukeratzen ditu abokatu nagusiak?**
- 67a) Europako Parlamentuak.
 - 67b) Europako Kontseiluak.
 - 67c) Estatu kideetako gobernuek.
 - 67d) Europako Batzordeak.
- 68 Europar Batasuneko Justizia Auzitegia dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**
- 68a) Europar Batasuneko Justizia Auzitegia abokatu nagusiaren ondorioek lotzen dute.
 - 68b) Epaileek beren artean aukeratzen dute presidentea.
 - 68c) Abokatu nagusiaren ondorioek ez dute lotzen Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.
 - 68d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 69 Auzitegi Orokorra dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**
- 69a) Eskumena du errekurtsio jakin batzuek arduratzeko, hala nola pertsona fisiko eta juridikoek jarritako deuseztatzeko eta abstenitzeko errekurtsioak.
 - 69b) Instantzia gorena da.
 - 69c) Bertako presidentea hautatzeko prozedura eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko presidentea hautatzeko prozedura ez dira berdinak.
 - 69d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 70 Errekurtsio hauetatik, zein da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren bi instantzietan bideratzen den errekurtsioa?**
- 70a) Apelazio-errekurtsioa.
 - 70b) Kalte-galerak konpontzeko errekurtsioa.
 - 70c) Babes-errekurtsioa.
 - 70d) Kasazio-errekurtsioa.
- 71 Europako arau hauetatik, zein ez da egintza lotesle juridikoa?**
- 71a) Erregelamenduak.
 - 71b) Zuzentarauak.
 - 71c) Irizpenak.
 - 71d) Erabakiak.
- 72 Europar Batasunaren egintza juridiko lotesleak izan daitezke:**
- 72a) Legegintzakoak.
 - 72b) Eskuordetuak.
 - 72c) Betearazleak.
 - 72d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

73 Egintza juridiko lotesleak direla eta, baieztapen hauetatik zein ez da zuzena?

- 73a) Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira.
- 73b) Europar Batasuneko 24 hizkuntza ofizialetan argitaratzen dira.
- 73c) Ez dute zertan arrazoituak izan.
- 73d) Xede dituzten estatuei jakinarazi behar zaizkie.

74 Egintza lotesleen testu artikulatuaren aurretik dauden arrazoitzeko paragrafoek ez dituzte maila hauek hartzen:

- 74a) Zuzenbideko oinarriak.
- 74b) Arrazoitzea, barne hartuta alde aurretik jasotako proposamen eta irizpenen aipamena.
- 74c) Arrazoitzeko paragrafoak.
- 74d) Arauzko gehigarriak.

75 Erregelamendua dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- 75a) Araugintzan indar handiena duen egintza instituzionala da.
- 75b) Hierarkikoki zuzentarauaren gainetik dago.
- 75c) Eskumen partekatuko esparru materialetan erabakitzen da.
- 75d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

76 Erregelamendua dela eta, baieztapen hauetatik zein ez da zuzena?

- 76a) Zuzenean aplikatu daiteke estatu kideen barne-zuzenbidean.
- 76b) Ondorioak ditu barne-harremanetan.
- 76c) Hierarkikoki zuzentarauaren azpitik dago.
- 76d) Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, indarrean jartzeko.

77 Zuzentaraua dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- 77a) Hierarkikoki erregelamenduaren gainetik dago.
- 77b) Estatu kideen barne-legeriak garatu behar dituen espazioak uzten ditu.
- 77c) Europar Batasuneko erakundeek legegintza-teknika eskusiboa da.
- 77d) Europar Batasunaren eskumen eskusiboko gaiak arautzen ditu.

78 Zuzentaraua dela eta, baieztapen hauetatik zein ez da zuzena?

- 78a) Estatu kideen barne-legeriak garatu behar dituen espazioak uzten ditu.
- 78b) Estatu kideen eta Europar Batasunaren arteko eskumen partekatuko gaiak arautzen ditu.
- 78c) Hierarkikoki erregelamenduaren azpitik dago.
- 78d) Arau juridikoki inperfektua da, *per se* ondorio juridikoak sortzeko.

4. gaia

79 Nola hasten da Euskal Autonomia Estatutua?

- 79a) Hitzaurre batez.
- 79b) Zioen azalpen batez.
- 79c) Atariko titulu batez.
- 79d) Adierazpen batez.

80 Zenbat xedapen gehigarri eta iragankor ditu Euskal Autonomia Estatutuak?

- 80a) Xedapen gehigarri bat eta bederatzi xedapen iragankor.
- 80b) Bederatzi xedapen gehigarri eta xedapen iragankor bat.
- 80c) Bederatzi xedapen gehigarri eta bederatzi xedapen iragankor.
- 80d) Xedapen gehigarri bat eta xedapen iragankor bat.

81 Euskal Autonomia Estatuaren 1. artikulua dioenez, zein da autonomia-erkidegoaren izena?

- 81a) «Euskadi» edo «País Vasco», Estatuaren gaztelaniazko bertsioan.
- 81b) «Euskadi» edo «Euskal Herria», Estatuaren euskarazko bertsioan.
- 81c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 81d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

82 Euskal Autonomia Estatuaren 2. artikulua dioenez, zeinek du Euskal Autonomia Erkidegoaren partaide izateko eskubidea?

- 82a) Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak.
- 82b) Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak, eta era berean Nafarroak ere.
- 82c) Nahi duten probintziek.
- 82d) Nahi duten probintzia mugakideek.

83 Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoan integratzeko aukera dela-eta:

- 83a) Espainiako Konstituzioan ez da halakorik aipatzen.
- 83b) Espainiako Konstituzioak debekatzen du aukera hori.
- 83c) Espainiako Konstituzioan jasota zegoen, baina erreferentzia hori kendu egin da.
- 83d) Espainiako Konstituzioan agertzen da, laugarren xedapen iragankorrean.

84 Zer dira Euskal Autonomia Erkidegoko «enklabe» edo «barrendegiak»?

- 84a) Geografikoki erabat Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan dauden lurraldeak dira, baina Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko probintzia edo autonomia-erkidegoenak direnak.
- 84b) Euskal Autonomia Estatutuaren 8. artikulua lurralde-enklabeak Euskal Autonomia Erkidegoari atxikitze prozedura jasotzen du.
- 84c) Horrelako bi kasu daude.
- 84d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

85 Nola erabaki zen Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren egoitzen kokapena?

- 85a) Ez zuen Euskal Autonomia Estatutuak erabaki.
- 85b) 1980ko maiatzaren 23ko 1/1980 Legeak erabaki zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearen Egoitzari buruzkoak.
- 85c) Gasteizen kokatu ziren.
- 85d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

86 Nola erabaki zen Euskal Autonomia Erkidegoaren bandera?

- 86a) Ez zuen Euskal Autonomia Estatutuak erabaki.
- 86b) Euskal Autonomia Erkidegoko sinboloei buruzko lege batek erabaki zuen, zehatz-mehatz.
- 86c) Estatutuak 5. artikuluan deskribatzen du Euskal Herriko ikurrina (gurutzebikoa, hondo gorrian zeharkako gurutze berdea eta gainean gurutze zuria dituen).
- 86d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

87 Euskal Autonomia Erkidegoaren ereserkia eta armarrira direla-eta:

- 87a) Biak daude deskribatuta Euskal Autonomia Estatutuan.
- 87b) Euskal Autonomia Erkidegoko sinboloei buruzko lege batek erabaki zituen biak.
- 87c) Euskal Autonomia Erkidegoak ez du ez ereserki ez armarririk ofizialik.
- 87d) Euskal Autonomia Estatutuan ez dira bi elementu horiek aipatzen.

88 Hizkuntza dela eta, zer dio Konstituzioak?

- 88a) Deklaratzen du gaztelania ofiziala dela Estatu osoan.
- 88b) Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
- 88c) Gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuk koofizialak izateko aukera jasotzen du, autonomia-estatutuek erabakitzen dutenaren arabera.
- 88d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

89 Hizkuntza dela eta, zer dio Euskal Autonomia Estatutuak?

- 89a) Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza koofiziala izango da Euskadin.
- 89b) Erkidegoko biztanle guztiek dute euskara jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
- 89c) Erkidegoko biztanle guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko betebeharrak eta erabiltzeko eskubidea.
- 89d) Erkidegoko biztanle guztiek dute euskara jakiteko eskubidea eta erabiltzeko betebeharrak.

90 Hizkuntza dela eta, zein da erantzun zuzena?

- 90a) Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala da.
- 90b) 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak —Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak— garatzen ditu Autonomia Estatutuaren aurreikuspenak.
- 90c) Espainiak *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* sinatu eta berretsi du.
- 90d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

- 91 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko Harremanei buruzkoa:**
- 91a) Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren barne-egitura edo -arkitektura ezartzen du.
 - 91b) Lege horrek, alde batetik, Estatuaren eskumenak eta, bestetik, haren lurralde historikoetako foru-organoen eskumenak banatzen ditu.
 - 91c) Denboran, Euskal Autonomia Estatutua baino lehenagoko lege bat da.
 - 91d) Gorte Nagusiek emandako lege bat da.
- 92 Euskal Autonomia Estatutuaren erreforma:**
- 92a) Ez da posible Euskal Autonomia Estatutua erreformatzea.
 - 92b) Estatutuak erreforma-prozedura orokor bat eta kasu zehatzetarako hiru prozedura espezifiko ezartzen ditu.
 - 92c) Erreformari lau urtean behin ekin behar zaio nahitaez.
 - 92d) Euskal Autonomia Estatutuak ez du horri buruzko inolako erregulaziorik.
- 93 Eskumenak direla eta:**
- 93a) Autonomia Estatutuan ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko eskumen-banaketarako zenbait arau.
 - 93b) Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatutako eskumen gehienak Estatutuaren I. tituluan jasota daude, baina beste batzuk Estatutuaren beste atal batzuetan, titulu horretatik kanpo.
 - 93c) Euskadik bereganatutako eta Estatutuan jasotako eskumenen adibideak dira euskararekin lotutakoak edo Ekonomia Itunari buruzkoa.
 - 93d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.
- 94 Estatutuak (26. art.) honela dio Eusko Legebiltzarraren osaeraz eta bertako kideen hautaketaz:**
- 94a) Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berak osatuko du Eusko Legebiltzarra.
 - 94b) Hauteskunde-barrutia bakarra izango da: Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea.
 - 94c) Eusko Legebiltzarra sei urterako hautatuko da.
 - 94d) Zeharkako sufragio sekretuaren bidez hautatuko dira ordezkariak.
- 95 Estatutuak (25. art.) eginkizun hauek esleitzen dizkio Eusko Legebiltzarrari:**
- 95a) Erregelamenduak egiteko ahala.
 - 95b) Erkidegoaren aurrekontuak idaztea.
 - 95c) Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean egotea.
 - 95d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 96 Estatutuaren arabera (27. art.) Eusko Legebiltzarraren legeak:**
- 96a) Eusko Jaurlaritzako lehendakariak promulgatzen ditu.
 - 96b) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen dira, baina ez Estatuko Aldizkari Ofizialean.
 - 96c) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira, baina ez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.
 - 96d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 97 Estatutuaren arabera (27. art.), nor aukeratuko du Eusko Legebiltzarrak, bertako kideen artetik, bere antolaketa eta funtzionamendurako?**
- 97a) Legebiltzarreko lehendakaria.
 - 97b) Batzar unibertsala.
 - 97c) Zuzendaritza Batzordea.
 - 97d) Gobernu Batzordea.

98 Estatutuaren arabera (28. art.), zein eginkizun dagokio Eusko Legebiltzarrari, eginkizun nagusiez gain?

- 98a) Senatuan Euskadiren ordezkari izango diren senatariak izendatzea.
- 98b) Estatuko gobernuari lege-proiektuak egiteko eskatzea.
- 98c) Kongresuko Mahaira lege-proposamenak bidaltzea.
- 98d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

99 Estatutuaren arabera (33. art.), nork izendatuko du Jaurlaritzako lehendakaria?

- 99a) Eusko Legebiltzarreko kide bat izan daiteke.
- 99b) Ez du zertan Eusko Legebiltzarreko kide bat izan.
- 99c) Eusko Legebiltzarreko kide bat izan behar du, nahi eta nahi ez.
- 99d) Ezin da inola izan Eusko Legebiltzarreko kide bat.

100 Estatutuaren arabera (33. art.), nork izendatuko du Jaurlaritzako lehendakaria?

- 100a) Eusko Legebiltzarrak.
- 100b) Erregeak.
- 100c) Gorte Nagusiek.
- 100d) Euskal herritarrek izendatuko dute zuzenean.

101 7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa, Jaurlaritzari buruzkoa:

- 101a) Lege hau Euskadiko lehendakariari eskainita dago oso-osorik.
- 101b) Lege honen arabera, lehendakariak hiru egun baino gehiago kanpoan egon behar badu, Legebiltzarrak baimena eman beharko dio alde aurretik.
- 101c) Lege honen arabera, lehendakariak Gobernu Programa definitzen du, sailburuak izendatu eta kargutik kentzen ditu, eta Eusko Jaurlaritzako sailak sortu edo desegiteko dekretuak ematen ditu.
- 101d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

102 Eusko Jaurlaritza:

- 102a) Lehendakariak, sailburuek, sailburuordeek eta zuzendari nagusiek osatzen dute.
- 102b) Jaurlaritzan bi sexuek % 40ko ordezkariak izango dute, gutxienez.
- 102c) Eusko Legebiltzarrak aukeratzen ditu Jaurlaritzako kide guztiak.
- 102d) Ez dago araurik Jaurlaritzan sexuen gutxienerako ordezkariak ezartzen duenik.

103 Eusko Jaurlaritzako sailburuek:

- 103a) Izaera bakarra dute, sail bateko titular gisa.
- 103b) Izaera bikoitza dute: alde batetik, Jaurlaritzako kide gisa; bestetik, sail bateko titular gisa.
- 103c) Izaera hirukoitza dute: lehenik, Jaurlaritzako kide gisa; bigarrenik, sail bateko titular gisa, eta, hirugarrenik, Eusko Legebiltzarreko kide gisa.
- 103d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

104 Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea:

- 104a) Figura hau berariaz jasota dago Euskal Autonomia Estatutuan.
- 104b) Beharrezko figura da uneoro: beti egon behar du lehendakariorde batek.
- 104c) Ez da ezinbestekoa lehendakariorde bat edo gehiago izendatzea.
- 104d) Sailburu ez den pertsona bat izenda daiteke lehendakariorde.

5. gaia

105 Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta Lurralde Historikoetako foru-erakundeen arteko eskumen-banaketa dela eta:

- 105a) Kontuan hartu behar dugu Euskal Autonomia Estatutuan adierazitakoa.
- 105b) Lurralde Historikoek eskumen batzuk dituzte erreserbatuta, eta eskumen horietako batzuk ukiezintzat jo daitezke EAEko legegilearentzat.
- 105c) Estatutuak Lurralde Historikoei ematen dizkien eskumenen artean dago beren antolakuntza eta autogobernurako erakunde propioak kontserbatu, berrezarri eta eguneratzeko eskumena.
- 105d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

106 Eskumenak direla eta, Gernikako Autonomia Estatutuak:

- 106a) Eskumenen banaketa zurrana ezarri zuen, erakunde komunen eta Lurralde Historikoen artean.
- 106b) Bere Atariko Tituluan bildu zituen Lurralde Historikoei eskumenak ematen dizkieten arau guztiak.
- 106c) Eusko Legebiltzarraren lege berezi baten bidez edo gehiengo kualifikatuaren bidez esleitu zitzaizkien eskumenak Lurralde Historikoei.
- 106d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

107 Lurralde Historikoen Legearen arabera (7 art.), eskumen hauetatik zein dira Lurralde Historikoen eskumen mota bat?

- 107a) Esklusiboak.
- 107b) Partekatuak.
- 107c) Hondar-eskumenak.
- 107d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

108 Lurralde Historikoen Legearen arabera (8. art.), Lurralde Historikoen eskumen eskusiboko gaietan, ahal hauek dituzte lurralde horiek:

- 108a) Legegintzako ahala.
- 108b) Ikuskatzeko ahala, administrazio-bidean.
- 108c) Ikuskatzeko ahala, bide judizialean.
- 108d) Administrazio-ahala, ikuskapen-ahala berariaz baztertuta.

109 Ebazpen Batzordea:

- 109a) Ez da aipatzen Euskal Autonomia Estatutuan.
- 109b) Lurralde Historikoen eta Europar Batasunaren artean sor daitezkeen eskumen-gatazkak ebazten ditu.
- 109c) Ebazpen Batzordea arautzen duen 1994ko ekainaren 30eko 13/1994 Legearen mendean dago.
- 109d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

110 Ebazpen Batzordearen osaera dela eta:

- 110a) Bi presidente ditu.
- 110b) Presidente bat du, eta kargu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidenteari dagokio.
- 110c) Hamabi bokal ditu.
- 110d) Kideetako bat lehendakaria da.

111 Hautetatik, zein da Ebazpen Batzordearen eskumena?

- 111a) Eskumen-gatazkak deiturikoak, baina soilik positiboak.
- 111b) Eskumen-gatazkak deiturikoak, baina soilik negatiboak.
- 111c) Eskumen-gatazkak deiturikoak; bai positiboei, bai negatiboei dagokienez.
- 111d) Ez du eskumenik eskumen-gatazka deiturikoetan, positiboak izan edo negatiboak izan.

112 Ekonomia Itunaren sistema:

- 112a) Espainiako autonomia-erkidego guztietan aplikatzen da.
- 112b) «Alde bakarreko arriskua» izeneko sistema batean oinarritzen da; hau da, Euskadik Estatuari hitzartutako «kupo» ordaindu behar dio betiere, bai diru-bilketa ondo badoa, bai gaizki badoa.
- 112c) Sistema hau euskal eskubide historikoetako batetik dator, eta Konstituzioak bereziki babesten ditu eskubide horiek.
- 112d) Aurreko erantzunen artean, bi erantzun zuzen daude.

113 Noizkoak dira gaur egungo Euskadiko Ekonomia Itunaren aurrekari historikoak?

- 113a) Erdi Arokoak.
- 113b) Gurutzaden garaikoak.
- 113c) XIX. mendearen amaierakoak, 1876an Euskal Foruak indargabetu ondorengoak.
- 113d) Espainiako II. Errepublikaren garaikoak.

114 1978ko Konstituzioaren zein ataletan biltzen dira Lurralde Historikoen eskubide historikoen aitorpena eta babesa?

- 114a) Lehen xedapen gehigarrian.
- 114b) Azken xedapenetako azkenean.
- 114c) Hitzaurrean.
- 114d) Atariko tituluan.

115 Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen zuen 1981eko maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez:

- 115a) Estatuak bere kabuz ezarri zuen Euskal Autonomia Erkidegorako Ekonomia Ituna.
- 115b) Euskal Autonomia Erkidegorako berrogei urteko indarraldiko itun bat ezarri zen.
- 115c) Hiru Lurralde Historikoetarako Ekonomia Itunaren sistema berreskuratu eta zehaztu zen.
- 115d) Ekonomia Itunaren sistema ezabatu zen.

116 Estatutuaren arabera (41. art.), Itunaren edukiak zein printzipio errespetatu behar ditu?

- 116a) Lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute beren lurraldean, Estatuaren zerga-egitura orokorra kontuan hartu gabe.
- 116b) Lurralde historiko bakoitzaren barruan, batzar nagusiek ordainaraziko, kudeatuko, likidatuko, bilduko eta ikuskatuko dituzte zerga guztiak.
- 116c) Euskadik Estatuari egingo dion ekarpena kupo orokor bat izango da, lurralde historiko bakoitzari dagokionaz osatuta, Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa.
- 116d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

117 Nork onartzen du lurralde historiko bakoitzeko zerga-araubidea erregulatzen duen araudia, foru-arauden eta zerga-arloko foru-arauden bidez?

- 117a) Batzar Nagusiek.
- 117b) Foru-aldundiek.
- 117c) Eusko Legebiltzarrak.
- 117d) Gorte Nagusiek.

118 Zer esan nahi du «Ekonomia Itunaren blindajea» esamoldeak?

- 118a) Auzitegi arruntetan ezin dela lurralde historikoetako zerga-araubidea erregulatzen duen araudiaren aurkako errekurtsorik jarri.
- 118b) Aukera dagoela lurralde historikoetako zerga-araubidea erregulatzen duen araudiaren aurkako errekurtsioak Senatuan jartzeko.
- 118c) Aukera dagoela Estatuako zerga-araubidea erregulatzen duen araudiaren aurkako errekurtsioak Lurralde Historikoetako batzar nagusietan jartzeko.
- 118d) Inongo organo edo auzitegitan ezin dela lurralde historikoetako zerga-araubidea erregulatzen duen araudiaren aurkako errekurtsorik jarri.

119 Lurralde historikoek ezartzen duten zerga-sistemak printzipio hauek bete beharko ditu:

- 119a) Elkartasunarekiko errespetua.
- 119b) Estatuako zerga-egitura orokorrarekiko lotura.
- 119c) Lurralde historikoetako erakundeen arteko koordinazioa, harmonizazio fiskala eta lankidetzak, Eusko Legebiltzarrak helburu horiei begira ematen dituen arauak betez.
- 119d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

120 Zerga-araudia egiteko orduan, lurralde historikoek:

- 120a) Harmonizazio fiskalaren printzipioa izenekoa errespetatu beharko dute.
- 120b) Zergei buruzko Lege Orokorrera egokituko dira, terminologiari eta kontzeptuei dagokienez.
- 120c) Espainiako lurralde osoan herritarren zirkulatzeko eta kokatzeko askatasuna errespetatu eta bermatuko dute, bai eta ondasun, kapital eta zerbitzuen zirkulazio askea ere.
- 120d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

121 Oro har, esan daiteke zenbait zerga direla:

- 121a) Itunduak.
- 121b) Itaunduak.
- 121c) Egituratuak.
- 121d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

122 Zein printzipioren arabera finkatzen dira Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza-harremanak?

- 122a) Euskadiko erakundeek euren eskumenak garatu eta erabiltzeko autonomia izango dute zergen eta finantzen eremuetan.
- 122b) Elkartasuna, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan zehaztutako moduan.
- 122c) Euskadiren kontribuzioa, Ekonomia Itunean bertan zehazten den eran, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren kargak direla-eta.
- 122d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

123 Kupoaren ondorioetarako, Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargatzat hartzen dira Erkidegoak benetan egikaritzeko bere gain hartu ez dituen eskumenei dagozkienak; esate baterako:

- 123a) Nazioarteko harremanak.
- 123b) Defentsa.
- 123c) Aduanen eta muga-zergen araubidea.
- 123d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

124 «Egozpen-indizea» izenekoa dela eta:

- 124a) Euskadiko ekonomiak Espainiako ekonomian duen partaidetza islatu nahi du.
- 124b) Urtero aldatzen da.
- 124c) Aurrekontuen Legeak ezartzen du.
- 124d) Transferitzeko dauden eskumenengatik Estatuak Euskadiri zenbat ordaindu behar dion kalkulatzeko balio du.

125 Kupoaren urteko indarraldian Autonomia Erkidegoak eskumen berriak bereganatzen baditu, eta eskumen horien estatu-mailako urteko kostua Estatuaren kargen barruan sartu bazen kupoaren behin-behineko diru-zenbatekoa zehazteko:

- 125a) Kupoaren diru-zenbatekoa handituko da.
- 125b) Azken batean, kupoa murriztuko da, dagokion diru-zenbatekoan.
- 125c) Indarrean dagoen Ekonomia Ituna eten egingo da, eta berehala beste bat negoziatuko da.
- 125d) Ez da ezer egingo: batzuetan Euskal Autonomia Erkidegoa izango da onuradun, eta beste batzuetan, berriz, Estatua.

126 Ekonomia Itunaren Legeak zenbait organo aurreikusten ditu, Legea aplikatzean sor daitezkeen gatazkak eta arazoak konpontzeko eta beste eginkizun batzuk garatzeko:

- 126a) Bai, eta horietako bat Kupoaren eta Ekonomia Itunaren Batzordea deitzen da.
- 126b) Bai, eta horietako bat Arbitraje Batzordea deitzen da.
- 126c) Ez, mota horretako organo bakarra ezartzen da.
- 126d) Ez, ez da mota horretako organo bakar bat ere ezartzen.

127 Arau hauetatik, zein da interesgarriena EAEko udalen eta gainerako toki-erakundeen esparru juridikoa ezagutzeko?

- 127a) Tokiko Autonomiaren Munduko Gutuna.
- 127b) Estatuko oinarrizko legeria, toki-araubideko gaietan.
- 127c) Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.
- 127d) Erromako Tratatua.

- 128 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen Zioen Azalpenean, lortu nahi diren helburuak jasotzen dira, hala nola:**
- 128a) Udalen finantza-jasangarritasuna ziurtatzea.
 - 128b) Indartzea udalak herritarrengandik hurbil dauden administrazio gisa duen izaera.
 - 128c) Udalari ikusgarritasun instituzionala ematea, EAEko botere publikoen sisteman.
 - 128d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.
- 129 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak dioenez, lege horretan aurreikusitako ondorioetarako, honako hauek hartuko dira toki-erakundetzat:**
- 129a) Arabako kuadrillak.
 - 129b) EAEko udalerrien mankomunitateak, baina probintzia artekoak direnean bakarrik.
 - 129c) Auzo-elkarteak.
 - 129d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 130 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak (16. art.) klausula unibertsal bat ezartzen du udal-eskumenei buruz eta eskumen propio, transferitu edo eskuordetu ez diren jarduera, zerbitzu edo prestazioei buruz. Horren arabera:**
- 130a) Toki-erakundeek edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio mota garatu ahal izango dute, inolako mugarik gabe, auzotarren intereserako bada.
 - 130b) Toki-erakundeek, tokiko komunitatearen interesei erantzuten dien edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute, nahiz eta beren eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartuta ez egon eta beste instituzioekin bikoiztasunak sortu.
 - 130c) Toki-erakundeek, tokiko komunitatearen interesei erantzuten dien edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute, nahiz eta beren eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartuta ez egon eta erakundearen ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jarri.
 - 130d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

6. gaia

131 Zer da berdintasuna?

- 131a) Ordenamendu juridikoaren balio goren bat.
- 131b) Printzipio juridiko bat.
- 131c) Oinarrizko eskubide bat.
- 131d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

132 Erakunde hauetatik, zein arduratzen da eksklusiboki berdintasun-politikak ezartzeaz?

- 132a) NBE (Nazio Batuen Erakundea) Emakumeak.
- 132b) LANE (Lanaren Nazioarteko Erakundea).
- 132c) NBGP (Nazio Batuen Garapenerako Programa).
- 132d) UNFPA (Nazio Batuetako Biztanleriaren Funtsa).

133 Istanbulgo Hitzarmenak (2011) helburu hauek ditu, besteak beste:

- 133a) Emakumea indarkeria mota guztietatik babestea.
- 133b) Lan egitea emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzearen alde.
- 133c) Lan egitea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde.
- 133d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

134 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak bere xedea azaltzen du 1. artikuluan. Eremu horretako baieztapen hauetatik, zein ez da zuzena?

- 134a) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu.
- 134b) Hainbat neurri arautzen ditu bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko.
- 134c) Haren aplikazio-eremua Espainiako estatua da.
- 134d) Emakumeen autonomia sustatu nahi du, eta haien posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartu.

- 135 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako tratu-berdinaren printzipioa dela eta, beste printzipio hauekin batera doa:**
- 135a) Aukera-berdintasuna.
 - 135b) Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea.
 - 135c) Berdintasuna legea aplikatzean.
 - 135d) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 136 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1c) artikulua arabera, neurri hauetatik zein kontsideratzen da diskriminatzailea?**
- 136a) Emakumeentzako ekintza positiboetan oinarritzen diren neurriak.
 - 136b) Arrazoi biologikoengatik sexuei babes berezia emateko premian oinarritutako neurriak.
 - 136c) Emakumeak sustatzeko edozein neurri.
 - 136d) Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zainketan parte har dezaten sustatzeko neurriak.
- 137 Esaldi hauetako zeinek definitzen du hobeto Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginean jasotako aukera-berdintasunaren printzipioa?**
- 137a) Pertsona guztiek —emakumeek nahiz gizonek— esparru publikoko eta pribatuko arlo guztietan modu aktibo eta ekitatiboan parte hartzeko duten eskubidea bermatu nahi da.
 - 137b) Emakumeek eta gizonek hasierako baliabide antzekoak izan behar dituzte.
 - 137c) Bi sexuentzako helburu berdinak lortzea da xedea.
 - 137d) Pertsona bat, aukera bat.
- 138 Genero-ikuspegia integratzeak gizonen eta emakumeen artean dauden desorekak konpontzeko beharra planteatzen du. Horretarako, ekintza hauek proposatzen dira, besteak beste:**
- 138a) Jarduerak sexuen artean modu ekitatiboan birbanatzea (arlo publikoan eta pribatuan).
 - 138b) Emakumeek eta gizonek egiten dituzten lanak era justuan balioestea, batez ere seme-alaben hazkuntzari, gaixoen zaintzari eta etxeko lanei dagozkienak.
 - 138c) Desberdintasuna erreproduzitzen duten gizarte-egiturak, mekanismoak, arauak, jardunbideak eta balioak aldatzea.
 - 138d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 139 Zer esan nahi du «genero-ikuspegia txertatzeak»?**
- 139a) Iraganeko politika publikoak genero-gaietara egokitzea.
 - 139b) Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.
 - 139c) Politika publikoetan diskriminazioak ezabatzeko bidea sendotzea.
 - 139d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 140 Hauetatik, zein da emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren alde lan egiteko tresnarik eraginkorrenetako bat?**
- 140a) Kasuan kasuko gaiari buruzko printzipio-politika egokia.
 - 140b) Legeria eraginkorra.
 - 140c) Ekintza positiboa.
 - 140d) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

141 Ekintza positiboa honen arabera legitimatzen da:

- 141a) Pertsona onuraduna nor den.
- 141b) Diskriminatutako kolektibo bateko kide izatea.
- 141c) Diskriminatutako kolektibo bateko kide izatea, emakumeena alegia.
- 141d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

142 Non dute jatorria ekintza positiboek?

- 142a) XX. mendearen 60ko hamarkadan, Ameriketako Estatu Batuetan.
- 142b) XX. mendearen 60ko hamarkadan, Erresuma Batuan.
- 142c) XX. mendearen 70eko hamarkadan, Ameriketako Estatu Batuetan.
- 142d) XX. mendearen 70eko hamarkadan, Erresuma Batuan.

143 Zer da genero-estereotipoa?

- 143a) Barneratutako ideia diskriminatzailea.
- 143b) Gizonek eta emakumeek dituzten edo eduki behar lituzketen ezaugarriei buruzko iritzia edo aurreiritzia.
- 143c) Globalki onartutako errealitatea.
- 143d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

144 Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera, betebeharrak hauetatik zein ezartzen zaie estatuei?

- 144a) Diskriminatutako kolektiboen aldeko politika publikoak gauzatzea.
- 144b) Emakumeak babesten aktiboki jardutea.
- 144c) Gizonen eta emakumeen aurkako diskriminazioa ezabatzea bizitzaren eremu guztietan.
- 144d) Beren agenda publikoetan, generoagatiko diskriminazioa jasotzea.

145 Teorikoki, nola defini daiteke gizonen eta emakumeen arteko ordezkaritza orekatua?

- 145a) Berdintasun zehatza, sexuen arteko ordezkaritzaaren ehunekoetan.
- 145b) Parte-hartzearen ehunekoa zeinean sexu bakar bat ere ez baita beste sexuaren gainetik gailentzen.
- 145c) Sexuen arteko ehunekoen parekatzea.
- 145d) Erantzun guztiak okerrak dira.

146 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.10 artikularen arabera, zein ehuneko behar da, gutxienez, pertsona anitzeko administrazio-organismoetan, sexu bien ordezkaritza orekatutzat jo ahal izateko?

- 146a) % 50.
- 146b) % 40.
- 146c) % 30.
- 146d) Erantzun guztiak okerrak dira.

147 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.10. artikulua kide anitzeko organismoak aipatzen dituenetan, organo hauetatik zein da, besteak beste:

- 147a) Batzordeak.
- 147b) Kontseiluak.
- 147c) Epaimahaiak.
- 147d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 148 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.11 artikulua arabera, berdintasunaren arloan egiten diren jarduera guztiak modu koordinatuan egin behar dira, noren lankidetzarekin?**
- 148a) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztiekin, entitate guztiekin eta herritarrekin.
 - 148b) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztiekin, entitate guztiekin, herritarrekin eta enpresekin.
 - 148c) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko eta pribatu guztiekin, entitate guztiekin eta herritarrekin.
 - 148d) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztiekin, entitate eta organismo publiko eta pribatu guztiekin eta herritarrekin.
- 149 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak hainbat koordinazio-egitura sortzea sustatzen du, besteak beste:**
- 149a) Emakunde.
 - 149b) Sailarteko Batzordea.
 - 149c) Berdintasun-organoak.
 - 149d) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 150 Egitura informalen artean, hauek nabarmentzen dira:**
- 150a) Saileko talde teknikoa.
 - 150b) Berdintasunerako unitateen sarea.
 - 150c) Berdinsarea.
 - 150d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 151 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20.1 artikulua arabera, arau-proiektu bat sustatzen duen administrazio-organo orok generoaren araberako aurretiazko ebaluazioa egin beharko du, hau da:**
- 151a) Arau hori aplikatzeak desberdintasunak ezabatzeko dituen ondorio positiboak soilik aztertu beharko ditu.
 - 151b) Arau hori aplikatzeak desberdintasunak ezabatzeko dakartzan ondorio negatiboak soilik aztertu beharko ditu.
 - 151c) Arau hori aplikatzearen ondorio positiboak edo negatiboak aztertu beharko ditu, desberdintasunak ezabatzeko.
 - 151d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 152 Genero-eraginari buruzko ebaluazioa egin ondoren, araua sustatzen duen organoak neurri zuzentzaileak hartu behar ditu antzemandako desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko. Neurri orokor horien artean daude, besteak beste, hautaketa-probak edo sariak ematea erregulatzen duten arauetan klausula bat sartzea, bi sexuei gutxieneko ordezkaritza bat bermatzeko epaimahaietan. Zenbat da ehuneko hori?**
- 152a) % 30.
 - 152b) % 40.
 - 152c) % 50.
 - 152d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 153 Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak sartzea:**
- 153a) Ez da salbuespen gisa egingo, txosten arrazoitu bidez eta organo eskudunak onartuta, non omisio hori justifikatuko den.
 - 153b) Salbuespen gisa egingo da, txosten arrazoitu bidez eta organo eskudunak onartuta, non omisio hori justifikatuko den.
 - 153c) Nahitaezkoa da, indarrean dagoen legeriaren arabera.
 - 153d) Ez da nahitaezkoa, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- 154 Tokiko administrazioaren eremuan, zein urtetan hasi ziren «generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioak»?**
- 154a) 2016an.
 - 154b) 2017an.
 - 154c) 2018an.
 - 154d) 2019an.
- 155 Zein lan argitaratu du Emakunde-k hizkuntza ororen erabilera ez-sexistari buruz?**
- 155a) «Propuestas para un uso no sexista del lenguaje» (1987).
 - 155b) «Euskararen erabilera ez sexista» (2008).
 - 155c) «Guía de lenguaje para el ámbito del deporte» (2010).
 - 155d) «Guía de lenguaje para el ámbito de la salud» (2010).
- 156 4/2005 Legearen ebaluazioa dela eta, Emakundek lan bat kontratatu zuen, EAEko administrazio publikoen kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak aplikatzeari buruzko jarraipen- eta ebaluazio-azterlana egiteko. Noizkoa da?**
- 156a) 2013koa.
 - 156b) 2014koa.
 - 156c) 2015ekoa.
 - 156d) 2016koa.

7. gaia

157 Ezaugarri hauetako zein identifikatzen da administrazio elektronikoarekin, Administrazioaren ikuspuntutik?

- 157a) Kostuak murriztea.
- 157b) Efizientzia eta produktibitatea hobetzea.
- 157c) Paper gutxiago erabiltzea.
- 157d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

158 Ezaugarri hauetako zein identifikatzen da administrazio elektronikoarekin, herritarren ikuspuntutik?

- 158a) Azkartasuna eta erosotasuna.
- 158b) Paper gutxiago erabiltzea.
- 158c) Kostuak murriztea.
- 158d) Administrazioarekiko harremanak hobetzea.

159 Nori eragiten dio administrazio elektronikoa ezartzeak?

- 159a) Prozesuei.
- 159b) Teknologiari.
- 159c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 159d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

160 Arau hauetatik, zein dago indarrean?

- 160a) 11/2007 Legea, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa.
- 160b) 59/2003 Legea, Sinadura Elektronikoari buruzkoa.
- 160c) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 160d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 161 «Administrazio-egintzak idatziz emango dira, bitarteko elektronikoen bidez», eta, halaber, «Administrazio publikoek idatziz emango dituzte administrazio-dokumentuak, bitarteko elektronikoen bidez, ...». Zein legetan jasotzen dira baieztapen horiek?**
- 161a) 39/2015 Legean (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).
 - 161b) 40/2015 Legean (urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).
 - 161c) 39/2015 eta 40/2015 Legeetan.
 - 161d) 11/2007 Legean (Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa).
- 162 Zein artikulutan arautzen ditu eskubideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak?**
- 162a) 12., 13., 14. eta 53. art.
 - 162b) 9., 10. eta 11. art.
 - 162c) 5. eta 6. art.
 - 162d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 163 Zein artikulutan arautzen ditu erregistroak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak?**
- 163a) 14. art.
 - 163b) 15. art.
 - 163c) 16. art.
 - 163d) 17. art.
- 164 Zein da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen aplikazio-eremua?**
- 164a) Estatuaren Administrazio Orokorra.
 - 164b) Autonomia-erkidegoetako administrazioak.
 - 164c) Sektore publiko instituzionala.
 - 164d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 165 Zein artikulutan jasotzen ditu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen duten printzipioak?**
- 165a) 1. art.
 - 165b) 2. art.
 - 165c) 3. art.
 - 165d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 166 Nola laburtu daitezke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarri dituzten betebeharrak?**
- 166a) Tramitazio elektronikoen segurtasuna bermatzea.
 - 166b) Espedienteak elektronikoki tramitatzea.
 - 166c) Tramitazioaren arintasuna bermatzea.
 - 166d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 167 Zein elkarreragingarritasun mota bereizten dira elkarreragingarritasun eskema nazionalan (ENI)?**
- 167a) Antolaketakoa.
 - 167b) Lexikoa.
 - 167c) Teknikoa.
 - 167d) Aurreko a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

168 Zein lege-testuk arautzen dute datu pertsonalen babesa?

- 168a) 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak (Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduak (Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa).
- 168b) Datuen Tratamendu Automatizatua Arautzeko Lege Organikoak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduak (Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa).
- 168c) Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduak (Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa).
- 168d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

169 Helburu hauetatik zein sartzen da Segurtasun Eskema Nazionalak (ENS) lortu nahi dituen helburuen artean?

- 169a) Prebentzioa, detekzioa eta zuzenketa sustatzea, zibermehatxuen eta zibererasoen kasuan erresilientzia hobea izateko.
- 169b) Segurtasunaren tratamendu homogeneoa bultzatzea, zerbitzu publiko digitalak ematean entitate batek baino gehiagok parte hartzen dutenean haien arteko lankidetzak estutzeko.
- 169c) Jardunbide egokien eredu izatea.
- 169d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

170 Zer abantaila du paperik gabeko administrazioak, funtzionamendu erabat elektronikoa oinarritua dagoenak?

- 170a) Hobeto betetzen ditu efikazia- eta efizientzia-printzipioak.
- 170b) Kostuak aurrezten ditu.
- 170c) Interesdunen bermeak indartzen ditu.
- 170d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

171 Non jasotzen da administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra?

- 171a) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean.
- 171b) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 14. artikuluan.
- 171c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean.
- 171d) Erantzun guztiak okerrak dira.

172 Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko zein bitarteko erabili administrazio publikoekin komunikatzean; hauek, alegia:

- 172a) Bitarteko elektronikoak edo konbentzionalak.
- 172b) Bitarteko konbentzionalak.
- 172c) Bitarteko elektronikoak.
- 172d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

- 173 Nor dago behartuta administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera, administrazio-prozedura baten edozein tramitetarako?**
- 173a) Pertsona fisikoak eta juridikoak.
 - 173b) Pertsona juridikoak.
 - 173c) Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
 - 173d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 174 Eskubide hauetatik zein ez zaie aitortzen administrazio publikoarekin harremanak izango dituzten pertsoneri, 39/2015 Legearen 13. artikuluan jasotakoaren arabera?**
- 174a) Baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.
 - 174b) Edozein hizkuntza erabiltzeko eskubidea.
 - 174c) Legean identifikaziorako eta sinadura elektronikorako aurreikusitako bitartekoak lortzea eta erabiltzea.
 - 174d) Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako guztiak.
- 175 Legegileek bazekiten biztanleria-segmentu batek ez dituela tramitazioa telematikoki egiteko beharrezko diren bitartekoak eta prestakuntza. Zein artikulutan jasotzen da kasu horretan laguntzeko kontzeptua?**
- 175a) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10. artikuluan.
 - 175b) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 12. artikuluan.
 - 175c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan.
 - 175d) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 12. artikuluan.
- 176 Non definitzen dira «egoitza elektronikoa» eta «Interneteko ataria»?**
- 176a) Urriaren 1eko 39/45 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).
 - 176b) Urriaren 1eko 40/2015 Legean (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).
 - 176c) Abenduaren 9ko 19/2003 Legean (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa).
 - 176d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 177 Legean jasotako eduki hauetatik, zein ez da kontsideratuko herritarren eskura dagoen egoitza elektroniko baten gutxieneko eduki gisa?**
- 177a) Dauden zerbitzuen zerrenda.
 - 177b) Zerbitzu-karta eta zerbitzu elektronikoen karta.
 - 177c) Espediente baten berezko dokumentazioa.
 - 177d) Aldizkari ofizialen argitalpena.
- 178 Interesdunak elektronikoki identifika daitezke administrazio publikoen aurrean, sistema hauen bidez:**
- 178a) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektroniko kualifikatueta oinarritzen diren sistemak.
 - 178b) Zigilu elektronikoko ziurtagiri elektroniko kualifikatueta oinarritutako sistemak.
 - 178c) Gako itunduko sistemak.
 - 178d) NANA, gidabaimena edo antzeko agiria.

179 Administrazio publikoek hauetarako bakarrik eskatuko diete interesdunei sinadura nahitaez erabiltzea:

- 179a) Eskaerak egiteko.
- 179b) Errekurtsoak jartzeko.
- 179c) Eskubideei uko egiteko.
- 179d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

180 Dokumentu elektroniko batek ezaugarri hauek ditu:

- 180a) Eskatzen diren gutxieneko metadatuak ditu.
- 180b) Dokumentu konbentzional baten berdin-berdina da.
- 180c) Atenporala da.
- 180d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

181 Zein legek jasotzen du artxibo elektronikoen funtzionamenduari eragiten dion araudia?

- 181a) Urriaren 1eko 39/45 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).
- 181b) Urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).
- 181c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 181d) Espainiako ordenamendu juridikoan sakabanatuta dauden hainbat lege.

182 Aukeratu administrazio-espediterearen definiziorik onena:

- 182a) Dokumentu eta jarduketa administratiboen multzo ordenatua.
- 182b) Administrazio-prozeduraren zati garrantzitsu bat.
- 182c) Administrazio-prozeduraren dokumentu-euskarria.
- 182d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

8. gaia

183 Zer dio azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoak?

- 183a) Herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, Administrazio Publikoarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea.
- 183b) Herritar guztiei aitortzen zaie nahi duten hizkuntza ofizialean arreta jasotzeko eskubidea.
- 183c) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden botere publikoek emandako araugintza-xedapen edo ebazpen ofizial guztiek bi hizkuntzetan idatzita egon behar dute publizitate ofiziala egin behar denean.
- 183d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

184 Kontzeptu edo gai hauetatik, zein agertzen da Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean?

- 184a) Hizkuntza-eskakizuna.
- 184b) Hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data.
- 184c) Euskara meritu gisa baloratzea hautaketa-prozesuetan.
- 184d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

185 Hizkuntza-eskakizuna dela eta:

- 185a) Administrazio publikoetako lanpostu batzuei bakarrik esleituko zaie dagokien hizkuntza-eskakizuna.
- 185b) Administrazio publikoetako lanpostu guztiek dute hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data.
- 185c) Hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data lanpostu-zerrendetan agertzen dira.
- 185d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

186 Hizkuntza-eskakizuna dela eta:

- 186a) Lanpostu bat betetzeko eta bertan lan egiteko beharrezkoak diren gaztelaniaz bestelako hizkuntzetako gaitasun-mailak zehazten ditu.
- 186b) Derrigortasun-datatik aurrera, hizkuntza-eskakizuna betetzea derrigorrezkoa izango da dena delako lanpostua hartzeko eta bertan lan egiteko.
- 186c) Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez den bitartean, bakar-bakarrik balioko du gaztelaniaz bestelako hizkuntzetako jakintza-mailak merezimendu gisa baloratzeko, bai lanpostuak betetzeko, bai kanpoko aukeraketak egiteko.
- 186d) Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen arabera, Eusko Legebiltzarrak erabakitzen ditu lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak, bai eta haiek aplikatzeko irizpideak ere, aurretik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatuta.

187 Euskal Sektore Publikoko entitateetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua dela eta:

- 187a) Funtsezko dekretua da euskararen normalizazioari begira.
- 187b) Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko 10/1982 Oinarrizko Legean eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legean xedatutakoa garatzen du.
- 187c) Dekretuaren artikuluetan, funtsean, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea eta lanpostuak betetzeko prozesuetan hizkuntza-eskakizunak kontuan hartzea, baliozkotzeak eta salbuespen-araubidea arautzen dira, besteak beste.
- 187d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

188 Zenbat hizkuntza-eskakizun daude euskal sektore publikoan?

- 188a) Bost.
- 188b) Zortzi.
- 188c) Hiru.
- 188d) Lau.

189 B1B1 ohikoagoa da hauen artean:

- 189a) Mendeko langileen artean.
- 189b) Euskara-itzultzaileen eta hizkuntza-normalizazioko teknikarien artean.
- 189c) Alkateen artean.
- 189d) Unibertsitateko ikasleen artean.

190 «Derrigortasun-indizea» izenekoa dela eta:

- 190a) Administrazio jakin bateko lanpostu guztiak kontuan harturik derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleitura daukaten lanpostuen portzentajea zehazten du.
- 190b) Euskal Autonomia Erkidego osoko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta kalkulatu da.
- 190c) Honela funtzionatzen du: zenbat eta euskaldun gehiago egon, orduan eta txikiagoa izango da nahitaez bete beharreko indizea.
- 190d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

191 Nola egiaztatzen da hizkuntza-eskakizuna, euskal sektore publikoko langileen kasuan?

- 191a) Lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan edo barne-sustapenerako deialdietan horretarako berariaz egiten diren proben bitartez.
- 191b) Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) edo gure autonomia-erkidegoan dagoen edozein administrazio publikok helburu horrekin egiten dituen ezohiko deialdien bidez; proba horiek bi urtean behin egiten dira, gutxienez.
- 191c) Bi urtean behingo ohiko proben eta hiru urtean behingo berariazko proben bidez.
- 191d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

192 Egoera batzuetan lanpostu baten titularra hizkuntza-eskakizuna betetzetik salbuetsita gera daiteke?

- 192a) Ez, aukera hori ez dago inola ere.
- 192b) Bai; adibidez, titularrak 55 urte baino gehiago dituenean plangintzaldi bakoitzaren hasieran, betiere titularra ados badago.
- 192c) Bai; adibidez, titularrak lortutako ikasketa-maila unibertsitateko gradua edo lizentziatura denean.
- 192d) Bai; adibidez, desgaitasun fisiko edo psikikoak izanik, gaur egun helduen hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntzarako indarrean dauden programen bidez euskara ikastea eragotzen edo zailtzen badute.

193 Hizkuntza-tituluen baliozkotzeak direla eta:

- 193a) Administrazio ezberdinek emandako tituluak ezin dira parekatu.
- 193b) Administrazio ezberdinek emandako tituluak Hezkuntza Ministerioak parekatu zituen 2002an.
- 193c) Administrazio ezberdinek emandako tituluak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1, B2, C1 eta C2 mailekin parekatuta geratzen dira, eta elkarren balioakideak dira.
- 193d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

194 Zer da ELEBIDE?

- 194a) Eusko Jaurlaritzako Itzulpen Zerbitzua.
- 194b) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2008an abian jarri zuen Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua.
- 194c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak langile publikoei euskararen arloan prestakuntza emateko 2008an abian jarri zuen zerbitzua.
- 194d) Administrazio ezberdinek emandako tituluaren baliozkotzeak tramitatzeaz arduratzen den zerbitzua.

195 Bikain ziurtagiria dela eta:

- 195a) Bikain ziurtagiriak hiru maila ditu: goi-maila, tarteko maila eta oinarritzko maila.
- 195b) Bikain ziurtagiriak bi ponderazio desberdin ditu ebaluazioa egiteko orduan: bat administrazioentzat (Osakidetza barne) eta beste bat enplegatu publikoentzat.
- 195c) Ebaluatuari kanpo-ikuspegia eskaintzen dio, euskararen kudeaketari dagokionez: ebaluazio-txostena.
- 195d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

196 Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak direla eta:

- 196a) Helburua da euskara eta gaztelania benetan maila berean jartzea Administrazioan, formalki aitorten bera baitute; beraz, proposatzen den egitekoa da euskara benetan parekatzeko bidean aurrera egitea.
- 196b) Helburua da euskara eta gaztelania benetan maila berean jartzea Administrazioan; izan ere, nahiz eta inola ere ez izan aitorten formal bera, gutxienez ahalegina egin behar da euskara Administrazioetik kanpo gera ez dadin.
- 196c) Helburua da euskara eta gaztelania maila formal eta erreal berean kokatzea, Euskadiko eremu elebidunenetan gutxienez.
- 196d) Helburua da gaztelania euskarari gainjartzea Administrazioan.

197 «Berariazko hizkuntza-prestakuntza» izenekoa dela eta:

- 197a) Ez da garrantzitsua; hizkuntza-prestakuntza generikoa da garrantzitsuen.
- 197b) Helburua du irakaskuntza orokorretik laneko eguneroko errealitatera jauzi egiten laguntzea.
- 197c) Helburua du enplegatu publikoak dagokion hizkuntza-eskakizuna lortzea.
- 197d) Enplegatu publikoen hizkuntza-maila hobetu nahi du.

198 «Berariazko hizkuntza-prestakuntza» izenekoan, zenbait prozedura daude aurreikusita:

- 198a) Bai, bi prozedura: ikastaroak eta trebakuntza-saioak.
- 198b) Bai, bi prozedura: ikastaro luzeak eta ikastaro laburrak.
- 198c) Bai, hiru prozedura: masterrak, graduondoak eta ikastaroak.
- 198d) Bai, prozedura bat: ikastaroak.

199 Berariazko hizkuntza-prestakuntzaren barruko ikastaroak direla eta:

- 199a) Aurrez aurreko ikastaroak eta online ikastaroak daude.
- 199b) Aurrez aurreko ikastaroak, online ikastaroak eta akademietan eta unibertsitate-zentro espezializatuetan egiten diren ikastaroak daude.
- 199c) Funtsean, eskola magistralak, trebakuntza-saioak eta jardunaldiak garatu behar dira.
- 199d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

200 Zein arlo lantzen dira Eusko Jaurlaritzak berariazko hizkuntza-prestakuntzaren barruan proposatutako ikastaroetan?

- 200a) Ahozko adierazpena.
- 200b) Dokumentuak.
- 200c) Administrazio-hizkera.
- 200d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

201 Zein da euskal sektore publikoan hizkuntza-normalizazioaren prozesua sendotzeko tresnarik indartsuena?

- 201a) Bikain ziurtagiria.
- 201b) Euskararen erabilera normalizatzeko planak eta euskara erabiltzeko ekintza-programa orokorrak.
- 201c) ELEBIDE.
- 201d) Entitate bakoitzaren euskararen erabilera normalizatzeko planak.

202 Euskararen erabilera normalizatzeko planak:

- 202a) Urte bat irauten dute.
- 202b) Legegintzaldi bakoitzerako ezartzen dira, hau da, lau urte irauten dute.
- 202c) Bost urtekoak dira.
- 202d) Ez dute iraupen zehatzik; beharrezkotzat jotzen denean, indarrean dagoen plana ezabatu eta beste bat ezartzen da.

203 Azken urteotan, administrazioan euskararen normalizazioan aurrera egin dela esan daiteke?

- 203a) Bai; adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna nabarmen hobetu da.
- 203b) Bai, baina gaztelania da oraindik ere lan-hizkuntza nagusia.
- 203c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 203d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

204 Zein da gaur egun indarrean dagoen Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren helburua?

- 204a) Neurri sorta bat da, Administrazioan nola idatzi eta komunikatu behar den jakiteko, itzulpenetara jo gabe testu elebidunak nola sortu behar diren, motibaziora bideratutako saioen aurreikuspena eta euskarazko baliabide eta tresna informatikoen garapena eta erabilera bultzatzeko.
- 204b) Plangintzaldiaren amaierarako Eusko Jaurlaritza administrazio erabat elebiduna izatea, herritarren hizkuntza-eskubideak oso-osorik bermatzeaz gain, euskaraz eroso lan egitea ziurtatzen duena.
- 204c) Administrazioak euskararen inguruko kalitatearen kudeaketan ezartzen den balio erantsia har dezan saiatzea.
- 204d) Hizkuntza-eskakizun berriak sortzea eta derrigortasun-data orokorrak ezartzea.

205 VI. Plangintzaldiaren balorazio orokorrean ematen diren datuak nahiko baikorrak dira, baina badira hobetu beharreko arlo batzuk:

- 205a) Administrazioa oraindik ez da gai izan herritarren hizkuntza-eskubideak bete-betean bermatzeko, ez ahoz, ezta idatziz ere.
- 205b) Aplikazio informatikoen euskarazko aldaeren erabilera oso eskasa da.
- 205c) Langileentzako prestakuntzan ere euskara makal dago, ikastaro gehienak gaztelaniaz egiten dira.
- 205d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

206 Eusko Jaurlaritzaren barruan, sailen erabilera-planak aurrera eramateko ohiko antolamendu-egiturak daude?

- 206a) Ez, sail bakoitzak bere bitartekoekin modu autonomoan jarduten du.
- 206b) Bai; adibidez, Normalizazioaren Jarraipenerako Batzorde Sektoriala.
- 206c) Bai; adibidez, Euskaltzaindia.
- 206d) Bai, ELEBIDE eta Elkarkidea.

207 Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra dela eta:

- 207a) Jaurlaritza mailako jarraipen-organo gorena da, eta hizkuntza-normalizazioaren prozesu osoaren arduraduna.
- 207b) IVAP ez da batzorde horretako kide.
- 207c) Bi urtean behin biltzen da, gutxienez.
- 207d) Ez dago halako batzorderik.

208 Hizkuntza Normalizazio Teknikarien Batzordea:

- 208a) Izaera teknikoa duenez, ezin du etorkizunerako proposamenik aurkeztu.
- 208b) Eusko Jaurlaritza mailako batzorde teknikoa da, tokian tokiko esperientziak elkarren artean trukatzeko eta proiektu bateratuak bideratzeko balio duena.
- 208c) IVAP ez da batzorde horretako kide.
- 208d) Ez dago halako batzorderik.

9. gaia

209 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan, enplegatu publikoak zenbait kategoriatan sailkatzen dira, eta horietako bat hau da:

- 209a) Lan-kontratuko behin-behineko langileak.
- 209b) Bitarteko langileak.
- 209c) Behin-behineko funtzionarioak.
- 209d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

210 Karrerako funtzionarioen ezaugarriak dira:

- 210a) Administrazioarekin lotura iraunkorra dute.
- 210b) Administrazioarekin lotura dute, administrazio-egintza baten bidez («izendapena» esaten zaio).
- 210c) Administrazio-zuzenbidearen mende daude.
- 210d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

211 Bitarteko funtzionario bat egotea zirkunstantzia hauetakoren batek justifikatu behar du:

- 211a) Karrerako funtzionarioekin bete ezin diren plaza hutsak egotea.
- 211b) Plazen titularrak behin betiko ordezkatzeari.
- 211c) Aldi baterako programak gauzatzea, gehienez ere hiru hilabete iraungo dutenak.
- 211d) Zeregin-kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean; gehienez ere 3 urteko epe baterako izango da, 36 hileko tarte batean.

212 Nola lotzen dira lan-kontratuko langileak Administrazioarekin?

- 212a) Aldebakarreko administrazio-egintza baten bidez.
- 212b) Aldebiko jarduketa baten bidez; alegia, bi aldeek sinatutako lan-kontratuaren bidez.
- 212c) Aldebakarreko jarduketa batez bidez; alegia, lan-kontratuko langileak sinatutako lan-kontratuaren bidez.
- 212d) Aldebakarreko jarduketa baten bidez; alegia, lanpostuaz jabetzearen bidez.

213 Behin-behineko langileen ezaugarriak dira:

- 213a) Iraunkorrak izatea.
- 213b) Konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat berariaz kalifikatutako eginkizunak betetzea.
- 213c) Aldi baterako eginkizunak betetzea, urgentziak eta beharrak justifikatutako arrazoiak daudenean.
- 213d) Administrazioarekin duen lotura lan-kontratu bat sinatuz gauzatzen da.

214 Badago funtzionarioentzat gordetako lanposturik?

- 214a) Ez, hori berdintasun-printzipioaren aurka joatea litzateke.
- 214b) Ez, printzipio hori iraganari dagokio eta gaingiduta geratu da.
- 214c) Bai, hala aitortzen du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (11. art.).
- 214d) Bai; izan ere, nahitaez bete behar dituzte Administrazioako lanpostu guztiak.

215 Hauetatik, zein dira Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak aitortutako eskubide indibidualak (14. art.)?

- 215a) Karrerako funtzionarioaren izaerari dagokion mugiezintasunerako eskubidea.
- 215b) Karrera profesionalean aurrera egiteko eta barne-sustapena izateko eskubidea, betiere berdintasun-, merezimendu-, eta gaitasun-printzipio konstituzionalei jarraituz.
- 215c) Emandako zerbitzuari dagozkion ordainsariak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.
- 215d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

216 Barne-sustapen bertikala, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan aurreikusia, honetan datza:

- 216a) Gradu, kategoria, maila eta antzeko beste kontzeptu batzuetan aurrera egitea, lanpostuz aldatu beharrik izan gabe.
- 216b) Lanpostuen egituran gora egitea, lanpostuak betetzeko prozeduren bidez.
- 216c) Kidego batetik edo lanbide-sailkapeneko azpitaldeko eskala batetik (edo talde batekotik, baldin eta azpitalderik ez badu) goragoko beste batera igotzea.
- 216d) Azpitalde profesional bereko kidegoetara edo eskaletara iristea.

217 Jardunaren ebaluazioa dela eta:

- 217a) Ez da soilik enplegatu publikoen eskubidea; aldi berean, administrazio publikoen betebeharra ere bada.
- 217b) Helburua ez da jarduna baloratzea eta enplegatu publiko bakoitzaren jardunaren errendimendua edo emaitzak kontrolatzeko mekanismoak ezartzea.
- 217c) Enplegatu publikoak lortu beharreko helburuak eta xedeak ezartzeko prozedura da.
- 217d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ezabatu du.

218 Enplegatu publikoen negoziazio kolektiboa dela eta:

- 218a) Honela definitzen da: administrazio publikoko karrerako funtzionarioen lan-baldintzak eta gainerako lege-baldintzak negoziatzeko eginbeharra da.
- 218b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan (33. art.) zehazten dira funtzionario publikoen lan-baldintzen negoziazio kolektiboa arautzen duten printzipioak.
- 218c) Aurrera eta bururaino eramango da, nahiz eta aurrekontu-estalduraren printzipioa, publizitatearena eta gardentasunarena bete ez, bestela negoziazio kolektiborako eskubidea bera ondoriorik gabe gera baitaiteke.
- 218d) Espainiako Konstituzioak negoziazio kolektiboa debekatzen du funtzionario publikoen kasuan.

219 Negoziazio-mahaia dela eta:

- 219a) Negoziazio-mahai mota bakarra dago.
- 219b) Sindikatuen eta langileen ordezkariak soilik osatzen dute negoziazio-mahaia.
- 219c) Funtzionario publikoen lan-baldintzen negoziazio kolektiboaz arduratzen den organoa da.
- 219d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

220 Zein dira akordioen eta itunen arteko diferentziak eta berdintasunak, eraginkortasunaren aldetik?

- 220a) Akordioak zuzenean aplikatu daitezke, eta ez dago haiek ondoren berretsi beharrik.
- 220b) Itunak, zuzenean aplikatu daitezke, eta ez dago haiek ondoren berretsi beharrik.
- 220c) Akordioak eta itunak zuzenean aplikatu daitezke, eta ez dago haiek ondoren berretsi beharrik.
- 220d) Akordioak eta itunak eraginkorrak izan daitezen, Administrazioako organo eskudunak berretsi beharko ditu.

221 Zein dira funtzionario publikoen ordezkaritza-organo espezifikoak?

- 221a) Langileen ordezkariak edo delegatuak eta langileen batzordeak.
- 221b) Langileen ordezkariak edo delegatuak eta enpresa-batzordeak.
- 221c) Liberatutako funtzionarioak eta enpresa-batzordeak.
- 221d) Funtzionario publikoek ez dute ordezkaritza-organo espezifikorik.

222 Biltzeko eskubidea dela eta:

- 222a) Espainiako Konstituzioaren 21. artikuluan du oinarria.
- 222b) Enplegatu publikoen borondatea zuzenean adierazteko legez aurreikusitako tresna da.
- 222c) Enplegatu publiko guztiek —funtzionarioek zein lan-kontratukoek— duten eskubide indibiduala da, taldean baliatzekoa.
- 222d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

223 Telelana dela eta:

- 223a) Figura hori 2008an sartu zen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan, finantza-krisiaren ondorioz.
- 223b) Lanaldiaren modalitate bat da.
- 223c) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera eskatzen du.
- 223d) Enplegatu publikoak bere gain hartu behar du urruneko zerbitzua emateko beharrezkoak diren ekipak eskuratzeko eta mantentzeko obligazioa.

224 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (48. art.) bizilekua aldatu gabe egoitza aldatzeagatik baimena ezartzen du.

- 224a) Bai, eta egun batekoa da.
- 224b) Bai, eta bi egunekoa da.
- 224c) Bai, eta hiru egunekoa da.
- 224d) Ez, baimen bakarra aurreikusten du: bizilekua eta egoitza, biak batera aldatzeko baimena.

225 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (48. art.) azterketetara eta gainerako gaitasun-probetara joateko baimena ezartzen du.

- 225a) Bai, eta azterketa-egunerako eta bezperarako da, hau da, azterketa edo proba bakoitzeko bi egun hartzen ditu.
- 225b) Bai, eta azterketa eta proba horiek egiten diren egunak hartzen ditu.
- 225c) Bai, baina baimen horrek zentro ofizialetan eta akademietan ikasle gisa egin beharreko azterketa partzialak eta praktikak ere hartzen ditu.
- 225d) Ez, baimen bakarra aurreikusten du: ikasketa ofizialak egiteagatik lortutako titulu ofiziala jasotzeko baimena.

226 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (48. art.) ezkontzagatiko baimena ezartzen du.

- 226a) Bai, eta astebetekoa da.
- 226b) Bai, eta bi asteak da.
- 226c) Bai, eta hamabost egunekoa da.
- 226d) Bai, eta adierazten du dibortzioa gertatuz gero ere baimen bera izateko eskubidea dagoela.

227 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (49. art.) beste zenbait baimen ezartzen ditu: lan-arloko eta norberaren eta familiaren bizimoduak elkarri egokitzeko baimenak, genero-indarkeriagatikoak, eta terrorismoaren biktimentzako baimenak.

- 227a) Bai, besteak beste minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten seme-alaba adingabeak zaintzeagatiko baimena.
- 227b) Bai, besteak beste norberaren gauzetarako baimena, urtean sei egun hartzen dituen.
- 227c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 227d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

228 Zenbat opor-egun ezartzen ditu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (50. art.) egutegiko urte bakoitzean?

- 228a) Ordaindutako 22 egun baliodun.
- 228b) Ordaindutako 30 egun baliodun.
- 228c) Ordaindutako 30 egun.
- 228d) Ordaindutako hilabetea.

229 Zer dio Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak oporrei buruz?

- 229a) Urteko oporraldi ordainduaren ordez diru-kopuru bat eman ahal izango da.
- 229b) Funtzionario publikoen zerbitzu-harremana amaitzen denean, opor gehiago eskatzeko eskubidea izango dute; bereziki, erretiroa edo ezintasuna gertatzen denean.
- 229c) Amatasun-baimenak, aldi baterako ezintasunak eta antzeko egoerek oporrak urte naturalaren barruan hartzea eragozten badute, oporrak egutegiko hurrengo bost urteetan hartu ahal izango dira.
- 229d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

230 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (53. art.), hauetatik zein da enplegatu publikoaren printzipio etiko bat?

- 230a) Enplegatu publikoek Konstituzioa eta antolamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.
- 230b) Interes pertsonala duten gaietan abstenitu egingo dira.
- 230c) Enplegatu publikoek ez dute pertsona fisiko nahiz entitate pribatuengandik mesede-traturik onartuko, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- 230d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

231 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (54. art.), hauetatik zein da enplegatu publikoaren jokabide-printzipio bat?

- 231a) Arretaz eta begirunez tratatuko dituzte herritarrak, beren nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak ere.
- 231b) Eguneratuta izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.
- 231c) Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko arauak beteko dituzte.
- 231d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

232 Zer dio Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak funtzionarioen ordainsariei buruz?

- 232a) Bi kontzepturen inguruan antolatzen dira: ordainsari arruntak eta aparteko ordainsariak.
- 232b) Soldata, lanbide-sailkapeneko talde bakoitzari esleitura, oinarrizko ordainsarietako bat da.
- 232c) Hirurtekoak desagertu egin dira funtzionario guztientzat.
- 232d) Aparteko ordainsaria oinarrizko ordainsari bat da, eta diru-zenbatekoa hiru urtean behin finkatu daiteke.

233 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera (94. art.), zein dira zehapen-araubideak errespetatu behar dituen printzipioak?

- 233a) Erruduntasun-presuntzioaren printzipioa.
- 233b) Errugabetasun-printzipioa.
- 233c) Proportzionaltasun-printzipioa, arau-hausteak eta zehapenak sailkatzerakoan nahiz aplikatzerakoan erabili beharrekoa.
- 233d) Falten atzeraeraginik ezaren printzipioa eta zehapenen atzeraeraginezko printzipioa.

234 Zer dio Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren diziiplina-araubideak?

- 234a) Laneko jazarpena falta oso astuna da.
- 234b) Greba-egoeretan ezinbesteko diren zerbitzuak betetzeko obligazioa ez betetzea falta oso arina da.
- 234c) Faltza oso astunek ez dute inoiz ekarriko funtzionarioak zerbitzutik kentzea.
- 234d) Ohartarazpena ez da lege-testu horretan aurreikusitako zehapena.

10. gaia

235 1978ko Espainiako Konstituzioa eta datuen babesaren direla eta:

- 235a) Konstituzioak 18.4 artikuluan bermatzen du datuen babesa.
- 235b) Konstituzioak testu osoan zehar bermatzen du datuen babesa.
- 235c) Datuen babesaren bermea politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidaria da.
- 235d) Erantzun guztiak okerrak dira.

236 Euskadin, datuak babesteko araudia lege-arau hauetan dago jasota:

- 236a) 1978ko Espainiako Konstituzioan eta hura garatzen duen berariazko legeria organikoan.
- 236b) 1978ko Espainiako Konstituzioan, gai horri buruzko Europako erregelamenduan eta hura garatzen duen berariazko legeria organikoan.
- 236c) 1978ko Espainiako Konstituzioan, gai horri buruzko Europako erregelamenduan, hura garatzen duen berariazko legeria organikoan eta gai horren gaineko araudi autonomikoan.
- 236d) Erantzun guztiak okerrak dira.

237 Zein da, Espainian, datuak babesteko eskubidearen iturria?

- 237a) Konstituzioa.
- 237b) Jurisprudentzia.
- 237c) Legea.
- 237d) Erantzun guztiak okerrak dira.

238 Datu pertsonalak direla eta:

- 238a) Datu pertsonala da pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informazio guztia.
- 238b) Babestu beharreko errealitatea da.
- 238c) Modu batean baino gehiagotan jaso daiteke.
- 238d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

239 Ekintza hauetatik, zein ez da sartzen datu pertsonalen tratamenduaren barruan?

- 239a) Bilketa.
- 239b) Erregistratzea.
- 239c) Babestea.
- 239d) Egituratzea.

240 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren arabera, nor dira datuen tratamenduaren arduradun edo datuen babesaren arduradun?

- 240a) Pertsona fisikoak eta juridikoak.
- 240b) Agintaritza publikoak.
- 240c) Zerbitzuak edo beste organismo batzuk.
- 240d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

241 Nor izan daiteke datu pertsonalen tratamenduaren edo babesaren eragilea?

- 241a) Pertsona fisikoak eta juridikoak.
- 241b) Agintaritza publikoak.
- 241c) Zerbitzuak edo beste organismo batzuk.
- 241d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

242 Ezaugarri hauetatik, zein ez dator bat datu biometrikoen ezaugarriekin?

- 242a) Unibertsalak dira.
- 242b) Aldi baterako dira.
- 242c) Bakarrak dira.
- 242d) Iraunkorrak dira.

243 Datu hauetatik, zein dira osasunari buruzkoak?

- 243a) Osasun fisikoari buruzko datuak.
- 243b) Osasun mentalari buruzko datuak.
- 243c) Osasun-arretako zerbitzuak ematea barne hartzen duten datuak.
- 243d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

244 Aukeratu erantzun okerra. Datuen babeserako tratamendua zilegi izango da baldintza hauetakoren bat betetzen denean:

- 244a) Interesdunak adostasuna adierazi badu.
- 244b) Tratamendua beharrezkoa bada kontratu bat betearazteko.
- 244c) Fede onez egiten bada.
- 244d) Tratamendua beharrezkoa bada betebeharrak bat konplitzeko.

245 Leialtasunaren printzipioa:

- 245a) Printzipio etikoa da.
- 245b) Printzipio juridikoa da.
- 245c) Printzipio etikoa eta juridikoa da.
- 245d) Printzipio konstituzionala da.

246 Gardentasuna aipatzen dugunean, zertaz ari gara?

- 246a) Informazioaz.
- 246b) Datuez.
- 246c) Printzipioez.
- 246d) Erantzun guztiak okerrak dira.

247 Helburua mugatzearen printzipioari jarraituz, datu pertsonalak xede hauekin bilduko dira:

- 247a) Xede zehatzak.
- 247b) Xede esplizituak.
- 247c) Xede legítimoak.
- 247d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

248 Zein artikulutan dago jasota datuak minimizatzearen printzipioa?

- 248a) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 c) artikuluan.
- 248b) Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5.1 c) artikuluan.
- 248c) Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5.1 d) artikuluan.
- 248d) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 d) artikuluan.

249 Zein artikulutan dago jasota datuen zehaztasunaren printzipioa?

- 249a) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 c) artikuluan.
- 249b) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 d) artikuluan.
- 249c) Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5.1 c) artikuluan.
- 249d) Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5.1 d) artikuluan.

250 Zein artikulutan dago jasota kontserbazio-epea mugatzearen printzipioa?

- 250a) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 c) artikuluan.
- 250b) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 d) artikuluan.
- 250c) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 e) artikuluan.
- 250d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

251 Datu pertsonalak ez dira gorde behar:

- 251a) Lortu nahi den helburua betetzeko behar den denbora baino gehiago.
- 251b) Betiko.
- 251c) Denbora mugatu baterako.
- 251d) Erantzun guztiak okerrak dira.

252 Zertarako gorde daitezke datuak denbora luzeagoan?

- 252a) Interes publikoaren izenean artxibatzeko.
- 252b) Estatistikak egiteko.
- 252c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 252d) Datuek informazio garrantzitsurik ez dutenean.

253 Aukeratu erantzun zuzena. Zein artikulutan dago jasota osotasun eta konfidentzialtasunaren printzipioa?

- 253a) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 c) artikuluan.
- 253b) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 d) artikuluan.
- 253c) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 e) artikuluan.
- 253d) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 f) artikuluan.

254 Osotasun eta konfidentzialtasunaren printzipioaren arabera, zein babes mota hartu behar du barnean behar bezalako datuen segurtasunak?

- 254a) Baimenik gabeko edo legez kontrako tratamenduaren aurkako babesa.
- 254b) Galtzearen aurkako babesa.
- 254c) Ustekabeen suntsitu edo kaltetzearen aurkako babesa.
- 254d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

255 Datu pertsonalak seudonimizatzea da atributu jakin batzuen orde bestea hauek erabiltzea:

- 255a) Pseudonimoak.
- 255b) Kodeak.
- 255c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 255d) Izengoitiak.

256 Datu hauetatik, zein sartzen dira datuen kategoria berezietan?

- 256a) Jatorri etnikoa eta arraza.
- 256b) Datu biometrikoak.
- 256c) Bizimodu sexualari buruzko datuak.
- 256d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

257 Pertsona ukituari eman beharreko oinarritzko informazioak hauek jaso behar ditu:

- 257a) Arduradunaren identitatea.
- 257b) Eragilearen identitatea.
- 257c) Tratamenduaren helburua.
- 257d) Aurreko a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

258 Eskubide hauetatik, zein ez da berariaz arautzen Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean?

- 258a) Irispide-eskubidea.
- 258b) Datuak zuzentzeko eskubidea.
- 258c) Datuak ezabatzeko eskubidea.
- 258d) Datuak ezerezteko eskubidea.

259 Datuen eramangarritasun-eskubidea aplikatu ahal izateko, tratamenduak izan behar du:

- 259a) Automatizatua, eta tratamenduaren oinarri juridikoa adostasuna edo kontratua da.
- 259b) Automatizatugabea, eta tratamenduaren oinarri juridikoa adostasuna edo kontratua da.
- 259c) Adostua eta informatua.
- 259d) Erantzun guztiak okerrak dira.

260 Eskubide hauetatik, zein kalifika daiteke eskubide digital gisa?

- 260a) Ohorerako eskubidea sare sozialetan.
- 260b) Deskonexio digitalerako eskubidea lan-eremuan.
- 260c) Intimitaterako eskubidea.
- 260d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

11. gaia

261 Lege hauetatik, zein jotzen da langileen segurtasuna eta osasuna babesteko oinarritzko zutabetzat?

- 261a) 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa.
- 261b) Espainiako Konstituzioa.
- 261c) 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 261d) 89/391/EEE Zuzentaraua, 1989ko ekainaren 12koa, Langileen segurtasuna eta osasuna lantokian hobetzeko neurriak aplikatzeari buruzkoa.

262 31/1995 Legean eta haren erregelamendu-arauetan jasotako eskubideak direla eta:

- 262a) Ezin dira inola ere aldatu hitzarmen kolektibo bidez.
- 262b) Beti aldatu daitezke hitzarmen kolektibo bidez.
- 262c) Hitzarmen kolektibo bidez hobetu eta garatu daitezke.
- 262d) Langile bakoitzak bere enpresaburuarekin negoziatu ondoren baino ezin dira aldatu.

263 Nori ez zaio aplikatuko 31/1995 Legea?

- 263a) Kooperatibetako bazkide-langileei.
- 263b) Langile autonomoei.
- 263c) Enplegatu publikoei.
- 263d) Indar Armatuetakoko eta Guardia Zibileko kideei.

264 31/1995 Legearen ondorioetarako, zer hartzen da enplegatuaren kategoria espezifikotzat?

- 264a) Urruneko lana egiten duten langileak.
- 264b) Lan-harreman bereziak dituzten langileak.
- 264c) Meatzaritzako langileak.
- 264d) 55 urtetik gorako langileak.

265 Kontrata eta azpikontraten kasuan, baldin eta langileak enpresa nagusiaren jardueretan aritzen badira enpresaren beraren instalazioetan:

- 265a) Enpresa nagusiak zaindu beharko du kontrata eta azpikontrata horiek prebentzio-araudia betetzen dutela.
- 265b) Kontrataturako eta azpikontrataturako enpresek, eta beste inork ez, zaindu beharko dute beren langileei dagokienez prebentzio-araudia betetzen dela.
- 265c) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari dagokio prebentzio-araudia zaintzea.
- 265d) Enpresa nagusiko prebentzio-delegatuak, eta beste inor ez, izango dira prebentzio-araudia betetzen dela zaintzeko ardura izango dutenak.

266 Enpresaburuaren babes eraginkorreko eginbeharra da, besteak beste:

- 266a) Enpresaren prebentzio-plana egitea.
- 266b) Enpresako prebentzio-plana eta lanpostuen arriskuen ebaluazioak egitea.
- 266c) Enpresa espezializatu bat kontratatzea, langileen segurtasuna eta osasuna zaintzeko.
- 266d) Langileei lehen laguntzako ikastaroak eskaintzea.

267 Zer esan nahi du lan-arriskuen prebentzioaren arloko babesak dinamikoa izan behar duela?

- 267a) Lan-jardueraren aldaketetara egokitu behar dela.
- 267b) Lan-jardueraren aldaketetara egokitu behar dela, bai eta lan-jarduerak egiten dituenaren baldintza pertsonalen aldaketetara ere.
- 267c) Arau-aldaketetara azkar egokitu behar dela.
- 267d) Negoziazio kolektiboaren esku utzi behar dela hura zehaztea eta aplikatzeko modua.

268 Noiz egin behar du enpresaburuak saihestezinak diren arriskuen hasierako ebaluazioa?

- 268a) Beti.
- 268b) Egokitzen jotzen duenean.
- 268c) Lan Agintaritzak eskatzen dionean.
- 268d) Inoiz ere ez.

269 Ingurune faktoreek lanean duten eragina dela eta:

- 269a) Beti hartu behar da kontuan, prebentzioa planifikatzean.
- 269b) Gai hori prebentzio-jardueratik kanpo geratzen da.
- 269c) Arriskutsutzat jotzen diren industrietan bakarrik hartu behar da kontuan.
- 269d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

270 Lan-ekipamendu batek arrisku espezifiko bat eragin badiezaioke hura darabilen langileari segurtasunaren edo osasunaren aldetik:

- 270a) Debekatu egingo da enpresan erabiltzea.
- 270b) Haren orde, arrisku gutxiago duen edo arriskurik ez duen beste ekipamendu bat jarriko da.
- 270c) Hari buruzko azterlan bat egingo da, haren egokitasuna baloratzeko.
- 270d) Enpresak beharrezko neurriak hartuko ditu ekipamendu hori erabiltzeko ardura dutenek bakarrik erabil dezaten, eta ekipamendu hori erabiltzeko beharrezko prestakuntza espezifiko emango die.

271 Erantzun hauetatik, zein da zuzena?

- 271a) Norbera babesteko ekipamenduak beti gailendu behar dira taldea babesteko baliabide teknikoek gainetik.
- 271b) Taldea babesteko baliabide teknikoak norberarenekin aurretik jarriko dira.
- 271c) Biak aldi berean aplikatu behar dira.
- 271d) Enpresaburuak egoki deritzonean soilik jarriko dira norbera babesteko ekipamenduak babes kolektiboko baliabide teknikoek aurretik.

272 Zertan oinarritzen da informazioaren printzipioa?

- 272a) Langileei kontsulta egin behar zaie prebentzio-neurriak hartzeari buruz.
- 272b) Lan-prozesu bakoitzean instruktore bat izendatu behar da.
- 272c) Prebentzio-jarduera zuzenean langilearengana bideratu behar da.
- 272d) Langileek zer arrisku dituzten jakin behar dute.

273 Zer dakar prestakuntzaren printzipioak?

- 273a) Enpresaburuak prebentzioari buruzko prestakuntza teoriko eta praktikoa nahikoa eta egokia eskaini behar die bere langile guztiei, bai kontratatzen dituen unean, bai langileek betetzen dituzten eginkizunetan aldaketak daudenean, bai eta teknologia berriak ezartzen direnean edo lan-ekipamenduetan aldaketak daudenean ere.
- 273b) Enpresaburuak aldi baterako kontratatutako langileei bakarrik eskaini behar die prebentzioari buruzko prestakuntza teoriko eta praktikoa nahikoa eta egokia, bai kontratatzen dituen unean, bai langileek betetzen dituzten eginkizunetan aldaketak daudenean, bai eta teknologia berriak ezartzen direnean edo lan-ekipamenduetan aldaketak daudenean ere.
- 273c) Enpresaburuak prebentzioari buruzko prestakuntza teoriko nahikoa eta egokia eskaini behar die bere langile guztiei, bai kontratatzen dituen unean, bai langileek betetzen dituzten eginkizunetan aldaketak daudenean, bai eta teknologia berriak ezartzen direnean edo lan-ekipamenduetan aldaketak daudenean ere.
- 273d) Enpresaburuak prebentzioari buruz egokitatzat jotzen duen prestakuntza eskaini behar die bere langileei, beharrezkotzat jotzen duenean.

274 Noiz eman behar da prestakuntza?

- 274a) Beti lanaldiaren barruan.
- 274b) Beti lanalditik kanpo.
- 274c) Ahal den guztietan, lanaldiaren barruan.
- 274d) Enpresaburuak egokitatzat jotzen duenean.

275 Larrialdien arloa dela eta:

- 275a) Enpresaburuak kanpoko prebentzio-zerbitzu bat kontratatu behar du, lehen laguntzari, suteen aurkako borrokari eta langileak ebakuatzeari dagokienez beharrezko neurriak hartzeaz arduratu dadin.
- 275b) Enpresaburuak larrialdien gainean duen eginbeharra betetzen du langileen eskura jarritz lehen laguntzen arloan eta suteen aurkako borrokaren eta langileen ebakuazioaren arloan beharrezkoak diren neurriei buruzko informazioa.
- 275c) Enpresaburuak langile jakin batzuk izendatu behar ditu, lehen laguntzari, suteen aurkako borrokari eta langileak ebakuatzeari dagokienez beharrezko neurriak hartzeaz arduratu daitezen.
- 275d) Lan-agintaritza eskudunak langile jakin batzuk izendatu behar ditu, lehen laguntzari, suteen aurkako borrokari eta langileak ebakuatzeari dagokienez beharrezko neurriak hartzeaz arduratu daitezen.

276 Arrisku larria eta berehalakoa dagoenean:

- 276a) Enpresaburuak erabaki edo baimendu behar ditu langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak.
- 276b) Enpresa-batzordeak erabaki behar du, aho batez, arrisku horren eraginpeko langileen jarduera geldiaraztea.
- 276c) Enpresa-batzordeak erabaki behar du, kideen gehiengoz, arrisku horren eraginpeko langileen jarduera geldiaraztea.

276d) Langilea ezin bada harremanetan jarri mailaz goragoko arduradunarekin, bere segurtasunerako, beste langile batzuen segurtasunerako edo hirugarren batzuen segurtasunerako arrisku horren berri emateko, lantokia utzi ahal izango du.

277 Noren kontura dira laneko arriskuarekiko esposizioa saihesteko edo gutxitzeko beharrezkoak diren banakako babes-ekipamenduak?

- 277a) Enpresaburuaren kontura.
- 277b) Langileen kontura.
- 277c) Enpresaburuaren eta langileen kontura.
- 277d) Administrazioaren kontura.

278 Langileen osasunaren zaintza dela eta:

- 278a) Borondatezkoa da langileentzat.
- 278b) Nahitaezkoa da langileentzat.
- 278c) Nahitaezkoa da baldin eta azterketa medikoa beharrezkoa bada lan-baldintzek langileen osasunean dituzten ondorioak ebaluatzen.
- 278d) Nahitaezkoa da kontratatzen unean, eta borondatezkoa kontrataziotik aurrera.

279 Nork eskura dezake langileen informazio mediko pertsonala?

- 279a) Enpresaburuak.
- 279b) Zerbitzu medikoak eta osasun-agintariak.
- 279c) Osasun-agintariak.
- 279d) Enpresaburuak, zerbitzu medikoak eta osasun-agintariak.

280 Enpresaburuak lan-agintaritzaren esku jartzeko prestatu eta gorde behar dituen agirien artean, ez daude honako hauek:

- 280a) Laneko arriskuen prebentzio-plana.
- 280b) Langileek prebentzio-arloan egindako ez-betetzeak.
- 280c) Langileari lanegun bat baino gehiagoz lan egiteko ezgaitasuna eragin dioten lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen zerrenda.
- 280d) Egindako arriskuen ebaluazioak.

281 Lantoki berean bi enpresatako edo gehiagoko langileak aritzen direnean:

- 281a) Enpresa horiek laguntza eman beharko dute laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia aplikatzen.
- 281b) Langile gehien dituen enpresak arduratu beharko du lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dela zaintzeaz.
- 281c) Enpresa bakoitzak bere langileen gaineko erantzukizuna izango du.
- 281d) Jarduera horiek egiten diren lantokiko enpresa titularrak izango du erantzukizuna.

282 Kolektibo hauetatik, zein ez da jotzen arrisku jakin batzuekiko bereziki sentibera den enplegatutzat?

- 282a) Desgaitasunen bat duten langileak.
- 282b) Haurdun dauden emakumeak.
- 282c) Adingabeak.
- 282d) Urruneko lana egiten duten langileak.

283 Haurdun dagoen emakume baten arriskuen ebaluazioari buruzko azterketak erakusten badu haren segurtasun eta osasunerako arriskua dagoela edo eragina izan dezakeela haurdunaldian, edoskitzaroan edo jaiotzeko diren haurrengan:

- 283a) Lan-kontratua eten egin beharko zaio, haurdunaldiko arriskua dela-eta.
- 283b) Enpresaburuak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, arrisku horren eraginpean egotea saihesteko.
- 283c) Enpresaburuak lanpostua edo haren eginkizunak aldatu beharko ditu, emakumearen egoerarekin bateragarriak izan daitezen.
- 283d) Lan-kontratua haurdunaldiko arriskuagatik eten ahal izango da, bakarrik baldin eta lanposturako egokitzapenik egin ezin bada edo lanpostuan edo haren eginkizunetan aldaketarik egin ezin bada.

284 Aldi baterako lan-harremanak dituzten langileak eta aldi baterako laneko enpresek kontratatutakoak:

- 284a) Gizarte-babeseko araudiak ez ditu babesten.
- 284b) Gainerako langileek baino babes handiagoa dute.
- 284c) Gainerako langileek duten babes-maila bera izan behar dute.
- 284d) Sektore jakin batzuetan baino ez daude babestuta.

285 Langileak eta haien segurtasuna eta osasuna direla eta:

- 285a) Langileek ez dute inolako betebeharririk arriskuen prebentzioaren arloan, enpresaburuari soilik dagokion gaia baita.
- 285b) Beren laneko segurtasuna eta osasuna zaindu behar dituzte, enpresan hartu diren prebentzio-neurriak betetzeko.
- 285c) Beren segurtasuna eta osasuna zaindu behar dituzte lanean, bai eta beren jarduera profesionalak uki ditzakeen pertsonena ere, enpresan hartu diren prebentzio-neurriak betetzeko.
- 285d) Gainerako lankideen segurtasuna eta osasuna zaindu behar dituzte lanean, bai eta haien jarduera profesionalak uki ditzakeen pertsonena ere, enpresan hartu diren prebentzio-neurriak betetzeko.

286 Enpresak bere gain hartu beharreko prebentzio-modalitate gisa:

- 286a) Posible da prebentzio-zerbitzu propio bat sortzea, edo kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin hitzarmen bat egitea.
- 286b) Prebentzio-zerbitzu propio bat baino ez da posible.
- 286c) Kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin hitzarmena egitea baino ez da posible.
- 286d) Laneko arriskuen prebentzioaren arloan prestakuntza egokia duten langileak izendatzea baino ez da posible.

12. gaia

287 Non arautzen da bistaratzeko pantailen eraginpean dauden langileen laneko arriskuen prebentzioa?

- 287a) 488/1997 Errege Dekretuan.
- 287b) 31/1995 Legean.
- 287c) 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuan.
- 287d) 39/1997 Errege Dekretuan.

288 Arrisku hauetatik, zein ez dago lotuta bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduak erabiltzearekin?

- 288a) Muskulu- eta eskeleto-nahasmenduak.
- 288b) Deskarga elektrikoak.
- 288c) Ikusmen-arazoak.
- 288d) Buru-nekea.

289 Langile hauek ezin dira bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduen erabiltzaile izan:

- 289a) Egunean benetako 2 orduz edo astean benetako 10 orduz baino gutxiagoz bistaratze-pantailarekin lan egiten duten langile guztiak.
- 289b) Egunean benetako 3 orduz edo astean benetako 12 orduz baino gutxiagoz bistaratze-pantailarekin lan egiten duten langile guztiak.
- 289c) Egunean benetako 4 orduz edo astean benetako 15 orduz baino gutxiagoz bistaratze-pantailarekin lan egiten duten langile guztiak.
- 289d) Egunean benetako 1 orduz edo astean benetako 8 orduz baino gutxiagoz bistaratze-pantailarekin lan egiten duten langile guztiak.

290 Nork arduratu behar du bistaratzeko pantailak dituzten ekipamenduen erabiltzaileek izan ditzaketen arriskuak ebaluatzeaz?

- 290a) Langileak bakarrik.
- 290b) Bai enpresaburuak, bai langileak.
- 290c) Enpresaburuak bakarrik.
- 290d) Enpresako prebentzio-zerbitzuak.

- 291 Zein arrisku-faktore hartu behar ditu kontuan arriskuen ebaluazioak, bistaratze-pantailekin lan egitean?**
- 291a) Zereginaren eskakizunetik eratorritakoak.
 - 291b) Lanpostuaren berezko ezaugarrietatik eratorritakoak.
 - 291c) Erabiltzailearen beraren ikusmenaren ezaugarrietatik eratorritakoak.
 - 291d) Aurreko guztiak.
- 292 Bistaratzeko pantailak behar dituzten lanen arriskuak ebaluatzeko aukeren artean, noiz egiten da arriskuon detekzio goiztiarra?**
- 292a) Lanpostua osatzen duten elementuen diseinu ergonomikoa egiaztatzean.
 - 292b) Buruko, ikusmeneko eta muskulueta kargak baloratzean, zenbait elementuren ebaluazioen bidez: zereginaren eskakizunak, langilearen ezaugarri pertsonalak, landenbora, nekearen sintomak eta abar.
 - 292c) Arrisku-egoerak detektatzean, osasunaren aldizkako zaintzari esker.
 - 292d) Aurreko kasu guztietan.
- 293 Bistaratzeko pantailak behar dituzten lanen arriskuak ebaluatzean, zeri egin behar zaio jaramon?**
- 293a) Enpresaburuak egindako ebaluazio-testa baino ez da bete behar.
 - 293b) LSHIN Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren gidan ezarritakoa bete behar da.
 - 293c) Prebentzioko ordezkariak gomendatzen dutena bete behar da.
 - 293d) Langile erabiltzaileek berek emandako informazioa ebaluazioaren funtsezko zati bat da.
- 294 Bistaratzeko pantailak behar dituen lanpostu batean aldaketa esanguratsuak egin badira:**
- 294a) Arriskuen hasierako ebaluazioaren ondorioz hartutako neurriei eutsi behar zaie.
 - 294b) Hasieran egindako arriskuen ebaluazioa berrikusi egin behar da.
 - 294c) Enpresaburuak erabakiko du arriskuen beste ebaluazio bat egin behar den ala ez.
 - 294d) Arriskuen beste ebaluazio bat egingo da, eragindako langileak hala eskatzen badu.
- 295 Bistaratzeko pantailak erabiltzea eskatzen duten lanetan, etenaldiak egitea gomendatzen da. Zenbatean behin?**
- 295a) 10 minutuz, gutxienez, arreta handia eskatzen duten zereginetan egindako lan-ordu bakoitzeko.
 - 295b) 5 minututik 10 minutura, 90 minutuan behin.
 - 295c) 12 minutuz, gutxienez, arreta handia eskatzen duten zereginetan egindako lan-ordu bakoitzeko.
 - 295d) 15 minutuz, gutxienez, arreta handia eskatzen duten zereginetan egindako lan-ordu bakoitzeko.
- 296 Noiz egin behar dira azterketa medikoak, bistaratze pantailak erabiltzea eskatzen duten lanetan?**
- 296a) Bistaratzeko pantailekin lan egiten hasi aurretik.
 - 296b) Aldizka.
 - 296c) Langileak eskatzen duenean.
 - 296d) Aurreko hiru kasuetan.

297 Nork egin behar du bistaratzeko pantailekin lan egiten duten langileen azterketa oftalmologikoa?

- 297a) Osakidetzako oftalmologo batek, nahi eta nahi ez.
- 297b) Kasuan kasuko mutualitateko oftalmologo batek, nahi eta nahi ez.
- 297c) Enpresako medikuak egin dezake.
- 297d) Langileak aukeratzen duen oftalmologoak, nahi eta nahi ez.

298 Bistaratze-pantailekin lan egiten duten 40 urtetik gorako langileen ikusmena dela eta:

- 298a) Nahitaez bidali behar dira oftalmologoarengana.
- 298b) Nahitaez bidali behar dira oftalmologoarengana, eragindako langileek eskatzen dutenean.
- 298c) Lanak kontzentrazio handia eskatzen duenean bakarrik da nahitaezkoa oftalmologoarengana bidaltzea.
- 298d) Komeni da oftalmologoarengana bidaltzea.

299 Lokomozio-aparatuaren patologia, bistaratzeko pantailak behar dituzten lanetan:

- 299a) Ez du arretarik behar.
- 299b) Arreta behar du, langilearen ezaugarri fisikoen arabera.
- 299c) Arreta berezia eskaini behar zaien gaixotasunen bigarren multzoa da.
- 299d) Arreta behar du, langileak eskatzen duenean.

300 Azterketa osteomuskularra, bistaratzeko pantailak behar dituzten lanetan:

- 300a) Aldiro-aldiri egingo da, azterketaren ardura duten medikuen iritziz dagoen arrisku-mailaren arabera aldizkakotasunarekin.
- 300b) Langileak zerbitzuak ematen hasi aurretik egingo da.
- 300c) Urtean behin egingo da.
- 300d) Langileak eskatzen duenean egingo da.

301 Bistaratzeko pantailak behar dituzten lanetan, nola baloratuko da buruko nekea?

- 301a) Test psikotekniko baten bidez.
- 301b) Inkesta baten bidez.
- 301c) Elkarrizketa baten bidez.
- 301d) Inkesta bat eta elkarrizketa baten bidez.

302 Bistaratze-pantailekin lan egiten duten langileek eguneroko alerazioak izaten dituzte. Zein portzentajetan?

- 302a) % 10etik % 40ra.
- 302b) % 10etik % 45era.
- 302c) % 10etik % 30era.
- 302d) % 10etik % 60ra.

303 Norengan agertzen dira maizago alerazio fisikoak edo muskularrak?

- 303a) Maizago agertzen dira gizonen artean.
- 303b) Maizago agertzen dira emakumeen artean.
- 303c) Gizonetan eta emakumeetan berdin agertzen dira, bereizi gabe.
- 303d) 45 urtetik gorako gizonetan eta emakumeetan berdin agertzen dira, bereizi gabe.

304 Bistaratzeko pantailak erabiltzea eskatzen duten lanetan:

- 304a) Norberaren lanarekin lotzen diren larruazaleko alerazio-kasuak deskribatu dira.
- 304b) Ez da deskribatu larruazaleko alerazio kasurik.
- 304c) Larruazaleko alerazio kasuak deskribatu dira, baina ez dute zer ikusirik lanarekin.
- 304d) Laneko estres-egoeretan baino ez dira deskribatu larruazaleko alerazioak.

- 305 Zergatik izan daitezke memoria-nahasmenduak eta buru-kontzentrazioarako zailtasuna, bistaratze-pantailekin lan egitean?**
- 305a) Lanaren zailtasunagatik.
 - 305b) Lanak eskatzen duen kontzentrazioagatik.
 - 305c) Lanak eragindako nekeagatik.
 - 305d) Laneko monotonia eta sinpletasunagatik.
- 306 Bistaratze-pantailekin lan egitean, ikusmen-alterazioak agertzeko faktore izan daiteke:**
- 306a) Lanpostuaren antolamendua.
 - 306b) Lanpostuaren antolamendua eta bi distantzia ezberdin ezarri beharra: begia-pantaila eta begia-testua.
 - 306c) Lanpostuaren antolamendua eta hiru distantzia berdin ezarri beharra: begia-pantaila, begia-teklatura eta begia-testua.
 - 306d) Lanpostuaren antolamendua eta hiru distantzia ezberdin ezarri beharra: begia-pantaila, begia-teklatura eta begia-testua.
- 307 Faktore hauetatik, zeinek ez du zer ikusirik neke fisiko edo muskularrarekin, bistaratze-pantailekin lan egiten denean?**
- 307a) Jarrera okerrak pantailaren aurrean.
 - 307b) Lanpostuaren baldintza ergonomikoen araberako faktoreek.
 - 307c) Estresak.
 - 307d) Lanaren antolamendu okerraren mende dauden faktoreek.
- 308 Bistaratzeko pantailekin lan egiten denean, ohiko zereginetan, zenbateko tartea utziko da, gutxienez, pantaila horietara?**
- 308a) 500 mm.
 - 308b) 550 mm.
 - 308c) 400 mm.
 - 308d) 450 mm.
- 309 Bistaratzeko pantailekin lan egiten denean, zenbateko azalera izango du lan-mahaiak?**
- 309a) 90 cm bider 120 cm.
 - 309b) 80 cm bider 120 cm.
 - 309c) 90 cm bider 140 cm.
 - 309d) 80 cm bider 130 cm.
- 310 Bistaratzeko pantailekin lan egiten denean, zenbateko tenperatura ezin da gainditu?**
- 310a) 24°.
 - 310b) 26°.
 - 310c) 20°.
 - 310d) 25°.
- 311 Bistaratzeko pantailekin lan egiten denean, airearen abiadura balio hau baino txikiagoa izango da:**
- 311a) 0,12 m/s.
 - 311b) 0,15 m/s.
 - 311c) 0,25 m/s.
 - 311d) 0,20 m/s.

312 Bistaratze-pantailekin lan egiten denean, zerekin dago lotuta deserosotasuna?

- 312a) Atsedean nahikorik ez izatearekin.
- 312b) Lanpostuaren elementuekin.
- 312c) Jarrera sedentarioarekin.
- 312d) Jarrera sedentarioarekin eta lanpostuaren elementuekin.

13. gaia

313 Pertsona bat sorosterakoan, zer hartzen da kontuan bizi-konstanteak aztertzeko?

- 313a) Konortea, arnasketa eta pultsua, eta beti ordena horretan.
- 313b) Arnasketa, konortea eta pultsua, eta beti ordena horretan.
- 313c) Pultsua, konortea eta arnasketa, eta beti ordena horretan.
- 313d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

314 Bihotz-biriketako geldialdi batean:

- 314a) 5 minututik 10era oxigenorik hartu gabe, zelulek behin betiko kaltea jasotzen dute.
- 314b) 3 minututik 5era oxigenorik hartu gabe, zelulek behin betiko kaltea jasotzen dute.
- 314c) 5 minututik 8ra oxigenorik hartu gabe, zelulek behin betiko kaltea jasotzen dute.
- 314d) 1 minututik 5era oxigenorik hartu gabe, zelulek behin betiko kaltea jasotzen dute.

315 Zer esan nahi du du B.A.S. arauak?

- 315a) Zauritua babestu, aholkatu eta sostengatu.
- 315b) Zauritua babestu, aholkatu eta sorotsi.
- 315c) Babestu, abisatu eta zauritua sostengatu.
- 315d) Babestu, abisatu eta zauritua sorotsi.

316 Nolakoa izan behar du arnasketa artifizialak, eraginkorra izateko?

- 316a) Berehala eman behar da.
- 316b) Jarraitua, etenik gabe.
- 316c) Luzea, erabat bere onera etorri arte.
- 316d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

317 Zein dira ahoz ahoko metodoaren abantailak?

- 317a) Gehienetan aplika daiteke.
- 317b) Aukera ematen du benetan funtzionatzen duen jakiteko, airea sartzean biktimaren bularra igotzen bada.
- 317c) a) eta b) zuzenak dira.
- 317d) a) eta b) okerrak dira.

318 Arnasketa artifiziala dela eta, esaldi hauetako zein da zuzena?

- 318a) Ahotik sudurrerako maniobra bat egin behar da beti, putz egiteko.
- 318b) Arnasketa artifizialaren aplikazioan hiru fase har daitezke kontuan.
- 318c) Ahoz ahokoa bihotz-masajearekin aplika daiteke, beharrezkoa bada.
- 318d) Behin airea biriketan sartzea lortuz gero, eta biktimak pultsua duela egiaztatuz gero, putz egiten jarraituko dugu, minutuko 8-12 aldiz.

319 Bakarrik bagaude, arnasketa artifiziala eta bihotz-masajea txandakatzeko estrategia honelakoa izango da:

- 319a) Egin 30 bihotz-konpresio eta, ondoren, «ahoz aho» 2 aldiz putz egin; errepikatu zikloa biktimaren pultsua eta arnasketa berreskuratu arte.
- 319b) Egin 15 bihotz-konpresio eta, ondoren, «ahoz aho» 2 aldiz putz egin; errepikatu zikloa biktimaren pultsua eta arnasketa berreskuratu arte.
- 319c) Egin 15 bihotz-konpresio eta, ondoren, «ahoz aho» 4 aldiz putz egin; errepikatu zikloa biktimaren pultsua eta arnasketa berreskuratu arte.
- 319d) Egin 30 bihotz-konpresio eta, ondoren, «ahoz aho» 4 aldiz putz egin; errepikatu zikloa biktimaren pultsua eta arnasketa berreskuratu arte.

320 Hauek dira zauriak tratatzeko printzipio orokorrak:

- 320a) Odoljariora geldiaraztea.
- 320b) Saihestea konplikazioak eta, bereziki, infekzioak.
- 320c) Sendatzen laguntzea.
- 320d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

321 Odola darion arteria baten konpresioaren aurrean, zer egin behar dugu?

- 321a) Konpresioa ezin da zuzenean egin odola darion zatian.
- 321b) Gaza esterilak baino ez ditugu erabiliko.
- 321c) Zauriaren gainean presioa egingo dugu minutu batzuek (10 inguru), odoljariora gelditu dela ikusi arte.
- 321d) Behin odoljariora gelditu dela ikusten dugunean, ez dugu zauritua lekuz mugitu aurretik zauria bendaz lotuko inoiz.

322 Neurri hauetatik, zein da zuzena torniketea egitean?

- 322a) Etiketa bat jarriko da bihotzetik hurbilen dagoen lekuan.
- 322b) Denbora luzez torniketea erabiltzen bada, ez da komeni hura lasaitzea.
- 322c) Behin torniketea jarrita, osasun-langile espezializatuak dagokie hura kentzea, eta inoiz ez sorosleari, shock-arriskua saihesteko.
- 322d) Neurri guztiak zuzenak dira.

323 Zer egin shock-arriskua dagoenean?

- 323a) Pertsona lurrean etzanaraziko dugu, garuneko odol-fluxua errazteko.
- 323b) Hankak altzaraziko dizkiogu, minez kexatzen ez bada; minez kexatzen bada, gorputz-adarrak horizontalean utziko dizkiogu.
- 323c) a) eta b) okerrak dira.
- 323d) a) eta b) zuzenak dira.

324 Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- 324a) Giza gorputzak 40 °C-ko tenperaturak jasaten ditu.
- 324b) Larruazala ez da gure gorputzaren organo bat.
- 324c) Epidermisa eta endotelioa dira larruazalaren bi geruzak.
- 324d) Erredura organismoko ehunek hotzarekin duten kontaktuaren emaitza da.

325 Wallace-ren «9ko erregelari», helduaren gorputz-azalera 11 zatitan banatzen da, eta zati bakoitza % 9 edo 9ren multiploa da; markatu erantzun zuzena:

- 325a) Burua eta lepoa % 18 dira.
- 325b) Goiko gorputz-adar bakoitza: % 9 da.
- 325c) Beheko gorputz-adar bakoitza: % 9 da.
- 325d) Toraxaren aurrealdea eta abdomena: % 9 da.

326 Zer egin behar da erredura bat dagoenean?

- 326a) Urez busti.
- 326b) Jaten edo edaten eman.
- 326c) Biktima bakarrik utzi.
- 326d) Larruazalari itsatsitako arropa askatu.

327 Haustura bat dagoenean, zer agertzen da?

- 327a) Hematomak.
- 327b) Krepitazioak.
- 327c) Ezintasun funtzionala.
- 327d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

328 Baieztapen hauetatik, zein da okerra?

- 328a) Altura batetik oinen gainean edo atzeraka eroriz gero, bizkarrezurra hauts daiteke.
- 328b) Garondoko mina bizkarrezurreko hausturarekin batera agertzen den sintoma da.
- 328c) Erraza da jakitea bizkarrezurra benetan hautsi den.
- 328d) Bizkarrezurra hautsi izanaren susmo txikiena badugu, benetan hautsita egongo balitz bezala jokatu dugu lesionatuarekin.

329 Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- 329a) Sinkopea ohiko nahasmendua da, biztanleriaren % 3ri eragiten diona.
- 329b) Sinkopearen kausak hiru talde handitan bana daitezke.
- 329c) Hipogluzemien kausak kardiakoak dira.
- 329d) Sinkope baten kausa hutsala bada, sintoma klinikoak larriak dira.

330 Jatorri epileptikoa izan dezakeen konbultsio baten aurrean, lehen laguntzak hauek izango dira:

- 330a) Saiatu biktimari eusten, muskulu-espasmoak dituen bitartean.
- 330b) Biktima zauritu dezakeen edozer kenduko dugu haren ingurutik.
- 330c) Arropa estutu.
- 330d) Objektu zurrin bat jarriko diogu buruaren azpian, kuxin gisa.

331 Aire-bideen buxadura dela eta:

- 331a) Aire-bideak erabat buxatuta daudenean baino ez da gertatzen eztarriko trabamendua.
- 331b) Eztul egiteak buxadura zailtzen du.
- 331c) Bizkarrean kolpetxo leunak ematea komeni da.
- 331d) Oso maiz iristen zaizkigu pertsona bat eztarriko trabamendu baten ondorioz hil dela dioten albisteak.

332 Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- 332a) Heimlich-en maniobra aire-bideak erabat buxatzen direnean erabiliko dugu.
- 332b) Jaten dugun bitartean hitz egiteak eztarriko trabamendua eragozten laguntzen du.
- 332c) Haurren artean, janaria izan ohi da eztarria trabatzeko arrazoirik ohikoena.
- 332d) Gure eztula ez da eraginkorra arnasbideetan dauden gorputz arrotzak kanporatzeko.

333 Intoxikazio akutu bat gertatzen denean, zertan datza tratamendu orokorra?

- 333a) Tratamendu asintomatikoa.
- 333b) Substantzia toxikoa xurgatzen ez jarraitzea, eta kanporatzen laguntzea.
- 333c) Ura ematea.
- 333d) Intoxikatutako pertsona bere etxera eramatea.

334 Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- 334a) Apnea edo arnas-gutxiegitasunari aurre egiteko metodorik eraginkorrena aireztapen mekanikoa da.
- 334b) Begietako alteraziorik izanez gero, ur epel edo soluzio fisiologiko ugarirekin garbituko dugu, betazalak ondo irekita eta 30 minutuz gutxienez.
- 334c) a) eta b) zuzenak dira.
- 334d) a) eta b) okerrak dira.

335 Zer egin zauri arin baten aurrean?

- 335a) Ekin aurretik, eskuak ongi garbitu behar ditugu.
- 335b) Zauria urez eta xaboiz garbituko dugu, zauriaren erdigunetik ertzetara.
- 335c) Antiseptiko gisa pobidona iododuna (betadine) erabiliko dugu.
- 335d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

336 Zer egin zauri larri baten aurrean?

- 336a) Oihu egin.
- 336b) Odoljariora geldiarazi, halakorik badago.
- 336c) Pomada eman.
- 336d) Zauritua ahoz gora etzanda jarri.

337 Toraxean zauri bat izanez gero, zer egin behar da?

- 337a) Iltzatuta dagoen objektua atera, halakorik badago.
- 337b) Zauritua ebakuatuko dugu, zaurituta duen alderantz etzanda.
- 337c) Zaurituari begiak estali.
- 337d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

338 Abdomenean zauri bat izanez gero, zer egin behar da?

- 338a) Erraiak sartu, kanpoan badaude.
- 338b) Egon daitekeen edozein gorputz arrotz atera.
- 338c) Zauria estali, eta biktima ebakuatu, erdi eserita eta alboranzko segurtasun-posizioan, hankak tolestuta dituela.
- 338d) Zaurituari ura edaten eman.

14. gaia

339 Aukeratu esaldia osatzen duen erantzun okerra. Moore irakaslearen hitzei jarraituz, balio publikoa sortzea da herritarrentzako ahalik eta balio handiena sortzea, baliabide hauek baliatuta:

- 339a) Erakundean dauden baliabide finantzarioak.
- 339b) Erakundean dauden giza baliabideak.
- 339c) Erakundean dauden baliabide pribatuak.
- 339d) Erakundean dauden baliabide teknologikoak.

340 Noiz eta non sortu zen gobernu irekiaren kontzeptua?

- 340a) Ingalaterran, 1970eko amaieran.
- 340b) Estatu Batuetan, 1970eko amaieran.
- 340c) Estatu Batuetan, 1980ko hasieran.
- 340d) Ingalaterran, 1980ko hasieran.

341 Zein konpromiso ditu Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzak (OGP), 2011n sortu zenez geroztik?

- 341a) Ustelkeria instituzionalaren aurka borrokatzea.
- 341b) Herritarren parte-hartzea bultzatzea.
- 341c) Gobernu-jarduerei buruzko informazio gehiago izatea eskuragarri.
- 341d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

342 Arau askotan, gobernu onaren kontzeptua kargu publikodunen portaerara mugatzen da soilik, gardentasunarekin, inpartzialtasunarekin, ardurarekin eta abarrekin lotutako printzipio orokorretan eta jardun-printzipioetan oinarrituta. Kargudunen eta enplegatu publikoen etikarekin eta portaerarekin lotutako alderdi horrek beste izen bat ere badu:

- 342a) Gardentasuna.
- 342b) Integritatea.
- 342c) Etika.
- 342d) Erantzun guztiak okerrak dira.

343 Kontzeptu hauetatik, zein ez da administrazio elektronikoaren sinonimoa?

- 343a) Administrazio informatikoa.
- 343b) Administrazio digitala.
- 343c) 2.0 Administrazioa.
- 343d) E-administrazioa.

344 Aukeratu erantzun zuzena. Printzipio hauetatik, zein dira gobernu onaren printzipio informatzaileak?

- 344a) Gardentasuna, informazio publikorako irispidea eta kontuak ematea.
- 344b) Herritarren parte-hartzea eta elkarlana.
- 344c) Integritatea.
- 344d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

345 Non arautzen da gardentasuna eta informazio publikorako irispidea?

- 345a) 1978ko Espainiako Konstituzioan.
- 345b) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean.
- 345c) Abenduaren 9ko 19/2013 Legean.
- 345d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

346 Aukeratu erantzun okerra. Nori aplikatzen zaio abenduaren 9ko 19/2013 Legea, administrazio-zuzenbideari lotutako jardueri dagokienez?

- 346a) Errege Etxeari.
- 346b) Kongresuari eta Senatuari.
- 346c) Espainiako Bankuari.
- 346d) Kontuen Auzitegiari.

347 Nori aplikatzen zaio abenduaren 9ko 19/2013 Legea, administrazio-zuzenbideari lotutako jardueri dagokienez?

- 347a) Alderdi politikoei eta erakunde sindikalei.
- 347b) Enpresa-erakundeei.
- 347c) Zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei.
- 347d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

348 Zein arauen mende daude EAEko udalak, gardentasunari eta informazio publikorako irispideari dagokionez?

- 348a) Alor horretako Estatuaren oinarrizko legeriaren mende.
- 348b) 2/2016 Legearen mende (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea, apirilaren 7koa).
- 348c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 348d) Gernikako Autonomia Estatutuaren mende.

349 Markatu erantzun okerra. Argitaratutako informazioak, oro har, printzipio hauek bete behar ditu:

- 349a) Zehaztasuna.
- 349b) Gaurkotasuna.
- 349c) Egiazkotasuna.
- 349d) Garrantzia.

350 Kontuak ematearen kontzeptua ingelesezko termino honetatik dator:

- 350a) Equity.
- 350b) Accountability.
- 350c) Legality.
- 350d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

- 351 Non aurkeztu eta egituratu ohi da nahitaez publizitatea eman behar zaion informazioa?**
- 351a) Erakunde bakoitzaren webguneetan.
 - 351b) Gardentasunaren atarietan.
 - 351c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - 351d) Edozein hedabide publikotan.
- 352 Nola esaten zaio datu-mota jakin batzuk jende guztiarentzat modu librean eskuragarri egotea lortu nahi duen filosofiari eta praktikari?**
- 352a) Open data.
 - 352b) Open source.
 - 352c) Datu irekiak.
 - 352d) Aurreko a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 353 Open Data Euskadik administrazio hauen datu irekiak jasotzen ditu:**
- 353a) Euskadiko toki-administrazioak.
 - 353b) Euskadiko foru-administrazioak.
 - 353c) Espainiako Gobernua.
 - 353d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 354 Aukeratu erantzun okerra. Informazio publikorako irispidea dela eta, herritarrek eskubide hauek dituzte:**
- 354a) Lortutako informazioa edozein modutan erabiltzea.
 - 354b) Informazio publikorako irispidea izatea.
 - 354c) Eskatutako informazioa aukeratutako formatuan lortzea.
 - 354d) Informazioa doan eskuratzea.
- 355 Aukeratu erantzun okerra. Zein betebeharrak dute Informazio publikorako irispidea duten pertsonak?**
- 355a) Agintaritza eskudunari jakinaraztea informazioa zertarako erabiliko den.
 - 355b) Iripiderako eskubidea baliatzea fede onaren printzipioa eta eskubide-abusua galarazteko printzipioa betez, beren eskaerak ahalik eta ondoen zehaztuta.
 - 355c) Informazioa eskuratzea zerbitzu publikoen funtzionamendu normalari eragin gabe, dagokion ebazpenean ezartzen diren irispiderako baldintza eta betekizun materialak betez, artxibo edo bulego publiko jakin batean aurrez aurre egin behar denean.
 - 355d) Lortutako informazioa berrirabiltzeari buruz oinarritzeko araudian eta lege autonomikoan ezarritako betebeharrak errespetatzea.
- 356 Informazio publikora irispidea izateko eskubidearen mugak gai hauen babesarekin daude lotuta:**
- 356a) Segurtasun nazionala.
 - 356b) Ekonomia- eta moneta-politika.
 - 356c) Ingurumenaren babesa.
 - 356d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 357 Zer arauk behartzen dituzte datuen tratamenduaren arduradunak eta eragileak tratamendu-jardueren erregistroa sortzera, mantentzera eta argitaratzera?**
- 357a) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak.
 - 357b) Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak.
 - 357c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - 357d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

- 358 Nola du izena gardentasuna bermatzeko Bizkaiko organo propioak?**
- 358a) Foru Kontseilua.
 - 358b) Erreklamazioen Batzordea.
 - 358c) Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordea.
 - 358d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 359 Aukeratu erantzun okerra. Parte-hartzearen hiru dimentsioak, balio publikoa sortzen dutenak:**
- 359a) Parte-hartze politikoa.
 - 359b) Zerbitzu publikoak diseinatzeko parte-hartzea.
 - 359c) Parte-hartze solidarioa.
 - 359d) Parte-hartze kolaboratiboa.
- 360 Herritarren parte-hartzeari buruzko autonomia- edo toki-araudiek arlo hauetan parte hartzeko eskubidea arautzen dute, besteak beste:**
- 360a) Aurrekontuak prestatzen.
 - 360b) Gobernu-planetan.
 - 360c) Arau-xedapen orokorrak prestatzen.
 - 360d) Aurreko a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 361 Aukeratu erantzun okerra. Herritarrekiko interakziorako plataformek funtzionalitate batzuk jasotzen dituzte, herritarrek aukera hauek izan ditzaten:**
- 361a) Proposamenak egiteko.
 - 361b) Beste batzuen proposamenak babesteko.
 - 361c) Beren iritzia jendaurrean adierazteko.
 - 361d) Proiektuak planteatzeko, aurrekontu partizipatiboetan sar daitezen.
- 362 Organo hauetatik, zein ez da kontsultarako eta parte hartzeko organoa?**
- 362a) Elkarriketa Zibilerako Mahaia.
 - 362b) Udaleko Gizarte Kontseiluak.
 - 362c) Mankomunitateak.
 - 362d) Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.
- 363 Aukeratu erantzun okerra. Hauetatik, zein har daiteke zenbait interesen ordezkari den taldetzat?**
- 363a) Entitate kolektiboak.
 - 363b) Iritzi- eta eztabaida-taldeak.
 - 363c) Interes-taldeak.
 - 363d) Hausnarketa-taldeak.
- 364 Integritate-sistemetan sartzan diren lege, kode eta praktika guztiek balio eta jokabide-arau berberak dituzte, eta horiek printzipio etiko orokor hauetan sar daitezke:**
- 364a) Interes orokorra.
 - 364b) Errespetua eta irekitasuna.
 - 364c) Efikazia eta emaitza onak.
 - 364d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

15. gaia

365 Administrazio-espedientearen definizioa dela eta:

- 365a) Urriaren 1eko 39/2015 Legea argitaratu arte (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea), ez zegoen administrazio-espedientearen lege-definizioarik.
- 365b) 30/1992 Legean agertzen da (Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, azaroaren 26koa).
- 365c) Konstituzioan agertzen da.
- 365d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

366 Administrazio-espedientearen legezko definizioaren arabera:

- 366a) Administrazio-espedientea da administrazio-prozeduraren euskarria, fisiko edo elektronikoa.
- 366b) Administrazio-espedientea dokumentu eta jarduketan multzo ordenatu bat da, jarraitutako prozedura adierazten duena eta administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena, eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena.
- 366c) Administrazio-espedientea da enplegatu publiko bati aplikatzen zaion zehapena.
- 366d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

367 Administrazio-espedientearen legezko definizioaren arabera:

- 367a) Espediente mota bakarra dago, prozedurari dagokiona.
- 367b) Bi espediente mota daude: espediente fisikoa eta administratiboa eta espediente elektronikoa.
- 367c) Espediente elektronikoa da dagoen bakarra.
- 367d) Hiru espediente mota daude.

368 Espediente Elektronikoari buruzko Elkarreragingarritasun Arau Teknikoak osagai hauek definitzen ditu espediente elektronikorako:

- 368a) Dokumentu elektronikoak.
- 368b) Aurkibide elektronikoa.
- 368c) Espediente elektronikoaren metadatuak.
- 368d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

369 Kopia elektronikoaren prozesua egin ahal izateko, ezinbestekoa da:

- 369a) Administrazio publikoaren informatika-sailak edo administrazio elektronikoko sailak edo, bestela, administrazioak berak aplikazio bat sortzea, prozesua egin ahal izateko.
- 369b) Herritarrak egiten ditu kopiak, bere ordenagailuan.
- 369c) Kopiak bakarrik egiten dira.
- 369d) Inoiz ez da beharrezkoa kopiak egitea.

370 Zer da EKS?

- 370a) Egiaztapen-eragiketen kautela segurua.
- 370b) Egiaztapen Konparaketa Segurua.
- 370c) Egiaztapen Kode Segurua.
- 370d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

371 Arau baten indarrez administrazio-espeditentia bidali behar denean, nola egingo da?

- 371a) Elkarrengarritasun Eskema Nazionalen eta Elkarrengarritasun Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera.
- 371b) Eragingarritasun Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera.
- 371c) Europar Batasunaren bidalketarako eta elkarrengarritasunerako eskuliburu teknikoetan aurreikusitakoaren arabera.
- 371d) Kasu bakoitzean egokien den moduan, baita postaz ere.

372 Zer dio martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena) administrazio-dokumentu elektronikoari buruz (46. art.)?

- 372a) Bitarteko elektronikoen bidez tramitatutako administrazio-prozedura baten esparruan, organo jardulea interesdunari administrazio-dokumentu elektroniko baten kopia bat ematera behartuta badago, dokumentu horren ordez paperezko kopia bat eman ahal izango dio, zeinean dokumentua laburtu eta benetakoa dela ziurtatuko baita.
- 372b) Bitarteko elektronikoen bidez tramitatutako administrazio-prozedura baten esparruan, organo jardulea interesdunari administrazio-dokumentu elektroniko baten kopia bat ematera behartuta badago, dokumentu horren ordez dokumentua bitarteko elektronikoko egokien bidez irizpidean izateko behar diren datuak eman ahal izango dizkio.
- 372c) Bitarteko elektronikoen bidez tramitatutako administrazio-prozedura baten esparruan organo jardulea ez badago behartuta interesdunari dokumentu baten ale bat ematera, nahikoa izango da herritarrari adieraztea zein bulegotara jo behar duen dokumentu hori ikusteko edo kopia bat lortzeko.
- 372d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

373 Zer dio martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena) kopia autentikoen baliozkotasunari eta irismenari buruz (47. art.)?

- 373a) Ahal dela, kopiak jatorrizkotik egingo dira.
- 373b) Ahal dela, kopiak jatorrizkotik edo beste kopia batetik egingo dira.
- 373c) Kopia autentikoak jatorrizko batetik egingo dira beti, eta jatorrizko dokumentuen baliozkotasun eta irismen bera izango dute.
- 373d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

- 374 Martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren arabera (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena), organo hauek, besteak beste, izango dute estatu mailan kopia autentikoak emateko eskumena (48. art.):**
- 374a) Jatorrizko dokumentuak eman behar dituzten organoek.
 - 374b) Dokumentuak zaintzen eta artxibatzen dituzten organoek.
 - 374c) Haien eskumen-arauetan aurreikusitako organoek.
 - 374d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.
- 375 Martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren arabera (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena), zer gertatzen da interesdunak paperean aurkezten duenean administrazio-dokumentu publiko baten edo dokumentu pribatu baten kopia bat, administrazio-espeditente batean sartzeko (49. art.)?**
- 375a) Administrazio Publikoak beretzat hartuko du dokumentua, prozedura amaitu arte.
 - 375b) Administrazio Publikoak dokumentu horren paperezko kopia konpultsatua eskatuko du.
 - 375c) Administrazio Publikoaren digitalizazio-prozesuak kopia elektronikoa bat sortuko du, paperean aurkeztutako kopiaren balio bera izango duena.
 - 375d) Interesdunak memoria batean edo beste euskarri informatiko batean dagoen dokumentuaren kopia bat entregatu beharko du, Administrazioari emateko.
- 376 Zer dio martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena) administrazio-dokumentu elektronikoen denbora-erreferentziari buruz (50. art.)?**
- 376a) Administrazio-dokumentu elektronikoa guztiek aurreikusitako denbora-erreferentzietako bat izan beharko dute.
 - 376b) Denbora-erreferentziaren modalitate bat denbora-marka da.
 - 376c) Denbora-erreferentziaren modalitate bat zigilu elektronikoa da.
 - 376d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.
- 377 Martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren arabera (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena), noiz erabiliko da data-orduen marka (50. art.)?**
- 377a) Arau erregulatzaileetan zerrendatutako kasuetan erabiliko da, eta, horri buruz ezer esaten ez bada, denbora-zigilu elektronikoa kualifikatua erabiliko da.
 - 377b) Erabiliko da arau erregulatzaileetan denbora-zigilu elektronikoa kualifikatua erabiltzeko betebeharra ezartzen ez den kasu guztietan.
 - 377c) Herritarrak eskatzen duenean erabiliko da.
 - 377d) Erabiliko da prozedura administratibo edo judizial batean data bat eta ordu bat frogatu behar direnean.
- 378 Zer dio martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena) administrazio-espeditente elektronikoen osatzeari buruz (51. art.)?**
- 378a) Administrazio-espeditente elektronikoen orrialdekatzea aurkibide elektronikoa autentikatu baten bidez egingo da; horrek espeditentearen osotasuna bermatuko du, eta behar den guztietan berreskuratzeko aukera emango du.
 - 378b) Dokumentu elektronikoa jakin bat ezingo da egon administrazio-espeditente batean baino gehiagotan.
 - 378c) Aurkibide elektronikoa autentikatu sinatuko dute espeditentea tramitzeko ados dagoen organoaren tituluak eta prozeduran interesa duen herritarrak.

378d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

379 Zer dio martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena) dokumentuak gordetzeko denboraz eta dokumentuak suntsitzeaz (53. art.)?

379a) Interesdunak paperean aurkeztutako dokumentuak, edozein arrazoi dela eta interesdunari itzuli ezin bazaizkio aurkeztu dituen unean, behin digitalizatu ostean bi urtez gordeko dira hark berreskuratu ahal izateko, salbu eta kasuan kasuko administrazioak erregelamendu bidez epe luzeagoa ezartzen badu.

379b) Interesdunak paperean aurkeztutako dokumentuak, edozein arrazoi dela eta interesdunari itzuli ezin bazaizkio aurkeztu dituen unean, behin digitalizatu ostean sei hilabetez gordeko dira hark berreskuratu ahal izateko, salbu eta kasuan kasuko administrazioak erregelamendu bidez epe luzeagoa ezartzen badu.

379c) Interesdunak paperean aurkeztutako dokumentuak ezin izango dira inoiz administrazioan gordailutu.

379d) Interesdunak paperezko euskarrian aurkeztutako dokumentuak interesdunak berak gorde beharko ditu prebentzioz hurrengo sei hilabeteetan.

380 Martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren arabera (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena), administrazio publiko bakoitzak arautuko ditu tramitazioa dagoeneko amaitu zaion prozedura baten espedientearen parte diren dokumentu elektronikoak kontserbatzeko gutxieneko aldiak, artxiboei eta dokumentu-ondareari buruzko araudi espezifikoaren arabera.

380a) Egia da, baina gehitzen du legez gehienez ere bost urtekoa izango dela.

380b) Egia da, baina gehitzen du legez gehienez ere hogeita hamar urtekoa izango dela.

380c) Egia da, baina gehitzen du legez gehienez ere berrogeita hamar urtekoa izango dela.

380d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

381 Nola definitzen du artxibo elektroniko bakarra martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak (Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena), 55. artikuluan?

381a) Beharrezkoak diren administrazio-prozedurak edo jarduketak tramitatzen diren bitartean, dokumentu eta espediente elektronikoak eta beste dokumentu multzo edo informazio batzuk kudeatzeko, kontserbatzeko eta berreskuratzeke sistemen eta zerbitzuen multzoa.

381b) Behin administrazio-prozedurak edo jarduketak amaitu direnean, dokumentu eta espediente elektronikoen eta beste dokumentu multzo edo informazio batzuen kudeaketa, kontserbazioa eta berreskuratzea posible egiten duten sistemen eta zerbitzuen multzoa.

381c) Herritarrek aurkeztu, baina arrazoi batengatik edo besteagatik itzuli gabe geratzen diren prozedura elektroniko eta dokumentu guztiak gordailutu behar diren lekua.

381d) Legezko muga barruan herritar guztiek kontsultatzeko irekita dagoen datu-base moduko bat.

382 Zer dio urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) informazio osagarri edo lagungarriaz (70.4 art.)?

382a) Ez da administrazio-espedientearen parte izango.

382b) Kontzeptu horretan sartzen dira, besteak beste, oharak, zirriborroak, iritziak eta laburpenak.

382c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

382d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

383 Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) administrazio publikoek dokumentuak nola eman behar dituzten arautzen du (26. art.), eta, besteak beste, hauxe dio:

- 383a) Administrazio publikoek paperean edo formatu elektroniko bateragarrian emango dituzte beti dokumentuak, idatzizkoak edo ahozkoak izan.
- 383b) Dokumentu publikotzat ulertuko da administrazio publikoetako organoek emandako dokumentuak.
- 383c) Dokumentuaren izaerak ezin du baldintzatu zein den adierazpide eta jasota geratzeko modu egokiena.
- 383d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

384 Administrazioak emandako dokumentu guztiek behar dute sinadura elektronikoa?

- 384a) Ez.
- 384b) Bai, salbuespenik gabe.
- 384c) Bai, bestela ez baitira Administrazioak emandako dokumentu baliodunak; alegia, inolako froga-baliorik ez duten datu-euskarriak baino ez dira.
- 384d) Bai, baina Administrazioak atzeraeraginez sina ditzake dokumentuak geroago, mugarik gabe; beraz, dokumentuak sinadura elektronikorik gabe eman ditzake, inolako ondoriorik gabe.

385 Ziurtagiriak, kopia ziurtatuak eta dokumentuen kopia autentikoak:

- 385a) Termino sinonimoak dira.
- 385b) Antzeko kontzeptuak dira.
- 385c) Kontzeptu desberdinak dira, eta ez dute zerikusirik beren artean.
- 385d) Ziurtagiriak eta kopia ziurtatuak sinonimoak dira; aldiz, dokumentuen kopia autentikoa beste kontzeptu bat da.

386 Zer hartzen du barruan «dokumentu bidezko ziurtapena» terminoak?

- 386a) Ziurtapena zentzu hertsian.
- 386b) Ziurtapena zentzu hertsian eta gutun ziurtatua.
- 386c) Ziurtapena zentzu hertsian eta kopia ziurtatua.
- 386d) Ziurtapena zentzu zabalean.

387 Zer dira kopia arruntak?

- 387a) Kopia arruntak dira fede emateko eginkizuna espresuki esleituta ez duten funtzionario publikoek beren eginkizunak betetzean sortzen dituztenak.
- 387b) Kopia arruntak dira fede emateko eginkizuna espresuki esleituta duten funtzionario publikoek beren eginkizunak betetzean sortzen dituztenak.
- 387c) Kopia arruntak dira funtzionario publiko batek bere eginkizunak betetzen ari dela baimendu ez dituenak.
- 387d) Kontzeptu hori ez da existitzen.

388 Zer dio urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), kopia autentikoei buruz (27. art.)?

- 388a) Kopia autentikoen jatorrizko dokumentuen baliozkotasun eta efikazia bera izango dute.
- 388b) Kopia autentikoen jatorrizko dokumentuen baliozkotasun bera izango dute, baina efikazia ez.

- 388c) Kopia autentikoek jatorrizko dokumentuen efikazia bera izango dute, baina baliozkotasuna ez.
- 388d) Kopia autentikoek ez dute izango ez jatorrizko dokumentuen baliozkotasun bera, ezta efikazia bera ere.

389 Zer dio urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) dokumentuan kopia autentikoei buruz (27. art.)?

- 389a) Administrazio publiko bakoitzak erabakiko du zer konfiantzazko enplegatuk dituzten eskumenak administrazio-dokumentu publiko edo pribatuen kopia autentikoak egiteko.
- 389b) Administrazio publiko bakoitzak erabakiko du zer organok dituzten eskumenak administrazio-dokumentu publiko edo pribatuen kopia autentikoak egiteko.
- 389c) 39/2015 Legeak berak zerrendatzen ditu kopia autentikoak egiteko gaituta dauden subjektuak.
- 389d) Edozein enplegatu publikok egin ditzake, karrerako funtzionarioa bada.

390 Zer da digitalizazioa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (27. art.)?

- 390a) Datuak modu digitalean erregistratzea, herritarrak hala eskatuta.
- 390b) Prozesu teknologiko bat, zeinaren bitartez magnitude fisiko bat, testu bat edo seinale analogiko bat irudikapen digital bihurtzen baita.
- 390c) Prozesu teknologiko bat da zeinaren bitartez paper-euskarria edo beste euskarri ez-elektroniko bat duen dokumentu bat dokumentuaren irudi kodetu, leial eta osoa duen fitxategi elektroniko bihurtzen baita.
- 390d) Informazio jarraitu bat zenbaki digital bihurtzea edo kodetzea.

16. gaia

- 391 Sinadura legeztatzeke prozesuan, legeztatzeak izen-abizenak eta kargua bai, jaso behar ditu, baina ez du jaso behar:**
- 391a) Sinadura legeztatzen duen sailaren edo organismoaren zigilua.
 - 391b) Identifikatutako pertsonaren jaioteguna.
 - 391c) Legeztatzearen data.
 - 391d) Legeztatzea egin duen pertsonaren kargua eta izen-abizenak.
- 392 Arau hauetatik, zeinek dute indarrean administrazio elektronikoari buruzko erregulaziorik?**
- 392a) Urriaren 1eko 39/2015 Legeak.
 - 392b) Urriaren 1eko 40/2015 Legeak.
 - 392c) Ekainaren 22ko 11/2007 Legeak.
 - 392d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 393 Zein legek arautzen ditu, besteak beste, herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak, erregistro elektronikoak, jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egitea, administrazio publikoek dokumentuak ematea edo dokumentuak artxibatzea?**
- 393a) Urriaren 1eko 39/2015 Legeak.
 - 393b) Urriaren 1eko 40/2015 Legeak.
 - 393c) Ekainaren 22ko 11/2007 Legeak.
 - 393d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 394 Administrazio-jarduera automatizaturako sistemak hauek dira:**
- 394a) Administrazio publikoaren zigilu elektronikoa.
 - 394b) Egiaztapen-kode segurua.
 - 394c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - 394d) Sinadura elektronikoa.

395 Legeak balio osoa aitortzen die sinadura elektronikoa erabiltzen dutenei, bi printzipio hauen bidez:

- 395a) Aitorpen partikularra: diskriminaziorik ezaren printzipioa.
- 395b) Aitorpen orokorra: diskriminaziorik ezaren printzipioa.
- 395c) Aitorpen zuzena: eskuzko sinadurarekiko baliokidetasun funtzionalaren printzipioa.
- 395d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

396 Aukeratu erantzun okerra. Sinadura guztiek eskakizun hauek bete behar dituzte:

- 396a) Zehaztasuna.
- 396b) Identitatea.
- 396c) Integritatea.
- 396d) Konfidentzialtasuna.

397 2010. urtearen hasieran, bi errege-dekretu onartu ziren, IKTen bidez administrazio-kudeaketaren alderdi hau handitzeko:

- 397a) Efikazia.
- 397b) Efektibitatea.
- 397c) Efizientzia.
- 397d) Erantzun guztiak okerrak dira.

398 Hauetatik, zein dira sinadura elektronikoaren motak?

- 398a) Arrunta.
- 398b) Aurreratua.
- 398c) Aitortua.
- 398d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

399 Ezaugarri hauetatik, zein dagokio sinadura elektroniko arruntari?

- 399a) Sinpleena da.
- 399b) Seguruena da.
- 399c) Oso erabilgarria da.
- 399d) Aurreko a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

400 Ezaugarri hauetatik, zein dagokio sinadura elektroniko aurreratuari?

- 400a) Sinatzailea nor den adierazten du, eta eman den informazioa osoa dela ziurtatzen.
- 400b) Sinatzaileak berak bakarrik kontrola ditzakeen bitartekoekin sortzen da.
- 400c) Aukera ematen du sinatu ondoren datuetan egiten den zernahi aldaketa detektatzeko, eta hori abantaila da dokumentuaren edukia babesteko.
- 400d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

401 Aukeratu erantzun okerra. Zer bermatzen du sinadura aitortuak?

- 401a) Pertsona fisiko batek sinatu duela.
- 401b) Pertsona juridiko batek sinatu duela.
- 401c) Sinatzaileak dokumentua ikusteko aukera duela.
- 401d) Sinatzaileak oniritzia edo baimena eman duela.

402 Aukeratu erantzun okerra. Zein legek arautzen du Euskadin sinadura elektronikoaren erabilera?

- 402a) Urriaren 1eko 39/2015 Legeak.
- 402b) Urriaren 1eko 40/2015 Legeak.
- 402c) Azaroaren 11ko 6/2020 Legeak.
- 402d) Aurreko b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

- 403 Aukeratu erantzun okerra. Zein jarduketatan onartzen da «sinadura aitortua» deiturikoa?**
- 403a) Herritarren jarduketetan.
 - 403b) Estatuko Administrazio Orokorraren jarduketetan.
 - 403c) Pertsona fisikoen jarduketetan, oro har.
 - 403d) Pertsona juridikoen jarduketetan, oro har.
- 404 Baieztapen hauetatik, zein da okerra? Herritarrek beste sinadura-sistema batzuk erabili ahal izango dituzte kasu hauetan:**
- 404a) Eskaera-tramitean, langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko prozeduretan.
 - 404b) Osasun Sistema Nazionalaren EAEko farmazia-prestazioan sartzeko onuradunak identifikatzean.
 - 404c) Aurretiko hitzorduan, lehen mailako arretako zerbitzuetan.
 - 404d) Ministerio-agindu bidez erabakitzen den beste edozeinetan.
- 405 Araudiak eskatzen du administrazio-jarduketa telematikoek, sinaduraz gain, hauek ere edukitzea:**
- 405a) Sinadura horren indarraldia edo sinatzeko erabili den ziurtagiri elektronikoaren indarraldia egiaztatu dela jasotzea.
 - 405b) Denbora-zigilua, hau da, eragiketa elektronikoa egin den egun eta ordua- egiaztatzea.
 - 405c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - 405d) Ziurtatzailearen identifikazioa.
- 406 Aukeratu erantzun okerra. Noren esku jarriko du EAEko Administrazioak sinadura elektronikoa?**
- 406a) Langile guztien esku.
 - 406b) Hartaz baliatzeko eskumena duten langileen esku.
 - 406c) Administrazio-organoen edo zuzendaritza-postuen esku.
 - 406d) Jarduketa automatizaturako erabiliko du.
- 407 Ziurtagiri elektronikoei beste izen bat ere ematen zaie. Zein?**
- 407a) Informatikoak.
 - 407b) Digitalak.
 - 407c) Automatizatuak.
 - 407d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 408 Nola deitzen zaie pertsona fisiko edo juridiko baten —harpidedun esaten zaionaren— eta pertsona hori berme osoz identifikatzen duen gako publikoaren arteko lotura bermatzen duten konfiantzazko hirugarrenei?**
- 408a) Agintaritza publikoa.
 - 408b) Agintaritza emailea.
 - 408c) Ziurtapen-agintaritza.
 - 408d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 409 Ziurtagiri baten gakoak dituenak beti izan behar du:**
- 409a) Pertsona fisiko bat.
 - 409b) Pertsona juridiko bat.
 - 409c) Pertsona fisiko bat edo pertsona juridiko bat.
 - 409d) Erantzun guztiak okerrak dira.

410 Zein aukera ematen dute ziurtagiri elektronikoek?

- 410a) Ziurtagiria eskatu duen eta gakoa duen pertsona identifikatzea, baita, hala badagokio, zer erakundetakoa den ere.
- 410b) Mezuak modu seguruan sinatzea.
- 410c) Dokumentuak zifratzea, edukian sartzea eragozteko.
- 410d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

411 Zein pertsona mota izan daiteke ziurtapen-agintaritza?

- 411a) Fisikoa.
- 411b) Juridikoa.
- 411c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 411d) Publikoa.

412 Entitate hauetatik, zein ez da ziurtapen-agintaritza bat?

- 412a) CERES (Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala).
- 412b) IZENPE.
- 412c) Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
- 412d) Abokatutzaren Kontseilu Nagusia.

413 Ziurtagiri elektronikoetan erabiltzen den metodo kriptografikoari honela esaten zaio:

- 413a) Kriptografia simetrikoa.
- 413b) Kriptografia asimetrikoa.
- 413c) Kriptografia simetrikoko publikoa.
- 413d) Kriptografia asimetrikoko publikoa.

414 Ziurtagiri guztiek datu hauek jaso behar dituzte, gutxienez:

- 414a) Ziurtagiriaren serie-zenbakia, kasu bakoitzean bakarra dena.
- 414b) Ziurtagiriaren titularraren izena eta helbidea.
- 414c) Ziurtapen-agintaritzaren sinadura elektronikoa.
- 414d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

415 Aukeratu erantzun okerra. Ziurtagiri bat egoera hauetako batean egon daiteke:

- 415a) Etetea.
- 415b) Preskripzioa.
- 415c) Gaitzea.
- 415d) Berritzea.

416 Non dago IZENPEren egoitza?

- 416a) Bilbon.
- 416b) Donostian.
- 416c) Gasteizen.
- 416d) Erantzun guztiak okerrak dira.

17. gaia

417 Kalitatearen gaur egungo ikusmoldea aurretiko teoriak egindako ekarpenetik sortua da. Zein mendetakoak dira teoria horiek?

- 417a) XVIII. mendekoak.
- 417b) XIX. mendekoak.
- 417c) XX. mendekoak.
- 417d) XVIII., XIX. eta XX. mendeetakoak.

418 Printzipio hauetatik, zein dago kudeaketaren erabateko kalitatearen/bikaintasunaren printzipioen artean?

- 418a) Garapenera bideratzea.
- 418b) Hobekuntzen arabera kudeaketa.
- 418c) Erantzukizun-aliantzak.
- 418d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

419 Zer dio «emaitzetara bideratzea» printzipioak?

- 419a) Etengabeko arrakasta lortuko da baldin eta antolakundearen erabakia edo bestera parte hartzen duten interes-talde guztien itxaropenak orekatuak badira eta asebetetzen badira.
- 419b) Antolakundearen zuzendaritzak batez ere bezeroen beharrik ase behar ditu.
- 419c) Enpresa-kudeaketa antolakundearen barruan lehiakortasuna bilatzean oinarritu behar da.
- 419d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

420 Zer dio «bezeroarengana bideratzea» printzipioak?

- 420a) Bezeroaren gogobetetasuna kontu estatikoa da.
- 420b) Garrantzitsua da antolakundeak bezeroei buruzko informazioa jasotzea.
- 420c) Bezeroaren gogobetetzea aldagaien arabera da: kostua eta prezioa.
- 420d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

421 Prozesu bidezko kudeaketak urrats hauek ditu:

- 421a) Antolakundearen funtsezko prozesuak identifikatzea.
- 421b) Prozesuak antolatzea.
- 421c) Prozesuen ardura hartuko duten pertsonak edo prozesuen jabeak eta hobekuntza-taldeak izendatzea.
- 421d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

- 422 Esperientziak erakutsi du tresna xume batzuk erabilia antolakundeek dituzten arazoen zati bat konpontzen dela. Zein zati?**
- 422a) Antolakundeen arazoen % 5.
 - 422b) Antolakundeen arazoen % 10.
 - 422c) Antolakundeen arazoen % 80.
 - 422d) Antolakundeen arazoen % 100.
- 423 «Pertsonen garapena eta inplikazioa» printzipioa dela eta:**
- 423a) Antolakundeetako zuzendaritzen erantzukizuna da bertan lan egiten duten pertsonen ahalmena erabat garatzea.
 - 423b) Antolakundeetako zuzendaritzen erantzukizuna da bezeroak proiektuan inplikatzea eta partaide egitea.
 - 423c) Hori lortzeko, ez da beharrezkoa komunikazio- eta partaidetza-mekanismoak ezartzea edo indartzea.
 - 423d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.
- 424 «Deming zikloa» deritzonak (jatorriz, ingelesez, PDCA, eta euskarazko siglak PEED) termino hauek biltzen ditu:**
- 424a) Planteatu.
 - 424b) Eraldatu.
 - 424c) Ezaugarritu.
 - 424d) Doitu.
- 425 PDCA edo Deming zikloaren lehen fasean, azpifase hauek daude:**
- 425a) Hobetu beharreko eremua identifikatzea edo definitzea.
 - 425b) Hobetzeko ekintzak definitzea eta hautatzea.
 - 425c) Kontrol-adierazleak ezartzea.
 - 425d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.
- 426 PEGIP Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa dela eta:**
- 426a) 2022-2026 aldiari dagokio.
 - 426b) Kendu egin du «Aurrerabide Kluba».
 - 426c) Bere horretan eusten die Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua pixkanaka ezartzeko konpromisoak.
 - 426d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 427 Zer egin du Eusko Jaurlaritzak kudeaketa publikoko plan eta proiektu estrategikoak garatzen eta ezartzen laguntzeko?**
- 427a) Horri buruzko lege bat promulgatu du.
 - 427b) Hiru erregelamendu eta ordenantza bat eman ditu.
 - 427c) Akordio interesgarri bat baino gehiago onartu ditu.
 - 427d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 428 «Aurrerabide» proiektua dela eta:**
- 428a) Eredua dinamiko batean oinarritzen da, eta eredu horrek enplegatu publikoa jartzen du erdigunean.
 - 428b) Eredua dinamiko batean oinarritzen da, eta eredu horrek administrazio publikoetako kontratistak eta emakidadunak jartzen ditu erdigunean.
 - 428c) Eredua dinamiko batean oinarritzen da, eta eredu horrek geure administrazioaren ezaugarri nagusia azpimarratzen du: balio publikoa eranstea, beharrei ekitatez erantzunda.
 - 428d) Eredua dinamiko batean oinarritzen da, eta eredu horrek geure administrazioaren ezaugarri nagusia azpimarratzen du: balio publikoa asetzea, beharrei ekitatez erantzuta.

- 429 Zein dira «Aurrerabide» proiektuak oinarri duen ereduaren ezaugarri nagusiak?**
- 429a) Eredu dinamikoa da.
 - 429b) Testuinguruan kokatutako eredia da.
 - 429c) Eredu propioa da.
 - 429d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.
- 430 Zertan oinarritzen da Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua?**
- 430a) 6 ardatzetan.
 - 430b) 12 ardatzetan.
 - 430c) 18 ardatzetan.
 - 430d) 22 ardatzetan.
- 431 Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua ardatz hauetan oinarritzen da, besteak beste:**
- 431a) Estrategia, pertsonak.
 - 431b) Zerbitzuak, garraioak.
 - 431c) Gizartea, aisia.
 - 431d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 432 Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduaren zein ardatzekin dago lotuta administrazio ona eta etika publikoa nola sustatzen diren, elkarlana nola bultzatzen den eta jasangarritasunaren, aukera-berdintasunaren eta euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko erantzukizuna norbere gain nola hartzen den?**
- 432a) Estrategiarekin.
 - 432b) Gizartearekin.
 - 432c) Administrazioaren Zientziarekin.
 - 432d) Gobernantza eta enplegu publikoarekin.
- 433 Zenbat dira, guztira, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua ezartzeko funtsezko alderdiak?**
- 433a) 6.
 - 433b) 22.
 - 433c) 25.
 - 433d) 35.
- 434 Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua ezartzeko funtsezko alderdietako bat da «Antolaketa-unitatearen misioa identifikatzea». Zer zehaztapen eskatzen du horrek?**
- 434a) Antolaketa-unitateak antolaketa-egituran zer leku duen.
 - 434b) Unitate horrek zer egiten duen.
 - 434c) Norentzat egiten duen.
 - 434d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.
- 435 Zein ardatzetan sartzen da «Antolaketa-unitatearen misioa identifikatzea» izeneko funtsezko alderdia, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuko Ereduan?**
- 435a) Estrategian.
 - 435b) Emaizetan.
 - 435c) Entrenamenduan.
 - 435d) Sailkapenean.

436 Eusko Jaurilaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua ezartzeko funtsezko alderdietako bat da «Unitatearen urte anitzeko ekintza-plana diseinatzea eta kudeatzea, gobernu-programa eta plan estrategikoak eta sailetako planak oinarri hartuta». Zer zehaztapen eskatzen du horrek?

- 436a) Urtean zehar hedatu behar diren proiektuak zehaztu behar ditu, 4 urterako ekintza-planean jasotako helburu estrategikoak betetzen direla bermatzeko.
- 436b) Urtean zehar hedatu behar diren emaitzak zehaztu behar ditu, 4 urterako ekintza-planean jasotako helburu estrategikoak betetzen direla bermatzeko.
- 436c) Hedatu behar diren prospekzio-tresnak, agente-aula eta adierazleak zehaztu behar ditu, 4 urterako ekintza-planean jasotako helburu estrategikoak betetzen direla bermatzeko.
- 436d) Urtean urteko ekitaldiko jarduera eguneroko formatuan planifikatzea.

437 Zer da Zerbitzuen Katalogoa?

- 437a) Ez da gardentasun-tresna bat.
- 437b) Unitatearen erreferentziazko zerbitzuak jasotzen, identifikatzen eta definitzen dituen dokumentua da, zerbitzuen hartzaile diren pertsona edo entitateen ikuspegitik.
- 437c) Legez promulgatutako dokumentua da, Eusko Jaurilaritzak herritarrei eskainiko dizkien oinarrizko zerbitzuak jasotzen dituen.
- 437d) Aldizkako argitalpen bat da, herritarrei eskubidez dagozkien prestazioen berri modu eguneratuan emango diena.

438 Behin unitate bateko interes-taldeak identifikatuta eta kudeaketa indibidualizatua definituta, funtsezkoa da haien premiak eta itxaropenak kudeatzea.

- 438a) Horren guztiaren helburua da behar bezala definitzea zer produktu edo zerbitzutan dauden erlazionatuta erabiltzaile, hartzaile, hornitzaile, laguntzaile edo zuzeneko agente gisa.
- 438b) Interes-taldearen premiak behar bezala identifikatzea lagungarria izango da unitatearen produktuak edo zerbitzuak egokitasun- eta bikaintasun-maila handiagoekin zehazteko.
- 438c) Interes-taldearen itxaropenak behar bezala identifikatu eta egituratuz gero, hobeto egingo da gogobetetzea ebaluatu ondorengo ebaluazioa.
- 438d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

439 Harrera eta agurra egiteko plana dela eta:

- 439a) Planak jarduketa-protokolo bat jaso behar du, pertsona bat unitatean integratzen eta handik agurtzen laguntzeko.
- 439b) Planak harrerako eta agurreko fase guztiak eta fase horien edukiak identifikatu beharko ditu.
- 439c) Arreta berezia jarri behar zaio unitatean lanean hasiko den pertsonaren harreraz arduratuko den tutorea izendatzeari edo, agurraren kasuan, agurra kudeatuko duena izendatzeari; unitateko norbait izan behar du.
- 439d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

440 Unitatearen Prestakuntza Plana dela eta:

- 440a) Unitatearen prestakuntza-plana tresna bat da, unitatea osatzen duten pertsonen lan egiteko behar dituzten ezagutzak eta trebetasunak ematen dizkiena, unitatearen estrategiarekin bat etorri edo ez.
- 440b) Planak fase hau jaso beharko luke, gutxienez: prestakuntza-ekintzak zehaztea, formatua eta hartzaileak egokituz kasu bakoitzean.
- 440c) Planak fase hau jaso beharko luke, gutxienez: lehentasunak eta helburuak detektatzea, eta lehentasunak eta helburuak berriro definitzea.
- 440d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

441 Zer esan nahi du proaktiboa izateak etika- eta jokabide-kodea hedatzen, eta antolaketa-unitatearen kontu-ematea eta gardentasuna hobetzeak?

- 441a) Unitateak ziurtatu beharko lukeela pertsona guztiek ezagutzen dituztela bai Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta administrazio instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea, bai eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotako printzipio etikoak ere.
- 441b) Kargu publikodunek, eta ez beste inork, kontuak eman behar dituztela beren ekintzen gainean eta ekintza horien emaitzen gainean, eta herritarrei mekanismoak eman beharko zaizkiela pertsona horien jarduna kontrolatzeko.
- 441c) Unitateak gardentasuna bultzatu beharko lukeela, unitateko kideek, eta ez beste inork, informazioa eskura izan dezaten eta modu fidagarrian parte har dezaten dagozkien erabakietan.
- 441d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

442 Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduaren ikuspegitik, unitateak jarritako helburuetara mugatzen da emaitzen azterketa edo ebaluazioa; horregatik proposatzen da, hasiera batean, oinarrizko alderdi hauei heltzea:

- 442a) Funtsezko adierazleak identifikatzea agente-taula baten bidez.
- 442b) Unitatearen zerbitzuak jasotzen dituzten kolektibo garrantzitsuenen iritzia zein den jakitea.
- 442c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 442d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

18. gaia

443 Zein lege-testuk ezartzen du, zehatz-mehatz, herritarrek eta interesdunek administrazio-prozeduraren esparruan dituzten eskubideen araubide juridikoa?

- 443a) Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri-administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).
- 443b) Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).
- 443c) Urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).
- 443d) Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorrak.

444 Hauetatik, nork du administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna?

- 444a) Arau penalen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- 444b) Adingabeek, edozein jarduketa egiteko.
- 444c) Ondare independente edo autonomoek, erregelamendu batek hala adierazten duenean.
- 444d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

445 Administrazioaren Irispide-puntu Elektronikoa Orokorra dela eta:

- 445a) Administrazioaren Irispide-puntu Elektronikoa Orokorra Administrazioaren jardueren eta berrien informazio-atari bat baino ez da.
- 445b) Interesdunek jakinarazpenak eskuratu ditzakete Administrazioaren Irispide-puntu Elektronikoa Orokorrean, zeinak irispide-atari baten moduan funtzionatuko baitu.
- 445c) Administrazio publikoek herritarrei Interneteko banda zabaleko konexioa eskaintzeko duten obligazioa betetzen du.
- 445d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

446 Herritarren Karpeta dela eta:

- 446a) Administrazioaren aurrean pertsonalki agertzen den herritarrak eraman beharko du.
- 446b) Herritar eskatzailearen ordenagailuan edo telefono pertsonalean baino ezin izango da gorde.
- 446c) Haren bidez, herritarrak irispidean izango du berari buruzko informazioa, bai eta berari eragiten dioten administrazio-tramiteen jarraipena eta administrazio publiko eskudunaren eremuko jakinarazpen eta komunikazioak ere, eta administrazio-ziurtagiriak eskuratu ahal izango ditu.
- 446d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

447 Zer dakar administrazio publikoekiko harremanetan baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzeko eskubideak?

- 447a) Ordainetan, bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharrak orokorra eta baldintzarik gabekoa ezartzen da, baita pertsona fisikoentzat ere.
- 447b) Pertsona fisikoek ezin izango dutela erabaki bitarteko elektronikoak erabili edo ez, beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekiko harremanetan.
- 447c) Ez dago halako eskubiderik.
- 447d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

448 Zure autonomia-erkidegoko lurraldean hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubideari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- 448a) Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua hizkuntza koofizialak aipatzen ditu.
- 448b) Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua gaztelania bakarrik onartzen du hizkuntza ofizialtzat.
- 448c) Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua administrazio publikoetan hizkuntza koofizialak erabiltzeko araubidea zehazten du.
- 448d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

449 Zer dio Euskal Autonomia Estatutuak hizkuntzari buruz?

- 449a) Euskara eta gaztelania, biak dira Euskal Herriaren hizkuntza propioak.
- 449b) Euskara hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala.
- 449c) Bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok erabiltzeko eskubidea eta jakiteko betebeharra.
- 449d) Foru-organok bi hizkuntzen erabilera bermatuko dute.

450 Zer dio azaroaren 24ko 10/1982 Legeak (Euskararen erabilpena arautzen duena)?

- 450a) Euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen die herritar guztiei, Autonomia Erkidegoaren lurraldean Administrazio Publikoaren harremanak dituztenean.
- 450b) Neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko baliabideak bideratuko, aurreko erantzunean adierazitako eskubidea berehala gauzatu dadin bermatzeko.
- 450c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 450d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

451 Zein legetan jasotzen da herritarren irispidea artxibo eta erregistro administratiboetara?

- 451a) Konstituzioan aipatzen da.
- 451b) Euskal Autonomia Estatutuan aipatzen da.
- 451c) Eskubide baten moduan jasotzen da Herritarren Garapenerako Legean.
- 451d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

452 Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak arautzen ditu 14. artikuluan.

- 452a) Bai, segurtasun nazionala, adibidez.
- 452b) Bai, bereziki babestutako datuak, adibidez.
- 452c) Bai, industria-harremanak, adibidez.
- 452d) Ez, ez dago horrelako mugarik.

- 453 Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa), informaziorako irispidea ukatuz gero:**
- 453a) Ukatzea beti egin behar da espresuki, inoiz ez isilbidez.
 - 453b) Ukatzearen kontra, administrazio-errekurtso arruntak baino ezin dira aurkeztu.
 - 453c) Informaziorako irispidea ezin da ukatu.
 - 453d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 454 Agintarien eta enplegatu publikoen aldetik herritarrek errespetuz eta begirunez tratatuak izateko eskubidea dute, erraztasunak jasoz beren eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko. Eskubide hori dela eta:**
- 454a) Administrazioaren aurrean administratuek duten harreman aktiboa harreman estuago, itxiago eta adeitsuagoa bilakatu nahi du, hau da, zerbait pasiboagoa eta ez hainbeste bezero-ikuspegiari atxikia.
 - 454b) Ez da Administrazioarekiko harremanaren eskubide nagusietako bat.
 - 454c) Administrazioa ordezkatzan dutenei eragiten die (zentzu errealean eta ez juridikoan); izan ere, Administrazio Publikoak hurbiltzen diren herritarrei nolabaiteko tratua emateko betebeharra ezartzen du.
 - 454d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.
- 455 Zerbitzu publikoek behar bezala funtzionatzen dutela eta administrazio langileek beren obligazioak zuzen betetzen dituztela bermatzeko:**
- 455a) Ez da aparteko ezer egiten.
 - 455b) Komunikazio-, kexa- eta iradokizun-kanalak ezartzen dira, herritarrek jakitun ipintzeko Administrazioaren funtzionamendu desegokiaz eta ondoren akatsak zuzentzeko.
 - 455c) Enplegatu publikoen diziplina- eta zehapen-ahala erabiltzea onartzen da, herritarrek zuzenean egikaritu.
 - 455d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 456 Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) diziplina-araubide bat ezartzen du, eta horren arabera jendearekiko, agintariekiko, lankideekiko edo mendekoekiko errespetu-falta txikia arau-hauste bat da (85.c artikulua). Zein mailatakoa?**
- 456a) Arau-hauste oso arina.
 - 456b) Arau-hauste arina.
 - 456c) Arau-hauste larria.
 - 456d) Arau-hauste oso larria.
- 457 Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) diziplina-araubide bat ezartzen du, eta horren arabera herritarrenganako begirune-falta larria arau-hauste bat da (84.b artikulua). Zein mailatakoa?**
- 457a) Arau-hauste oso arina.
 - 457b) Arau-hauste arina.
 - 457c) Arau-hauste larria.
 - 457d) Arau-hauste oso larria.
- 458 Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) diziplina-araubide bat ezartzen du, eta horren arabera arraza, sexua, erlijioa, hizkuntza, iritzia, jaiotekua edo bizilekua edo beste edozein ezaugarri edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela-eta diskriminazioa ekar dezakeen edozein jarduketa arau-hauste bat da (83.b artikulua). Zein mailatakoa?**
- 458a) Arau-hauste oso arina.
 - 458b) Arau-hauste arina.
 - 458c) Arau-hauste larria.

458d) Arau-hauste oso larria.

459 Administrazio publikoei eta agintariei erantzukizuna exijitzeko eskubideak, legez hala dagokionean:

- 459a) Barruan hartzen du Administrazio Publikoari berari erantzukizunak exijitzea.
- 459b) Barruan hartzen du funtzionario edo enplegatu publikoei erantzukizunak exijitzea.
- 459c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 459d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

460 Non kokatzen gaitu administrazio-erantzukizun objektiboaren esparruak?

- 460a) Administrazio Publikoen ondare-erantzukizunari dagokion araubidean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak agindutako eran.
- 460b) Administrazio Publikoen ondare-erantzukizunari dagokion araubidean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak agindutako eran.
- 460c) Administrazio Publikoen ondare-erantzukizunari dagokion araubidean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak agindutako eran.
- 460d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

461 Zein lege-arautan jasotzen da arau-esparrua, nagusiki, ikuspegi edo alde subjektibotik begiratuta?

- 461a) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean.
- 461b) Sektore Publikoko Kontratuen Legean.
- 461c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan.
- 461d) Funtzio Publikoari buruzko Legean.

462 Administrazioko agintari eta langileek herritarrei kalte-galerak eragiten dizkietenean:

- 462a) Eragindako kalte eta galerengatik dagozkion kalte-ordainak exijituko dizkio herritarrak kasuan kasuko administrazio publikoari zuzenean.
- 462b) Herritarrak erantzukizuna exijitzen du, kaltea eragin duen funtzionarioa edo agente publikoa identifikatzeko betebeharririk izan gabe.
- 462c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 462d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

463 Administrazioak, bere agenteek eragindako kalte-galerengatik planteatu den erreklamazio bat aztertu ondoren erreklamazioa baiesten badu, erantzukizuna exijitu ahal izango die bere agintari eta mendeko gainerako langileei?

- 463a) Bai, ofizios exijitu ahal izango du, horretarako legezko baldintzak betetzen badira.
- 463b) Bai, atzerabideko akzioa da, agintarien eta bere zerbitzura dauden gainerako langileen aurka egiten duena.
- 463c) Bai, agintariak eta gainerako langileak ez daude erantzukizunetik erabat salbuetsita.
- 463d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

464 Agintariak, agenteek edo funtzionarioek kalteak eragiten badituzte delitu-jardueretan:

- 464a) Posible da haren aurkako akzio penal bat hastea.
- 464b) Ezin da haren aurkako akzio penalik hasi, salbu eta zabarkeria larrian erori bada.
- 464c) Ezin da haren aurkako akzio penalik hasi, salbu eta ageriko doloa badago.
- 464d) Agente publikoaren kontrako akzio penala independentea da gertakari berengatik herritarraren aurka bideratzen den administrazio-erantzukizuneko akzioarekiko.

465 Nortasun-agiri nazional elektronikoa dela eta:

- 465a) Kendu egin da.
- 465b) Titularraren nortasuna elektronikoki egiaztatzen duen ziurtagiri elektronikoa da, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritako moduan.
- 465c) Segurtasun zibernetikoa handitzen duen eta adingabeek dokumentuak elektronikoki sinatzea eragozten duen dokumentua da.
- 465d) Eskuzko sinadura bat du, automatikoki transmititzen dena nortasun-agiri nazional elektronikoa irakurgailu jakin batzuetara hurbiltzen denean.

466 Zer dakar datu pertsonalak babesteko eskubidea zuzen interpretatzeak, eta bereziki administrazio publikoen fitxategi, sistema eta aplikazioetan jasota dauden datuen segurtasuna eta konfidentziasuna babesteko eskubidea zuzen interpretatzeak?

- 466a) Kontsumoari buruzko legedira jotzea dakar.
- 466b) Datu-babesari buruzko araudira oro har jotzea dakar, funtsean honetara: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.
- 466c) Ezinbestean aplikatu behar dira Helsinkiko 1964ko Adierazpenean ezarritako xedapenak.
- 466d) Pertsona fisikoen babesa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, ez da Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikulua babesten duen funtsezko eskubide bat.

467 Datu pertsonalak babesteko eskubidea dela eta:

- 467a) Bistakoa da ohiko funtzionamenduan Administrazioak datu pertsonalak tratatzen dituela.
- 467b) Datu pertsonalak babesteko eskubidea Administrazio Publikoaren aurka jarri edo baliatu daiteke.
- 467c) Administrazio-jarduera oinarritzeko eskubideen mendean dago eta haien esparruan garatu behar da, eta eskubide horien artean dago datuak babestekoa.
- 467d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

468 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak direla eta:

- 468a) Eskubideen zerrendaren amaieran dio Konstituzioak eta legeak (esaterako, lege sektorialek) aitortzen dieten beste edozein eskubide ere egongo dela.
- 468b) Zerrenda horretan, 39/2015 Legeak berak aitortzen dituen eskubideak baino ez dira onartzen.
- 468c) Zerrenda hori klausula indargabetzaile batekin eta klausula iragankor batekin amaitzen da.
- 468d) Zerrenda hori amaitzeko, berariaz eta hitzez hitz aipatzen da Europar Batasuneko Zuzenbidea.

19. gaia

469 Komunikazioaren kontzeptua dela eta:

- 469a) Komunikazioa da ekintza kontziente edo inkontziente bat, zeinean bi parte-hartzaile edo gehiagoren artean mezuak trukutzen diren.
- 469b) Helburua du informazio edo iritzi desberdinak transmititzea edo jasotzea.
- 469c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 469d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

470 Komunikazio-eskeman osagai hauek aurkituko ditugu:

- 470a) Jasotzailea.
- 470b) Kodea.
- 470c) Mezua.
- 470d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

471 Komunikazioaren eskeman komunikazio-kanala izeneko osagaia agertzen da:

- 471a) Komunikazio-kanala da mezua igorlearengandik hartzailearengana garraiatzeko baliabide fisikoa.
- 471b) Komunikazio-kanalaren adibide bat: telefonoa.
- 471c) Komunikazio-kanalaren adibide bat: internet.
- 471d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

472 Ahozko komunikazioaren ezaugarri bat hau da:

- 472a) Mezua ezagutarazteko, hitza erabiltzen du.
- 472b) Gizakien komunikazio-modu eksklusiboa da.
- 472c) Komunikazio-prozesua idatziz egin daiteke.
- 472d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

473 Komunikazio-oztopo pertsonalen artean, hauetako bat dago:

- 473a) Entzute enpatikoa.
- 473b) Nortasun-falta.
- 473c) Gogo-aldartea.
- 473d) Jarreraren pertzepzioak.

474 Komunikazio-oztopoak saihesteko, ahal dela, gomendio hauek bete behar dira:

- 474a) Entzute aktiboa egitea (arretaz entzutea, begietara begiratzuz, galderak eginez...), eta esaten ari garena entzuten dutela egiaztatzea.
- 474b) Hitzeko hizkuntza zaintzea, hitzik gabeko hizkuntza ez baita interesgarria; beraz, ez da garrantzitsua bi horien arteko korrespondentziari eustea.
- 474c) Ingurunea zaintzea (argiztapena, zarata, kanala...) ez da garrantzitsua komunikazioa errazteko.
- 474d) Adierazpide desegokiak erabiliko ditugu.

475 Idatzizko komunikazioaren ezaugarrien artean, hauetako bat dago:

- 475a) Denboran irauten du.
- 475b) Aldiberekoa da.
- 475c) Ekintza inprobisatua da.
- 475d) Ez du araurik.

476 Komunikazio elektronikoa dela eta:

- 476a) Komunikatzeko modu berri bat da.
- 476b) Irakurtzeko modu berri bat.
- 476c) Idazteko modu berri bat.
- 476d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

477 Nolakoa da webeko edo sareko irakurketa?

- 477a) Irakurketa dinamikoa da.
- 477b) Pantailan irakurtzen da, eta ez da batere nekagarria.
- 477c) Ez ditu formatu ezberdinak, ez da multimediala.
- 477d) Pantailan irakurtzen da, eta paper inprimatuan irakurtzea baino azkarragoa da.

478 Eman dezagun testu luze samar bat dugula, jatorriz paperean irakurtzeko idatzita dagoena. Nola egokitu beharko genuke webgunera eramateko?

- 478a) Ez dugu egokituko, bere horretan utziko dugu.
- 478b) Irizpide orokor gisa, interesgarria litzateke paperean idatzitakoaren edukia erdira murriztea.
- 478c) Testu osoa eta jakinarazi nahi dugun informazio guztia orrialde bakar batean sartuko dugu.
- 478d) Pantailan testu luzeak irakurtzen ohituta gaudenez, eta denbora luzean arretari eusteko arazorik ez dagoenez, jatorrizko testua eman genezake, irudiren bat edo grafikoren bat sartuta.

479 Administrazio-hizkera dela eta:

- 479a) Administrazioak bere barne-harremanetan bakarrik erabiltzen duena da.
- 479b) Ez du berezko ezaugarririk.
- 479c) Teknolekto bat da, espezialitate bateko hizkuntza bat.
- 479d) Haren edukia maila juridiko eta tekniko handiko testuak sortzera mugatzen da soilik (legeak, dekretuak, arauak, ebazpenak, etab.), bestelako testuak barne hartu gabe, hala nola herritarrei zuzendutakoak, gizarte-bizitzaren alorrekoak (osasuna, ingurumena, hezkuntza, nekazaritza, turismoa, komunikazioa, ekonomia, ordena publikoa...).

480 Ezaugarri hauetako bat ez dator bat administrazio-hizkeraren estiloarekin:

- 480a) Administrazioko hiztegia jasoa izan ohi da eta, batzuetan, herritarrentzat oro har ezezagunak diren teknizismo gehiegi erabiltzen dira.
- 480b) Grekotik hartutako hitzak, lokuzioak eta esamoldeak erabiltzen ditu.
- 480c) Arkaismoak, formulismoak eta esaerak ugari dira.

480d) Azalpenezko tarteki eta perifrasi amaiezinez osatutako esaldi luzeak asko erabiltzen dira.

481 Administrazio-hizkeraren modernizazioa dela eta:

- 481a) XIX. mendean sortutako mugimendua da, gaur egun gaindituta dagoena.
- 481b) Administrazio-hizkera teknifikatu eta, ondorioz, herritarrentzat ulergaitzagoa bihurtu nahi duen mugimendua da.
- 481c) Herritarrei zuzendutako komunikazioek hizkuntza ulergarria eta argia izan dezaten nahi du.
- 481d) Euskal Autonomia Erkidegoan, inor ez da gai honetaz arduratu.

482 Administrazio-dokumentuetan idazketaren kalitatea hobetzeko oinarritzko gomendioen artean, hauetako bat dago:

- 482a) Oro har, ez da komeni paragrafo luzeak egitea.
- 482b) Hartzailea kontuan hartzea ez da garrantzitsua.
- 482c) Esaldiak luzeak izan daitezke.
- 482d) Paragrafo bakoitzak zenbait ideia izan ditzake.

483 Zer esan dezakegu tartekiei buruz?

- 483a) Esaldi nagusiaren gaiarekin lotutako informazio osagarria ematen duten oharrak dira.
- 483b) Ez badugu tarteki horien luzera eta kokalekua zaintzen, diskurtsoaren haria galtzeko arriskua egongo da.
- 483c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 483d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.

484 Zer esan dezakegu testuen diseinuari buruz?

- 484a) Ez da funtsezkoa idazki baten aurkezpenaren xehetasun guztiak zaintzea, nahiz eta hori izan testuaren eta irakurlearen arteko lehen kontaktua.
- 484b) Diseinua testu baten irakurgarritasuna erabakitzen duen faktoreetako bat da; horregatik, argia, zaindua eta atsegina izan behar du.
- 484c) Ez da batere komeni letra lodia erabiltzea.
- 484d) Nahitaezkoa da kolore bat baino gehiago eta koadroak eta irudiak sartzea.

485 Hizkuntza ez-sexista dela eta, honela dio EAEko arau batek: «Euskal aginte publikoek ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ezta beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan ere». Zein da arau hori?

- 485a) Euskal Autonomia Estatutua.
- 485b) 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.
- 485c) Hitzarmen kolektibo bat.
- 485d) Arau hori ez dago oraindik.

486 Zein dira hizkuntzaren okerreko erabileraren kausak?

- 486a) Sexismoa eta androzentrismoa.
- 486b) Sexismoa.
- 486c) Androzentrismoa.
- 486d) Antropofomismoa.

487 Dokumentu hauetatik, zein da administrazio-dokumentua, duen xedearen arabera?

- 487a) Judizio-dokumentuak.
- 487b) Dokumentu prozesalak.

- 487c) Jatorrizko dokumentuak.
- 487d) Dokumentu konpultsatuak.

488 Administrazio-ebazpenetan eta komunikazio ofizialetan, barnekoetan zein kanpokoetan, nahitaezkoa da datu hau sartzea:

- 488a) Lekua (dokumentua ematen duen organoa kokatuta dagoen udalerria).
- 488b) Data (dokumentua zein egunetan egin den).
- 488c) Lekua (dokumentua ematen duen organoa kokatuta dagoen udalerria) eta data (dokumentua zein egunetan egin den).
- 488d) Lekua (dokumentua ematen duen organoa kokatuta dagoen udalerria), data (dokumentua zein egunetan egin den) eta sinadura.

489 Eskumenak eskuordetuta jarduten denean:

- 489a) Ez dauka aparteko ondoriorik.
- 489b) Eskuordetza-emaileak eta eskuordetza-hartzaileak sinatuko dute dokumentua.
- 489c) Eskuordetzaren inguruabarrak jaso beharko dira dokumentuan.
- 489d) Ez dago eskumenak ordezkotzan ematearen figurarik.

490 Ofizioa dela eta:

- 490a) Eskuarki, administrazio-organoen eta herritarren arteko komunikazioetarako erabiltzen da.
- 490b) Ofizioen edukia erabat administratiboa eta ofiziala izaten da, tonu formal, neutro eta objektiboa izaten du eta administrazio-jarduna hartzen du ardatz, funtsean.
- 490c) Gutunaren sinonimoa da.
- 490d) Lankideak eta herritarrak zoriontzeko balio du, adibidez.

491 Jakinarazpena dela eta:

- 491a) Jakinarazpena da interesdunari bere interes eta eskubideetan eragina duen ebazpen edo erabaki bat jakinarazten dion dokumentua.
- 491b) Jakinarazpena ez da nahitaezko baldintza bat jakinarazten den egintzaren eraginkortasuna lortzeko.
- 491c) Jakinarazpenaren helburu bakarra da komunikazioa bera eman dela bermatzea.
- 491d) Jakinarazteko ahaleginak bermatzen du jakinarazten den egintza existitzen dela eta haren eraginkortasun juridikoa erabatekoa dela.

492 Eskabide-orria:

- 492a) Eskabidearen hartzailea beti bera da: herritarra.
- 492b) Dokumentu bat da, zeinaren bidez herritar batek edo erakunde juridiko batek administrazioari zerbait eskatzen dion; eskuarki, indarreko araudian dagoen zerbait.
- 492c) Dokumentu luzea eta korapilatsua da, baina ez zaio beste dokumenturik eranstean edo gehitzen.
- 492d) Ez da beharrezkoa eskatzailea identifikatzea.

493 Ziurtagiria:

- 493a) Egintza edo egoera administratiboen egiaztapena eskatzeko balio duen dokumentua da.
- 493b) Ziurtagiriaren eskatzailea administrazio bat izan ohi da.
- 493c) Balio du, adibidez, ikastaro batera joan izana justifikatzeko, jasotako ordainsariak edo egindako ikasketak justifikatzeko.
- 493d) Ez da beharrezkoa emailea identifikatzea.

494 Posta elektronikoa dela eta:

- 494a) Abantailetakoa bat da mezuaren testuarekin batera dokumentuak, irudiak, soinuzko fitxategiak eta abar atxiki daitezkeela.
- 494b) Tresna elektroniko honek aukera ematen du mota guztietako informazioa Internet bidez igorri eta jasotzeko.
- 494c) Komunikazio formalean, barne-oharren eta beste transmisio-dokumentu batzuen ordez oso zabaldua dagoen komunikabidea da.
- 494d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

20. gaia

495 Zer da ahozko komunikazioa?

- 495a) Ahozko hizkuntza edo hizkuntza mintzatua.
- 495b) Bi pertsonaren edo gehiagoren artean testuak trukatzea, ahozko hizkuntza edo hizkuntza mintzatua baliatuz.
- 495c) Bi pertsonaren edo gehiagoren artean ideiak trukatzea, ahozko hizkuntza edo hizkuntza mintzatua baliatuz.
- 495d) Pertsonen mezuak igortzea, ahozko hizkuntza edo hizkuntza mintzatua baliatuz.

496 Giza komunikazio mota bat baino gehiago dago:

- 496a) Bai, hitzeko komunikazioa eta hitzik gabekoa.
- 496b) Bai, hitzeko komunikazioa eta idatzizko komunikazioa.
- 496c) Bai, hitzeko komunikazioa eta ahozko komunikazioa.
- 496d) Bai, hitzeko edo gorputzeko komunikazioa eta hitzik gabekoa edo erregistratua.

497 Ahozko komunikazioan, solaskideak direla eta:

- 497a) Bertan daudenean, aurrez aurrekoa ez den komunikazioa da.
- 497b) Bertan ez daudenean, aurrez aurreko komunikazioa da.
- 497c) Bananduta daudenean, aurrez aurrekoa ez den komunikazioa da.
- 497d) Bertan egon edo bananduta egon, aurrez aurreko komunikazioa da, hitzaren bidezko komunikazioa berehalakoa baita.

498 Ahozko komunikazioaren ezaugarriak:

- 498a) Ahozko hizkuntzaren mende dago.
- 498b) Komunikazioa osatzeko, beste baliabide batzuetan oinarritzen da.
- 498c) Inprobisatzeko joera du.
- 498d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

499 «Ahozko komunikazioa iragankorra da». Zer esan nahi du horrek?

- 499a) Ahotsak hitz moduan igortzen dituen soinuak entzuteari uzten zaionean amaitzen dela komunikazioa.
- 499b) Izaera iragankor horrek komunikazioa testuinguru formalekin lotzen du.
- 499c) Ez dela nahitaezkoa igorleak eta hartzaileak une eta leku jakin batean egotea.
- 499d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

500 Ahozko komunikazioa noranzko bikoia denez:

- 500a) Komunikazio-prozesua aurrez gertatzen da.
- 500b) Igorleak eta hartzaileak txandakatzeko eta rolak trukatzeko aukera dute.
- 500c) Emozioak islatzea nahitaezkoa da.
- 500d) Esaten dena berrikusteko eta berriz pentsatzeko denbora dago.

501 Ahozko komunikazioa dela eta:

- 501a) Administrazio-hizkeraren baldintzatzaile berberak eragiten diote.
- 501b) Zenbait baldintzatzailek eragiten diote, hala nola bere helburu praktikoak edo komunikazio eraginkorra bilatzeak.
- 501c) Haren mezuek argiak eta zehatzak izan behar dute.
- 501d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

502 Hauetako bat, ahozko adierazpena hobetzeko aholku praktikoa da:

- 502a) Erabili hiztegi teknikoak, parafrasirik eta azalpenezko birformulaziorik gabe, mezu labur eta zehatzak transmititzeko.
- 502b) Erabili semantika eta esaldi-egitura konplexuak, mezu labur eta zehatzak transmititzeko.
- 502c) Erabili sintaxi sinplea, solaskideak informazioa errazago prozesatu ahal izan dezan.
- 502d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

503 Hauetako bat, ahozko adierazpena hobetzeko aholku praktikoa da:

- 503a) Sartu herritarra azalpenean.
- 503b) Egin herritarra azalpenaren partaide.
- 503c) Sartu herritarra azalpenean, eta egin partaide, haren jarrera aktiboa bultzatzeko.
- 503d) Ez sartu herritarra azalpenean eta ez egin azalpenaren partaide; horrela, ez duzu hura konprometituko eta haren pribatasuna errespetatuko duzu.

504 Hauetako bat, ahozko adierazpena hobetzeko aholku praktikoa da:

- 504a) Erabili informazioa nabarmentzeko eta azpimarratzeko estrategiak.
- 504b) Baztertu informazioaren edozein errepikapen mota.
- 504c) Ez erabili galdera erretorikoak.
- 504d) Hitz egin beti ahotsaren tonu, erritmo eta intentsitate berarekin.

505 Hauetako bat, ahozko adierazpena hobetzeko aholku praktikoa da:

- 505a) Lehenetsi baiezeko esaldiak, ezezkoen gainera.
- 505b) Lehenetsi ezezeko esaldiak, baiezkoen gainera, ezezkoak ulertzen errazagoak baitira.
- 505c) Erabili modu orekatuan baiezeko esaldiak eta ezezeko esaldiak, ez dadin bietako bat ere nagusitu.
- 505d) Lehenetsi esaldi abstraktuak, hau da, ez baiezeko eta ezezeko ez direnak.

506 Komunikazioa eraginkorra izango bada, ezin dugu modu berean komunikatu ahozko edo idatzizko testuinguruetan.

- 506a) Gezurra da, komunikatzeko bi modu ia berdinak baitira.
- 506b) Gezurra da, funtsezko desberdintasunik ez duten komunikatzeko bi modu baitira.
- 506c) Egia da, nahiz eta hizkuntza-sistema berean oinarritzen diren.
- 506d) Egia da, hizkuntza-sistema ezberdinetan oinarritzen baitira.

507 Ahozko komunikazioaren eta idatzizko komunikazioaren arteko aldeak:

- 507a) Ahozko komunikazioan inprobisatzeko aukera dago.
- 507b) Ahozko hizkuntzan idatzizkoan baino hizkuntza-akats gehiago egiten dira.
- 507c) Azalpenean zehar, ahozko hizkuntzaren erregistroa egokitu dezakegu, beharrezkoa dela susmatzen badugu.
- 507d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

508 Hitzeko komunikazioa dela eta:

- 508a) Hitzeko komunikazioaren kontzeptua oso zabala da, eta komunikatzeko erabiltzen diren zeinu ez-linguistiko guztiak hartzen ditu barnean.
- 508b) Hitzik gabeko komunikazioaren bidez, hitzak baliatuz transmititzen da mezua.
- 508c) Hitzik gabeko komunikazioak barruan hartzen du, besteak beste, hitzen soinua ahoskatzean.
- 508d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

509 Hitzik gabeko komunikazioaren ezaugarriak direla eta:

- 509a) Hitzik gabeko komunikazioa saihetsezina da edozein komunikazio-egoeratan.
- 509b) Hitzeko zeinuak bezala, hitzik gabeko komunikazio-zeinuak aldatu egin daitezke egoeren arabera eta pertsonen ezaugarri sozialen arabera.
- 509c) Hitzik gabeko mezuek hainbat funtzio dituzte, eta ezin dira inoiz modu bakartuan interpretatu, baizik eta testuinguruaren barruan eta komunikazio-egintzan erabilitako gainerako zeinuekin konbinatuta.
- 509d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

510 Begirada dela eta:

- 510a) Begien bitartez ez dugu ia informaziorik transmititzen.
- 510b) Begirada alderdi garrantzitsua da hitzik gabeko komunikazioan, ahozko informazioa osatzeko aukera ematen baitu, informazioa berretsiz edo edukia zehaztuz.
- 510c) Begirada gure solaskidearekin hizketan ari garen seinalea da, eta erantzuna ere modu berean espero dugun seinalea.
- 510d) Erraza da elkarriketa arin bat izatea solaskideari begiratu gabe.

511 Lan- edo lanbide-begiradan:

- 511a) Igorlearen begiek goitik behera aztertzen dute solaskidearen gorputza.
- 511b) Igorlearen begiek behetik gora aztertzen dute solaskidearen gorputza.
- 511c) Gure begirada solaskidearen begien azpitik ez eramaten saiatu behar dugu.
- 511d) Igorlearen begiek ezkerretik eskuinera aztertu behar dute solaskidearen gorputza.

512 Zer da proxemika?

- 512a) Pertsonak ahoz komunikatzean duten espazioa eta distantzia aztertzen duen diziplina da.
- 512b) Ahoz komunikatzean gertuen dagoen pertsonarekin dagoen espazioa eta distantzia.
- 512c) Ahozko komunikazioetan denbora eta espazioa aztertzen dituen diziplina da.
- 512d) Zutik, oinez, eserita edo etzanda gaudenean gorputzari eusteko dugun jarrera.

513 Distantzia intimoa dela eta:

- 513a) Distantzia hori egon dadin, solaskideek konfiantza handia izan behar dute eta, kasu batzuetan, emozionalki lotuta egon behar dute.
- 513b) 60 eta 145 zentimetro artekoa da.
- 513c) Pertsona bakoitzak elkarriketa intimo baterako eta pertsona ezagunekin elkarriketak izateko gordetzen duen distantzia da.
- 513d) Elkarriketa informaletarako erabiltzen dena da.

514 Zer aztertzen du paralinguistikak?

- 514a) Hizkuntzaren alderdi semantikoak.
- 514b) Hizkuntzaren alderdi ez-semantikoak, hala nola erabilitako tonuak, hitz egiteko erritmoa edo ahotsaren bolumena.
- 514c) Ahotsaren isiluneak eta tinbreak, idatzizko zeinu bihurtzeko.
- 514d) Gorputz-hizkuntzaren intentzionalitate linguistikoa aztertzen du.

515 Hitzik gabeko zeinuak direla eta:

- 515a) Ahozko komunikazioarekin kontraesanean egon daitezke.
- 515b) Hitzezko enuntziatu baten edukia edo zentzua baztertu dezakete.
- 515c) Hitzezko gabeziak estali ditzakete, solasaldiaren hutsuneak saihesteko.
- 515d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

516 Hitzik gabeko komunikazioa behar bezala erabiltzeko gomendioak:

- 516a) Begiradak ez du zintzoa eta zuzena izan behar, solaskidea ez beldurtzeko.
- 516b) Saihestu behar dira eztarri-garbitzea, distrakzioak, asperdura-keinuak, aharrausiak, hatz-kolpeak, arnasotsak eta abar.
- 516c) Aurpegiko keinuak eta gorputz-jarrerak ez dira solaskidearentzako mezu-iturriak.
- 516d) Solaskideari irribarrez entzuteak ez du enpatiarik eta ulermenik transmititzen, eta komunikazioa amaitzeko bidea eman dezake.

517 Nola jokatu behar dugu aurrez aurreko arretaren harrera-fasean edo unean?

- 517a) Hasiera-hasieratik sentsazio positiboak sortzen saiatu behar dugu, lehen inpresioa funtsezkoa baita komunikazioa mamitzeko.
- 517b) Garrantzitsua da abegitsu jokatzeari.
- 517c) Erabiltzaile desorientatuak, zalantziak edo zain daudenak ikusten ditugunean, laguntza eman behar dugu, interesa agertu.
- 517d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

518 Aurrez aurreko arretan, beharrak kudeatzeko fasean, zein alderdi komunikatibo zaindu behar dira arretaz?

- 518a) Bidezko tratua.
- 518b) Profesionaltasuna eta gaitasuna.
- 518c) Efizientzia eta arintasuna arretan.
- 518d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

519 Telefono bidezko komunikazioa hobetzeko teknikak:

- 519a) Hamabi dei-seinale baino lehenago erantzutea.
- 519b) Solaskidea luzaroan zain ez edukitzea: gehienez, 3 minutu.
- 519c) Deiari behar bezala erantzuteko behar diren dokumentuak eta materiala hurbil eta agerian jartzea.
- 519d) Telefonoa erabiltzean, gorputz-jarrera eroso hartzea.

520 Telefono-deien transferentziak direla eta:

- 520a) Egoera hori gerta daiteke solaskideak guk eman ezin diogun informazioa eskatzen duenean.
- 520b) Beste batzuei deiak transferitzean, ez zaie esan beharko nork eta zertarako deitzen duen, hori guztia ez baita gure ardua.
- 520c) Deiaren hartzailea lanpetuta badago, zintzilikatu egingo dugu.
- 520d) Ez dugu inoiz deirik transferitu behar.

21. gaia

521 Ordenamendu juridikoaren barruan, zein maila du legeak?

- 521a) Konstituzioak baino txikiagoa eta erregelamenduak baino handiagoa.
- 521b) Konstituzioak baino txikiagoa eta erregelamenduak bezalako.
- 521c) Legeak ez daude ordenamendu juridikoaren barruan.
- 521d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

522 Lege-erreserba honela uler daiteke:

- 522a) Zentzu materialean eta formalean.
- 522b) Zentzu hertsian eta mugatuan.
- 522c) Zentzu konstituzionalean edo arautzailean.
- 522d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

523 Zein kasutan kontrolatzen ditu legeak Konstituzio Auzitegiak?

- 523a) Estatukoak badira bakarrik.
- 523b) Estatukoak eta tokikoak badira bakarrik.
- 523c) Autonomikoak badira bakarrik.
- 523d) Estatukoak zein autonomikoak badira.

524 Zein gai arautzen dira lege organikoen bidez?

- 524a) Konstituzioan jasota ez dauden eskubideen garapenari buruzkoak.
- 524b) Toki-ordenantzak onartzeari buruzkoak.
- 524c) Hauteskundeetarako araubide orokorra onesten dutenak.
- 524d) Autonomia-estatutuak onartzen dituztenak bakarrik.

525 Nork eman ditzake lege organikoak?

- 525a) Legegile autonomikoak bakarrik.
- 525b) Estatuko legegileak bakarrik.
- 525c) Bai legegile autonomikoak, bai estatukoak.
- 525d) Bai estatuko legegileak, bai autonomikoak, bai tokikoak.

526 Zer arautu dezake lege organiko batek?

- 526a) Edozein gai arautu dezake.
- 526b) Konstituzioan berariaz aurreikusitako gaiak baino ezin ditu arautu.
- 526c) Gobernuak baimentzen dizkion gaiak arautu ditzake.
- 526d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

527 Zein maila dute legegintzako dekretuek?

- 527a) Legeak baino maila txikiagoa.
- 527b) Lege-maila dute, baina ez lege-indarrik.
- 527c) Lege-maila dute eta Parlamentuak ematen ditu.
- 527d) Lege-maila dute eta Gobernuak ematen ditu.

528 Legegintza-eskuordetza dela eta:

- 528a) Edozein gairi buruz eman daiteke.
- 528b) Ezin da eman lege organikoei erreserbatutako gaiei buruz.
- 528c) Izaera orokorra eduki dezake.
- 528d) Mugagabea izan daiteke.

529 Zein da legegintzako dekretuen helburua?

- 529a) Testu artikulatuak eta testu artikulatugabeak egitea.
- 529b) Testu luzeak eta testu konprimituak egitea.
- 529c) Erregelamenduak egitea.
- 529d) Testu artikulatuak eta testu bateginak egitea.

530 Nork kontrolatzen ditu legegintzako dekretuak?

- 530a) Auzitegi arruntek, beti.
- 530b) Auzitegi zibilek.
- 530c) Estatuaren Kontseiluak.
- 530d) Auzitegi arruntek, eskuordetzaren mugak gainditzen direnean.

531 Zein gai ezin dituzte arautu lege-dekretuek?

- 531a) Hauteskunde-zuzenbide orokorrari eragiten diotenak.
- 531b) Herritarren eskubide guztiei eragiten dietenak.
- 531c) Atzeritartasunari buruzko gaiak.
- 531d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

532 Nork kontrolatzen ditu lege-dekretuak?

- 532a) Kongresuak *a priori* kontrolatzen ditu.
- 532b) Estatuaren Kontseiluak.
- 532c) Estatuaren Abokatutzak.
- 532d) Kongresuak *a posteriori* kontrolatzen ditu.

533 Autonomia-erkidegoak direla eta:

- 533a) Lege-dekretuak eman ditzakete, baina ez legegintza-dekretuak.
- 533b) Legegintza-dekretuak eman ditzakete, baina ez lege-dekretuak.
- 533c) Lege-dekretuak eta legegintza-dekretuak eman ditzakete.
- 533d) Ezin dituzte ez lege-dekretuak, ez legegintza-dekretuak eman.

534 Zer dira erregelamenduak?

- 534a) Xedapen orokorrak dira, ordenamendu juridikoa berritzeko gaitasuna dutenak.
- 534b) Ebazpen partikularrak dira.
- 534c) Lege-mailako arauak dira.
- 534d) Ezin dute ordenamendu juridikoa berritu.

535 Zer dira erregelamendu betearazleak?

- 535a) Administrazio-antolaketarekin zerikusia duten gaiei buruzkoak dira.
- 535b) Lege bat garatzen dutenak dira.
- 535c) Aurretiazko legerik gabe ematen direnak dira.
- 535d) Ez dago, berez, erregelamendu betearazlerik.

536 Erregelamenduak egiteko ahalaren titulartasunaren arabera, erregelamenduak honelakoak izan daitezke:

- 536a) Estatukoak eta tokikoak.
- 536b) Estatukoak, autonomikoak eta tokikoak.
- 536c) Tokikoak eta autonomikoak.
- 536d) Estatukoak, autonomikoak, tokikoak eta instituzionalak.

537 Erregelamenduak direla eta:

- 537a) Lege batek ezin ditu aldatu, erregelamendu bidez arautu beharreko gaia bada.
- 537b) Lege batek alda ditzake.
- 537c) Auzitegiek ezin dituzte kontrolatu.
- 537d) Konstituzio Auzitegiak kontrolatzen ditu.

538 Nork du erregelamenduak egiteko ahala?

- 538a) Ministro Kontseiluak bakarrik.
- 538b) Ministro Kontseiluak, Gobernuako presidenteak, presidenteordeak eta ministroek.
- 538c) Ministroek eta estatu-idazkariak bakarrik.
- 538d) Parlamentuak osoko bilkuran.

539 Nork onartzen ditu errege-dekretuak?

- 539a) Presidenteak eta Ministro Kontseiluak.
- 539b) Autonomia Erkidegoko presidenteak eta haren kontseilariak.
- 539c) Ministroek.
- 539d) Kontseilari delegatuek.

540 Zer onartzen dute gobernu autonomikoek?

- 540a) Errege-dekretuak.
- 540b) Dekretuak.
- 540c) Aginduak.
- 540d) Errege-dekretuak eta dekretuak.

541 Zer esan nahi du arau-hierarkiaren printzipioak, erregelamenduei aplikatzen zaienean?

- 541a) Legeen azpitik daudela.
- 541b) Ezin dutela Konstituzioa urratu.
- 541c) Erregelamenduak hierarkikoki antolatzen direla elkarren artean.
- 541d) Ezin dutela ebazpen orokor bat urratu.

542 Zer esan nahi du eskumen-printzipioak, erregelamenduei aplikatzen zaienean?

- 542a) Hierarkia-maila beraren barruan, esleitutako eskumenaren arabera antolatzen direla arauak.
- 542b) Toki-erakundeek bakarrik eman ditzaketela erregelamenduak.
- 542c) Legeak lehentasuna duela beti erregelamenduaren gainetik.
- 542d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

543 Zer esan nahi du Administrazioa legezkotasun-printzipioari positiboki lotuta egoteak?

- 543a) Legeek debekatzen ez duten guztian jardun dezakeela Administrazioak.
- 543b) Administrazioak askatasunez jardun dezakeela, horretarako aurretiazko araurik izan gabe.
- 543c) Administrazioak arauzko baimenarekin baino ezin duela jardun.
- 543d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

544 Noiz gertatzen dira araututako ahalak?

- 544a) Legeak ahala egikaritzeko baldintza guztiak zehazten dituenean.
- 544b) Legeak ahala egikaritzeko baldintza batzuk zehazten dituenean.
- 544c) Ministroen Kontseiluak baino ezin dituenean egikaritu.
- 544d) Eskubide arautuei buruzkoak direnean.

545 Zer esan nahi du Administrazioaren diskrezionalitateak?

- 545a) Administrazioak arbitrariotasun-tarte bat duela bere jardunean.
- 545b) Egikaritutako ahala kontrolatu ezina.
- 545c) Hainbat konponbide daudela.
- 545d) Gaur egun, ahal diskrezionalak ezin dira erabili.

546 Zein balio dute erregelamendu batean ezarritakoaren aurka dauden administrazio-ebazpen partikularrek?

- 546a) Baliozkoak dira soilik baldin goragoko organo batek ematen baditu.
- 546b) Ez dute baliorik.
- 546c) Ez dute baliorik kide anitzeko organo batek ematen baditu.
- 546d) Baliozkoak dira, atzeraeraginezkoak ez badira.

22. gaia

547 Zer esan nahi du administrazio-deszentralizazio funtzionalak?

- 547a) Administrazio publiko diferenteen artean eginkizunak berrantolatzea.
- 547b) Eginkizunak organo periferikoei esleitzea.
- 547c) Eginkizunak administrazio instituzionalari esleitzea.
- 547d) Eginkizunak zenbait organori banatzea.

548 Non arautzen da administrazio-organoen funtzionamendua?

- 548a) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean.
- 548b) Administrazio Prozedura Erkidearen Legean.
- 548c) Administrazio-organoen Legean.
- 548d) Sektore Publikoko Kontratuen Legean.

549 Zein dira Estatuko Administrazioaren organo zentralak?

- 549a) Ministro Kontseilukoak.
- 549b) Autonomia-erkidego bakoitzean egoitza dutenak.
- 549c) Madrilén egoitza dutenak.
- 549d) Gobernuako presidentearenak direnak.

550 Nork osatzen du Estatuko Administrazio periferikoa?

- 550a) Gobernadore zibilek eta gobernadoreordeek.
- 550b) Gobernuak autonomia-erkidegoetan dituen gobernu-ordezkariek.
- 550c) Gobernuak autonomia-erkidegoetan dituen gobernu-ordezkariek eta probintzietako azpiordezkariek.
- 550d) Gobernuak probintzietan dituen gobernu-ordezkariek eta autonomia-erkidegoetako azpiordezkariek.

551 Nori dagokio administrazio-antolamenduaren arloko eskumena?

- 551a) Estatuari, haren oinarritzko izaeran.
- 551b) Autonomia-erkidegoei, haren oinarritzko izaeran.
- 551c) Estatuari, haren arau-garapenean.
- 551d) Toki-erakunde bakoitzari.

552 Zein dira Euskal Autonomia Erkidegoko organo nagusiak?

- 552a) Sailak eta ministerioak.
- 552b) Sailak eta zinegotzigoak.
- 552c) Sailak, sailburuordetzak eta zuzendaritzak.
- 552d) Ministerioak eta zinegotzigoak.

553 Zein arauk erregulatzen du tokiko antolamendua?

- 553a) Toki-erakundeen Legeak.
- 553b) Toki-erakundeen Araubide Juridikoen Legeak.
- 553c) Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak.
- 553d) Probintzien eta Udalerrien Legeak.

554 Euskal Autonomia Erkidegoan, nola banatzen da tokiko antolaketa?

- 554a) Aldundiak eta udalak.
- 554b) Lurralde historikoak eta udalak.
- 554c) Gobernuaren ordezkariak.
- 554d) Gobernuaren ordezkariordetzak.

555 Nola sailkatzen dira udalak, toki-esparruan?

- 555a) Araubide erkidekoak eta biztanle-kopuru handikoak.
- 555b) Araubide erkidekoak eta probintziakoak.
- 555c) Biztanle-kopuru handikoak eta probintziakoak.
- 555d) Probintzia bakarrekoak eta probintzia bikoak.

556 Zein organo dira nahitaezkoak, araubide erkideko udaletan?

- 556a) Alkatea eta tokiko gobernu-batzarra.
- 556b) Alkatea eta alkateordea.
- 556c) Alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura.
- 556d) Alkatea.

557 Zein printzipiotan oinarritzen dira administrazioen antolaketa-neurriak?

- 557a) Ekitatea eta berdintasuna.
- 557b) Deskontzentrazioa eta deszentralizazioa.
- 557c) Gaitasuna, hierarkia eta efikazia.
- 557d) Proportzionaltasuna eta berdintasuna.

558 Zein maila izan behar dute antolaketa-arau juridikoak?

- 558a) Lege organikoaren maila.
- 558b) Lege arruntaren maila.
- 558c) Nahikoa da erregelamendu-maila izatea.
- 558d) Lege-dekretuaren maila.

559 Zein dira eskumenak esleitzeko irizpideak?

- 559a) Lurralde-arlokoa, funtzionala eta eskumenekoa.
- 559b) Funtzionala, hierarkikoa eta materiala.
- 559c) Materiala, lurralde-arlokoa eta funtzionala.
- 559d) Proportzionala eta ekitatiboa.

560 Organo batek espediente bat tramitatzeko eskumena duenean eta beste organo batek ebaztekoa, zertaz ari gara?

- 560a) Eskumen materiala.
- 560b) Eskumen organikoa.
- 560c) Eskumen funtzionala.
- 560d) Lurralde-arloko eskumena.

561 Arau batek ez badu zehazten nori dagokion eskumen bat, zer ulertu behar da?

- 561a) Instrukzio ahalmena goi-organismoek dute, eta ebazteko ahalmena beheko organismoek.
- 561b) Beheko organismoek dute instrukzio eta ebazteko ahalmena.
- 561c) Edozein organok du ebazteko ahalmena.
- 561d) Ezin da eskumen hori baliatu, espezifikatzen ez den bitartean.

562 Eskumena baliatzea dela eta:

- 562a) Kasu berezietan uko egin dakioke.
- 562b) Edozein unetan uko egin dakioke.
- 562c) Ezin zaio uko egin.
- 562d) Titularrak bakarrik egin diezairoke uko.

563 Zein forma hartzen dute, normalean, jarraibideek eta aginduek?

- 563a) Barne-zirkularrak.
- 563b) Aginte-aginduak.
- 563c) Zerbitzu-betearazpenak.
- 563d) Barne-betebeharrak.

564 Zer dira jarraibideak eta zerbitzu-aginduak?

- 564a) Arau juridikoak dira.
- 564b) Erregelamenduak dira.
- 564c) Ez dira arau juridikoak.
- 564d) Zuzenbide-iturria dira.

565 Zer esan nahi du antolaketa-efikaziaren printzipioak?

- 565a) Organoei beharrezko kredituak emateko eta arrazionalizatzeko betebeharra.
- 565b) Organoek beren nagusien aurrean kontuak emateko duten betebeharra.
- 565c) Antolaketa ezin hobea izateko betebeharra.
- 565d) Organoak bikoiztu egin daitezkeela.

566 Organoen artean eskumenak eskuordetzan ematea dela eta:

- 566a) Edozein unetan erreboka daiteke.
- 566b) Ez da zertan argitaratu behar.
- 566c) Eskumenaren titulartasuna transmititzeko teknika bat da.
- 566d) Ez du mugarik gai aldetik.

567 Zer esan nahi du eskumenen abokazioak?

- 567a) Goragoko organoak beheagoko organo baten eskumenak baliatzen dituela.
- 567b) Beheagoko organo batek goragoko organo baten eskumenak baliatzen dituela.
- 567c) Goragoko organo batek, kasu jakin batean, beheagoko organo bati esleitutako eskumen bat baliatzen duela.
- 567d) Beste organo baten esku uzten dela eskumen baten betearazpen materiala.

568 Kudeaketa-gomendioa dela eta:

- 568a) Kontratu arautuak izan ditzake objektutzat.
- 568b) Eskumen baten alderdi materialak beste organo bati enkargatzea dakar.
- 568c) Goragoko organo batek beheragoko organo baten eskumena hartzea dakar.
- 568d) Bi organok zerbitzu bat elkarrekin kudeatzen dutela dakar.

569 Sinadura delegatzea dela eta:

- 569a) Eskumena baliatzeari bakarrik eragiten dio.
- 569b) Eskumenaren titulartasunari bakarrik eragiten dio.
- 569c) Ez die eragiten, ez baliatzeari, ezta titulartasunari ere.
- 569d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

570 Zein eginkizun du kide anitzeko organo baten idazkariak?

- 570a) Bilkuren aktak egitea.
- 570b) Eskumenen eskuordetzeak onartzea.
- 570c) Abokazioei baimena ematea.
- 570d) Organoaren sinadura delegatzea.

571 Hauetatik, zein da organo bat abstenitzeko arrazoia?

- 571a) Azken 10 urteetan interesdunen batekin zerbitzu-harremana izatea.
- 571b) Interesdunen baten udalerri berean erroldatuta egotea.
- 571c) Espainiar nazionalitatea ez izatea.
- 571d) Espedientean interesa duen sozietate bateko administratzailea izatea.

572 Zer behar da kide anitzeko organo batek erabakiak baliozkotasunez hartzeko?

- 572a) Gaia gai-zerrendan sartuta egotea.
- 572b) Gaia saioaren hasieran iragartzea.
- 572c) Bilkura amaitu ondoren, gaia sartzea.
- 572d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

23. gaia

573 Hauetatik, zein dira administrazio-egintzak?

- 573a) Administrazioaren alde bakarreko adierazpenak.
- 573b) Administrazio-kontratuak eta -hitzarmenak.
- 573c) Partikularren deklarazioak, administrazio-prozedura baten barruan.
- 573d) Administrazioaren jarduketa materialak.

574 Zeren bidez esleitzen dira Administrazioaren ahalak?

- 574a) Harreman juridikoen bidez.
- 574b) Administrazio-kontratuen bidez.
- 574c) Ordenamendu juridikoen bidez.
- 574d) Eskubide subjektiboen bidez.

575 Hierarkian eskumenik ez duen organo batek emandako egintza bat baliozkotu daiteke?

- 575a) Goragoko organoak baliozkotu dezake.
- 575b) Baliozkotu daiteke, baldin eta bien nagusi hierarkikoak baimentzen badu.
- 575c) Ezin da inoiz baliozkotu.
- 575d) Automatikoki baliozkotzen da, hartzaileak onartzen badu.

576 Zer dira «behin betiko egintzak»?

- 576a) Administrazio-bidea amaitzen ez duten egintzak.
- 576b) Egintza irmoak.
- 576c) Prozedurari amaiera ematen dioten egintzak.
- 576d) Administrazio-bidea amaitzen duten egintzak.

577 Administrazio-bidea amaitzen duten egintzak direla eta:

- 577a) Administrazio-bidean aurkaratu behar dira, auzibidera jo aurretik.
- 577b) Zuzenean errekurritu daitezke organo judizialen aurrean.
- 577c) Egintza irmoak dira.
- 577d) Berraztertze-errekurtsoaren bidez aurkaratu behar dira.

578 Hauetatik, zeinek amaitzen du administrazio-bidea?

- 578a) Jabari publikoa okupatzeko emakidak esleitzeko prozedurak ebazten dituzten egintzek.
- 578b) Gora jotzeko errekurtsoen ebazpenek.
- 578c) Zuzendariorde nagusiek emandako egintzen ebazpenek.
- 578d) Betearazpen-prozedurek.

579 Izapide-egintzak direla eta:

- 579a) Ezin dira inola ere aurkaratu.
- 579b) Salbuespenez aurkara daitezke.
- 579c) Administrazio-bidea agortzen badute soilik aurkaratzen dira.
- 579d) Interesdunak alde zuzenetik eskatuta aurkaratzen dira.

580 Zer dira egintza irmoak?

- 580a) Administrazio-bidea amaitzen dutenak.
- 580b) Administrazio-bidean errekurritu ezin direnak, berrikusteko errekurtsu bereziaren bidez izan ezik.
- 580c) Administrazio-bidea azkentzen dutenak.
- 580d) Ebazpen-egintza guztiak.

581 Zein dira beti egintza baten elementu arautuak?

- 581a) Egintza eragin duen aurrekaria, egintza ematen duen organoaren eskumena, eta egintza ematean lortu nahi den xedea.
- 581b) Aurrekaria, epea eta modua.
- 581c) Eskumena eta araudia.
- 581d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

582 Egintza bat ordenamenduan aurreikusitakoaz beste helburu batekin ematen bada, zer da?

- 582a) Egitezko bidea.
- 582b) Baliogabetzen ez duen irregularitasuna.
- 582c) Aginte-desbideratzea.
- 582d) Funtzionario-eroskeria.

583 Hauetatik, zein egintza arrazoitu behar dira?

- 583a) Lizentziak ematen dituztenak.
- 583b) Ofiziozko berrikuspen-prozedurak ebazten dituztenak.
- 583c) Presuntziozkoak direnak.
- 583d) Administrazio-bidea amaitzen dutenak.

584 Zein egintzak izan dezake atzeraeragina?

- 584a) Kalterako diren egintzek.
- 584b) Zehapen-egintzek.
- 584c) Eskubideak murrizten dituzten egintzek.
- 584d) Deuseztatutako beste egintza batzuen ordean ematen diren egintzek.

585 Egintza baten efikazia eten daiteke, baldin eta:

- 585a) Deuseztagarria bada.
- 585b) Erabat deuseza bada.
- 585c) Edozein kalte eragin badezake.
- 585d) Behin betikoa bada.

586 Nola jakinarazi behar dira obligaziodunen aldeko ordainbideren bat daramaten egintzak?

- 586a) Bitarteko elektronikoen bidez.
- 586b) Inoiz ere ez bitarteko elektronikoen bidez.
- 586c) Organo emaileak egokitzen jotzen duen moduan.
- 586d) Ez dira jakinarazi behar.

587 Zer gertatzen da interesduna ez badago bere bizilekuan jakinarazpenaren unean?

- 587a) 14 urtetik gorako edonork har dezake jakinarazpena.
- 587b) Jakinarazpena beste 3 aldiz egiten saiatu behar da.
- 587c) 12 urtetik gorako edonork har dezake jakinarazpena.
- 587d) Jakinarazitzat jotzen da.

588 Noiz argitaratu behar dira administrazio-egintzak?

- 588a) Zehapen-egintzak direnean.
- 588b) Hartzaileak hala erabakitzen duenean.
- 588c) Hartzailea zehaztu gabeko pertsona-multzo bat denean.
- 588d) Eskubideak murrizten dituztenean.

589 Zer esan nahi du autobabes betearazleak?

- 589a) Administrazioaren egintzak baliozkotzat jotzen direla.
- 589b) Administrazioak bere burua babesten duela.
- 589c) Administrazioak ez duela zertan jo auzitegi-tara bere egintzak betearazteko.
- 589d) Administrazioaren egintzak baliozkotzat jotzen direla, ematen diren unetik.

590 Noiz dira administrazio-zehapenak betearazleak?

- 590a) Egintzek administrazio-bidea agortzen dutenean.
- 590b) Ematen direnean.
- 590c) Argitaratzen direnean.
- 590d) Irmoak direnean.

591 Zein kasutan erabil daiteke ondarearekiko premiamendua?

- 591a) Diru-zenbateko likido bat ordaintzeko betebeharra dakarten egintzetan.
- 591b) Egintza guztiz pertsonaletan.
- 591c) Betearazpen subsidiarioa egoki ez den egintzetan.
- 591d) Irmoak ez diren egintzetan.

592 Zein kasutan erabil daiteke hertsapen-isuna?

- 592a) Zehapen-egintzetan.
- 592b) Egintza irmoetan.
- 592c) Administrazio-bidea amaitzen duten egintzetan.
- 592d) Pertsonak derrigortzea egoki ez den egintza guztiz pertsonaletan.

593 Zein da prozedura bat ebazteko gehienezko epea?

- 593a) 2 hilabete.
- 593b) 6 hilabete.
- 593c) 3 hilabete.
- 593d) 1 hilabete.

594 Ofizioz hasitako prozeduretan, ebazteko epea igarotzeak zer dakar?

- 594a) Iraungitzea, eskubideak murrizten dituzten prozedurak badira.
- 594b) Isiltasun negatiboa.
- 594c) Iraungitzea, aldeko prozedurak badira.
- 594d) Isiltasun positiboa.

595 Zein da arau orokorra, ebazpen espresurik ez badago?

- 595a) Isiltasun negatiboa.
- 595b) Isiltasun positiboa.
- 595c) Isiltasun negatiboa edo positiboa, epearen arabera.
- 595d) Erantzun guztiak okerrak dira.

596 Zein prozeduratan izaten da isiltasuna negatiboa?

- 596a) Eskariak egiteko eskubidea baliatzeko prozeduretan.
- 596b) Nahitaezko desjabetzearen prozeduretan.
- 596c) Eraikitze lizentziak emateko prozeduretan.
- 596d) Norgehiagoka-prozeduretan.

597 Zein egintza dira erabat deusezak?

- 597a) Aginte-desbideratzea dakarten egintzak.
- 597b) Epez kanpo emandako egintzak.
- 597c) Hierarkia dela-eta eskumenik ez duen organo batek emandako egintzak.
- 597d) Gaia dela-eta eskumenik ez duten organo batek emandako egintzak.

598 Zer dakar egintza baten forma-akatsak?

- 598a) Deuseztasun-kasua.
- 598b) Deuseztagarritasun-kasua.
- 598c) Deuseztagarritasun-kasua, egintzak formazko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituenean.
- 598d) Irregularitasun bat, baina inoiz ere baliogabetasunik ez dakarrena.

599 Egintza hauetatik, zein dira egintza deusezak?

- 599a) Eskumenik ez duen organo batek emandako zehapen-egintzak.
- 599b) Presuntziozko egintzak.
- 599c) Arau-hauste penala dakarten egintzak.
- 599d) Edozein eskubideri kalte egiten dioten egintzak.

24. gaia

600 Administrazio-prozedura dela eta:

- 600a) Administrazio-egintzak emateko bidea da.
- 600b) Aukerakoa da Administrazioarentzat.
- 600c) Administrazioak hartzen duen edozein erabaki da administrazio-prozedura.
- 600d) Nahitaezkoa da soilik zehapen-egintza bat ematen bada.

601 Hauetatik, zein da Estatuaren eskumen eksklusiboa?

- 601a) Osasun-zerbitzuak.
- 601b) Hezkuntza.
- 601c) Administrazio-prozedura erkidearen erregulazioa.
- 601d) Erantzun guztiak okerrak dira.

602 Zein legek arautzen du administrazio-prozedura erkidea?

- 602a) Urriaren 1eko 39/2015 Legeak.
- 602b) Urriaren 5eko 22/2015 Legeak.
- 602c) Urriaren 1eko 40/2017 Legeak.
- 602d) Azaroaren 1eko 30/92 Legeak.

603 Zerk erakusten du prozedura sinplifikatzeko joera dagoela?

- 603a) Premiazko prozedurak bultzatzeak.
- 603b) Isiltasun-kasuen kopurua handitzeak.
- 603c) Beharrezkoak ez diren tramiteak ezabatzeak.
- 603d) Alderdi batek eskatuta hasitako prozedura-kopurua handitzeak.

604 Zeinek osatzen dute sektore publikoa?

- 604a) Estatuko Administrazioak, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek.
- 604b) Estatuko Administrazioak, autonomia-erkidegoek, toki-erakundeek eta sektore publiko instituzionalak.
- 604c) Estatuko Administrazioak eta autonomia-erkidegoek.
- 604d) Organismo autonomoek.

605 Zein prozedura daude 39/2015 Legearen aplikazio-eremutik kanpo?

- 605a) Errekurtsoen prozedurak.
- 605b) Ondare-erantzukizuna erreklamatzeko prozedurak.
- 605c) Nahitaezko desjabetzearen prozedurak.
- 605d) Atzerritartasun- eta asilo-prozedurak.

606 Zein jotzen dira administratu kualifikatutzat?

- 606a) Beren eskubide guztiei eusten dieten administratuak.
- 606b) Prozedura jakin batean alderdi izaera hartzen duten administratuak.
- 606c) Herritar guztiak.
- 606d) Eskatzen duten guztiak.

607 Zer da gaitasun juridikoa?

- 607a) Pertsona batek prozedura batean alderdi izateko duen gaitasuna.
- 607b) Pertsona batek administrazioaren aurrean pertsonalki jarduteko duen gaitasuna.
- 607c) Pertsona batek ezkontzeko duen gaitasuna.
- 607d) Pertsona batek eskubideen eta betebeharren titular izateko duen gaitasuna.

608 Zeinek dute jarduteko gaitasuna?

- 608a) Adingabeek, beti.
- 608b) Nortasun juridikorik gabeko erakundeek, beti.
- 608c) Arau zibilen arabera gaitasun hori duten pertsonak.
- 608d) Ondare-batasunek.

609 Arduradunik gabeko adingabe atzerritarrak direla eta:

- 609a) Aberriratzeko prozeduran parte hartzeko gaitasuna dute, beti.
- 609b) Aberriratzeko prozeduran parte har dezakete, 15 urtetik gorakoak badira.
- 609c) Aberriratzeko prozeduran parte har dezakete, 16 urtetik gorakoak badira.
- 609d) Ezin dute aberriratzeko prozeduran parte hartu.

610 Europar Batasuneko herritarrak direla eta:

- 610a) Espainiarrek dituzten baldintza beretan sar daitezke funtzio publikoan.
- 610b) Ezin dira funtzio publikoan sartu.
- 610c) Funtzio publikoan sar daitezke, kidego sanitarioetan izan ezik.
- 610d) Espainiarrek dituzten baldintza beretan sar daitezke funtzio publikoan, eginkizun jakin batzuetan izan ezik.

611 Atzerritar egoiliarak (EBko kide ez direnak) direla eta:

- 611a) Karrerako funtzionario izan daitezke, aldez aurretik eskatuz gero.
- 611b) Karrerako funtzionario izan daitezke, dagokien oposizioa gainditu ondoren.
- 611c) Ezin dira lan-kontratuko langileak izan.
- 611d) Lan-kontratuko langileak izan daitezke.

612 Zer dakar udalerri batean erroldatzeak?

- 612a) Autonomia-erkidegoko kide politiko gisa aitortzea.
- 612b) Bizilekuaren frogak, atzeritarren kasuan.
- 612c) Hautesle izan daiteke, baina ez hautagai.
- 612d) Hautagai izan ahal izatea, baina ez hautesle.

613 Erantzukizun penala azkendu zaien kondenatuak direla eta:

- 613a) Gaitasuna dute ehiza-baimena eskatzeko.
- 613b) Edozein unetan eska dezakete beren aurrekariak ezerezteko.
- 613c) Zigor astunen kasuan, 10 urte igarotakoan, aurrekariak ezerezteko eskatzeko eskubidea dute.
- 613d) Ezin dituzte beren aurrekariak ezereztu.

614 Behin 18 urte betez gero:

- 614a) Pertsonak bere eskubide politiko guztiak bereganatzen ditu.
- 614b) Pertsona behartuta dago NANA lortzera.
- 614c) Pertsona funtzio publikoan sar daiteke.
- 614d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

615 Zer da ahala?

- 615a) Administrazioari harreman juridiko baten bidez esleitzen zaion boterea.
- 615b) Administrazioari objektu jakin bati dagokionez esleitzen zaion boterea.
- 615c) Administrazioari subjektu jakin bati dagokionez aitortzen zaion boterea.
- 615d) Administrazioari oro har esleitzen zaion boterea.

616 Zer dakar interes legitimo baten titularra izateak?

- 616a) Beste subjektu baten aurrean botere-egoeran izatea.
- 616b) Beste subjektu bati interes hori bete dezan exijitzeko aukera ematen du.
- 616c) Administrazioaren jardunaren aurrean erreakzionatzeko ahalmena bermatzen du.
- 616d) Herritar guztiei dagokien elementua da.

617 Herritarrek, oro har:

- 617a) Ezin diote Administrazioari exijitu modu jakin batean jardun dezan.
- 617b) Interes legitimoen titulartasuna dute, Administrazioaren aurrean.
- 617c) Administrazio-jarduketa baten aurrean erreakzionatu dezakete.
- 617d) Administrazioari legea bete dezan exiji diezaioke.

618 Noiz sortzen dira eginbeharrak?

- 618a) Kontratu batean.
- 618b) Administrazio-egintza batean.
- 618c) Arau batean.
- 618d) Harreman juridiko batean.

619 Zer dakar karga bat ez betetzeak?

- 619a) Zehapen bat dakar.
- 619b) Eskubide bat murriztea dakar.
- 619c) Onura bat galtzea dakar.
- 619d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

620 Nor da interesduna prozedura batean?

- 620a) Interes legitimo bat duten guztiak.
- 620b) Interes legitimoa izanik, prozeduran aurkeztu direnak.
- 620c) Udalerrian erroldatutako edonor.
- 620d) Herritar guztiak.

621 Zein eskubide dute administrazio-prozedura batean interesdun direnek?

- 621a) Administrazioa edozein hizkuntzatan jotzekoa.
- 621b) Dokumentuak prozeduraren edozein unetan aurkeztekoa.
- 621c) Espedientearen jatorrizko edozein dokumentu etxean jasotzekoa.
- 621d) Edozein unetan tramitazioaren egoera zein den jakitekoa.

622 Nor dago behartuta Administrazioarekiko harremanak elektronikoki egitera?

- 622a) Herritar guztiak.
- 622b) Adin nagusiko herritarrek.
- 622c) Pertsona juridikoak.
- 622d) Pertsona fisiko guztiak.

623 Administrazioarekiko harreman elektronikoetan, zein kasutan erabili behar da sinadura elektronikoa nahi eta nahi ez?

- 623a) Administrazioarekiko edozein jarduketatan.
- 623b) Administrazioarekin kontratuak egitean.
- 623c) Zehapen bat errekurritzean.
- 623d) Balio justua jasotzean.

624 Administrazio-prozedura batean, interesdunak:

- 624a) Abokatuarekin joan behar du.
- 624b) Prokuradorearekin joan behar du.
- 624c) Abokatuarekin eta prokuradorearekin joan behar du.
- 624d) Ordezkarri baten bitartez jardun dezake.

625 Hauetatik, zein da abstenitzeko arrazoi?

- 625a) Interesdunekin edozein mailatako ezkontza-ahaidetasuna izatea.
- 625b) Interesdunekin seigarrenetik beherako odolkidetasuna izatea.
- 625c) Hartzekodunen konkurtsoan deklaratu izatea.
- 625d) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian.

626 Zer dakar prozedura batean ez abstenitzeak, abstenitzea beharrezkoa denean?

- 626a) Funtzionarioari zehapen penala ezartzea.
- 626b) Emandakoaren erabateko deuseztasuna.
- 626c) Funtzionarioaren nahitaezko eszedentzia.
- 626d) Funtzionarioaren erantzukizuna.

25. gaia

627 Nork eman diezaioke hasiera administrazio-prozedurari?

- 627a) Edozein herritarrek.
- 627b) Administrazio-azotasuna dutenek.
- 627c) Administrazioak bakarrik.
- 627d) Administrazioak edo interesdunek.

628 Zer da instrukzio-fasea?

- 628a) Prozedura hastea.
- 628b) Gertakariak argitzeko jarduketak.
- 628c) Prozeduraren azken zatia.
- 628d) Funtzionarioen prestatze-fasea.

629 Prozedura hasi aurretik, zer egin dezake organo eskudunak?

- 629a) Aldez aurretik ebatz dezake.
- 629b) Behin-behineko neurriak har ditzake.
- 629c) Ez du gaia ikertu behar.
- 629d) Jendaurreko informaziorako aldi bat ireki behar du.

630 Zein epe du organo eskudunak behin-behineko neurrien gaineko ebazpena emateko?

- 630a) 15 egun, gehienez.
- 630b) 10 egun, gehienez.
- 630c) 15 eta 20 egun bitartean.
- 630d) 5 egun baliodun.

631 Zer ekar dezake salaketa aurkezteak?

- 631a) Prozedura hastea, alderdi batek eskatuta.
- 631b) Prozedura ofizioz hastea.
- 631c) Behin-behineko neurriak artxibatzea.
- 631d) Behin-behineko neurriak aurkeztea.

632 Beste organo batzuek eskatuta, zer egin behar du organo eskudunak?

- 632a) Prozedurari hasiera eman behar dio.
- 632b) Aukeran du prozedura ez hastea.
- 632c) Bere goragokoari prozedura irekitzeko eskatu behar dio.
- 632d) Erantzun guztiak okerrak dira.

633 Salaketa dela eta:

- 633a) Salaketa aurkezteak esan nahi du salaketa aurkeztu duen pertsona interesdun bihurtzen dela.
- 633b) Idatziz aurkeztu behar da.
- 633c) Salaketa aurkezteak ez du esan nahi aurkeztu duen pertsona, besterik gabe, interesdun bihurtzen denik.
- 633d) Bide telematikoen bitartez aurkeztu behar da.

634 Prozedura hasteko eskaeran datu hau adierazi behar da, besteak beste:

- 634a) Eskatzailearen adina.
- 634b) Eskatzailearen administrazio-auzotasuna.
- 634c) Eskatzailearen ohiko bizilekua.

634d) Eskaeraren oinarri juridikoa. 635 Non aurkeztu behar da prozedura hasteko eskaera?

- 635a) Edozein udaletan.
- 635b) Edozein probintziatako diputazioan.
- 635c) Posta-bulegoetan.
- 635d) Diputatuen Kongresuko bulegoetan.

636 Eskabidean jaso beharreko informazioa falta bada:

- 636a) Eskaera artxibatu egiten da.
- 636b) Behin-behineko neurriak erabakitzen dira.
- 636c) 15 eguneko epea ematen da eskaera zuzentzeko.
- 636d) Interesdunei eskabidea hobetzeko eska dakieke.

637 Hasteko erabakia dela eta:

- 637a) Isiltasunak zer esan nahi duen jaso behar du, halakorik gertatuz gero.
- 637b) Hasteko erabakia beti eman behar da, nahiz eta eskabideak akatsak izan.
- 637c) BOEn argitaratu behar da.
- 637d) Egin beharreko tramiteak adierazi behar ditu.

638 Erantzukizunpeko adierazpena dela eta:

- 638a) Frogak egitean aurkeztu behar da.
- 638b) Pertsona batek hartzen duen konpromisoa da, jarduera bat egiten edo eskubide bat baliatzen duen unetik.
- 638c) Organo eskudunak egin behar du.
- 638d) Esan nahi du ebazpen bat eman ondoren balia daitekeela eskubidea.

639 Prozeduraren instrukzioa dela eta:

- 639a) Ebazteko eskumena duen organoak tramitatzen du.
- 639b) Ebazteko eskumena duen organoak ezin du tramitatu.
- 639c) Instruktopeak tramitatzen du.
- 639d) Ez da nahitaezkoa prozeduran.

640 Zer esan nahi du prozedura ofizioz bultzatzeak?

- 640a) Prozedura ofizioz hasten dela esan nahi du.
- 640b) Esan nahi du interesdunak berak egin behar dituela hurrengo tramiteak.
- 640c) Esan nahi du Administrazioak zaintzen duela prozeduraren garapena.
- 640d) Ezarritako epeak bete behar direla esan nahi du.

641 Zer dakar kontraesan-printzipioak?

- 641a) Interesdunek alegazioak egiteko aukera dutela.
- 641b) Edozein herritarrek egin ditzakeela alegazioak.
- 641c) Tramite nahasiak argitu behar direla.
- 641d) Administrazioak prozeduran duen nagusitasuna.

642 Zer da «dies a quo» eguna?

- 642a) Prozeduraren lehen eguna da, beti.
- 642b) Epearen zenbaketa bukatzen den eguna da.
- 642c) Epearen zenbaketa hasten den eguna da.
- 642d) Prozedura bukatzen den eguna da.

643 Epeak ordutan zenbatzen badira:

- 643a) Ordu baliodunak direla ulertu behar da.
- 643b) Ez dira inoiz 12 orduak zenbatu behar.
- 643c) Egun naturalak direla ulertu behar da.
- 643d) 48 orduko iraunaldia izango dute, gehienez.

644 Egun naturalak direla eta:

- 644a) Larunbatak, igandeak eta jaiegunak ere hartzen dituzte.
- 644b) Ez dituzte hartzen, ez larunbatak, ez igandeak.
- 644c) Ez dituzte jaiegunak hartzen.
- 644d) Ezin dira egun gisa zenbatu.

645 Berariazko xedapenik ezean, txostenak:

- 645a) Beti dira lotesleak.
- 645b) Aukerakoak eta lotesleak dira.
- 645c) Aukerakoak eta ez-lotesleak dira.
- 645d) Nahitaezkoak dira.

646 Noiz egin ditzakete alegazioak interesdunek?

- 646a) Prozeduraren edozein unetan, entzunaldiaren tramitea baino lehen.
- 646b) Entzunaldiaren tramitearen ondoren beti.
- 646c) Eskubide subjektiboen titularrak badira bakarrik.
- 646d) Interes legitimoen titularrak badira bakarrik.

647 Zein legetan jasotzen dira prozedurako frogan balorazioa egiteko irizpideak?

- 647a) Prozedura Kriminalaren Legean.
- 647b) Prozedura Zibilaren Legean.
- 647c) Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean.
- 647d) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean.

648 Epai penal irmoan frogatutzat jotzen diren egitateak:

- 648a) Ez dira lotesleak administrazio zehatzailearentzat.
- 648b) Lotesleak dira administrazio zehatzailearentzat, aurkakoak badira.
- 648c) Lotesleak dira administrazio zehatzailearentzat.
- 648d) Lotesleak dira administrazioarentzat, aldekoak badira.

649 Informazio publikoaren tramitean parte hartzen dutenak:

- 649a) Prozeduran interesdun direla jotzen da.
- 649b) Prozeduran interesdunak dira, eskubideen titularrak badira.
- 649c) Parte hartzeak ez ditu, besterik gabe, interesdun bihurtzen.
- 649d) Interesdunak dira, interes legitimoen titularrak badira.

650 Prozeduraren ebazpena dela eta:

- 650a) Interesdunek planteatutako gaiak bakarrik erabaki ditzake.
- 650b) Interesdunek planteatutako gaiak eta prozeduratik eratorritakoak erabaki behar ditu.
- 650c) Berariazko ebazpena baino ezin da izan.
- 650d) Eskatzailearen egoera juridikoa okertu dezake.

651 Interesdunak prozeduran atzera egiten duenean:

- 651a) Uko egiten die prozeduraren gainean dituen eskubideei.
- 651b) Prozeduran ez jarraitzeko interesa agertzen du.
- 651c) Ezin du berriro prozedura hasi.
- 651d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

652 Zer dakar zehapen-prozedura bat iraungitzat deklaratzek?

- 652a) Ez du eteten arau-hausteen preskripzio-epea.
- 652b) Arau-hausteen preskripzio-epea eteten du.
- 652c) Administrazioari beste zehapen-prozedura bat hastea eragozten dio.
- 652d) Isiltasun negatiboa dakar.

653 Amaiera itundua dela eta:

- 653a) Edozein gairi buruzkoa izan daiteke.
- 653b) Ezin da kalte-ordainei buruzkoa izan.
- 653c) Beti argitaratu behar da.
- 653d) Prozedura amaitzea ekar dezake.

26. gaia

654 Hauetatik, zein berrikus ditzake Administrazioak?

- 654a) Konstituzioaren aurkako legeak.
- 654b) Egintza eta erregelamendu deuseztagarriak.
- 654c) Erabat deusezak diren egintza eta erregelamenduak.
- 654d) Irregularitasunak dituen edozein egintza.

655 Zein egintza berrikus ditzake Administrazioak?

- 655a) Administrazio-bidea amaitzen duten edo irmoak diren egintzak.
- 655b) Aldekoak diren egintzak.
- 655c) Gora jotzeko errekurtsua jaso dezaketenak.
- 655d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

656 Noiz berrikus ditzake egintza deuseztagarriak Administrazioak?

- 656a) Beti.
- 656b) Aginte-desbideratzea eragiten badute bakarrik.
- 656c) Inoiz ere ez.
- 656d) Administrazio-bidea amaitzen badute bakarrik.

657 Noiz ebatzi behar da kaltegarritasun-deklarazioaren prozedura?

- 657a) Prozedura hasi eta 6 hilabete igaro baino lehen.
- 657b) Prozedura hasi eta 3 hilabete igaro baino lehen.
- 657c) Administrazio-egintza eman zenetik 3 urte igaro baino lehen.
- 657d) 1 urte igaro baino lehen, administrazio-egintza eman zenetik.

658 Akats materialen zuzenketa dela eta:

- 658a) Ofizioz baino ezin da egin.
- 658b) Gehienez ere 4 urteko epean egin behar da.
- 658c) Ez da beharrezkoa interesdunari entzunaldia ematea.
- 658d) Ofizioz edo interesdunak eskatuta hasi daiteke.

659 Administrazioak egintza bat errebokatzeke, zer behar da?

- 659a) Egintzak administrazio-bidea amaitu izana.
- 659b) Preskripzio-epea igaro izana.
- 659c) Egintza irmoa izatea.
- 659d) Preskripzio-epea igaro ez izana.

660 Zeren kontra jar daiteke administrazio-errekurtsoa?

- 660a) Xedapen orokorren kontra bakarrik.
- 660b) Xedapen orokorren eta egintzen kontra.
- 660c) Administrazio-egintzen aurka bakarrik.
- 660d) Xedapen orokorren aurka, administrazio-bidea agortzen badute.

661 Administrazio-errekurtsoen ebazpena dela eta:

- 661a) Eskumen hori ezin zaio delegatu aurkaratzen den egintza eman zuen organoari.
- 661b) Egintza eman duen organoari delegatu dakioke, goragoko organoaren baimenarekin.
- 661c) Egintza eman zuenaren goragoko organoak ebatzi behar du beti.
- 661d) Erantzun guztiak okerrak dira.

662 Administrazio batek administrazio-errekurtsoa jar dezake beste administrazio baten egintza baten aurka?

- 662a) Inoiz ere ez.
- 662b) Aldez aurretik errekerimendu bat egiten badu.
- 662c) Egintzak administrazio-bidea amaitzen badu bakarrik.
- 662d) Egintzak administrazio-bidea amaitzen ez badu bakarrik.

663 Zer dira izapide-egintza kualifikatuak?

- 663a) Organo batek baino gehiagok emandakoak.
- 663b) Administrazioak hasitakoak.
- 663c) Administrazio-bidea amaitzen dutenak.
- 663d) Gaiaren funtsa erabakitzen dutenak.

664 Interesdunak eskakizunen bat betetzen ez badu administrazio-errekurtsoa jartzean:

- 664a) Administrazioak ez du onartu behar.
- 664b) Administrazioak errekerimendua egingo dio, 10 eguneko epean akatsa zuzentzeko.
- 664c) Administrazioak ezetsi egin behar du.
- 664d) Administrazioak beste bat jarri behar du haren ordeaz.

665 Egintza baten aurka errekurtsioa jartzeko legezko epea igarotzen bada:

- 665a) Ezohiko epea eman behar da.
- 665b) Ulertu behar da egintzak administrazio-bidea amaitu duela.
- 665c) Egintza hori irmo bihurtuko da.
- 665d) Egintzak preskribatu egiten du.

666 Zer ondorio du administrazio-errekurtsoa jartzeak?

- 666a) Errekurritutako egintzaren eraginkortasuna eteten du.
- 666b) Ez du eteten errekurritutako egintzaren eraginkortasuna.
- 666c) Egintza irmo bihurtzen du.
- 666d) Egintzak administrazio-bidea agortzen du.

667 Etendura eskatu ondoren, hilabeteen ebazten ez bada:

- 667a) Ezetsitzat jo behar da.
- 667b) Ez da onartzen.
- 667c) Ulertu behar da egintza eten egiten dela.
- 667d) Abala aurkeztu beharko da.

668 Auzibideko egintza bat eteteko eskatu ondoren:

- 668a) Eten egingo da, egintza administrazio-bidean eman bada.
- 668b) Etendurari eutsiko zaio administrazio-bidean eman bada, harik eta epaileak erabaki bat eman arte.
- 668c) Abala aurkeztuz gero, egintza eten egingo da.
- 668d) Ez da onartuko, dagoeneko administrazio-bidean eskatu bada.

669 Entzunaldi-tramitea nahitaezkoa da administrazio-errekurtsoan?

- 669a) Nahitaezkoa da beti.
- 669b) Ez da inoiz nahitaezkoa.
- 669c) Ez da nahitaezkoa, aurretiko prozeduran eman bazen eta dokumentu berriak kontuan hartu behar ez badira.
- 669d) Ez da nahitaezkoa, eskatzen ez bada.

670 Hauetatik, zein dira administrazio-errekurtso arruntak?

- 670a) Deuseztasun-kausetan soilik oinarritzen direnak.
- 670b) Arrazoiei dagokienez balioztatuta daudenak.
- 670c) Edozein deuseztasun- edo deuseztagarritasun-kausatan oinarritzen direnak.
- 670d) Deuseztagarritasun-kausetan soilik oinarritzen direnak.

671 Zer organok du gora jotzeko errekurtsoa ebazteko eskumena?

- 671a) Hierarkian egintza eman zuen organoaren gainetik dagoenak.
- 671b) Egintza eman duen organo berak.
- 671c) Hierarkian behean dagoen organoak.
- 671d) Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak.

672 Egintza baten aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri nahi bada, baina egintza hori eskuordetzan eman bada:

- 672a) Organo eskuordetuari jarri beharko zaio errekurtsoa.
- 672b) Organo eskuordetzaileari jarri beharko zaio errekurtsoa.
- 672c) Hierarkian eskuordetzailearen gainetik dagoenari jarri beharko zaio.
- 672d) Hierarkian eskuordetuaren gainetik dagoenari jarri beharko zaio.

673 Zein da gora jotzeko errekurtsoa jartzeko epea?

- 673a) 3 hilabete, egintza espresua bada.
- 673b) 1 hilabete, egintza espresua bada.
- 673c) 6 hilabete, egintza presuntzioskoa bada.
- 673d) 3 hilabete, egintza presuntzioskoa bada.

674 Zein da gora jotzeko errekurtsoa ebazteko epea?

- 674a) 1 hilabete.
- 674b) 2 hilabete.
- 674c) 3 hilabete.
- 674d) 6 hilabete.

675 Zeren kontra jartzen da berrikuspen-errekurtso berezia?

- 675a) Egintza irmoen kontra.
- 675b) Irmoak ez diren egintzen kontra.
- 675c) Administrazio-bidea amaitzen duten egintzen aurka bakarrik.
- 675d) Erantzun guztiak okerrak dira.

676 Zein da berrikuspen-errekurtso berezia jartzeko epea?

- 676a) 6 hilabete.
- 676b) 2 hilabete.
- 676c) 1 hilabete.
- 676d) 4 urte edo 3 hilabete, arrazoiaren arabera.

27. gaia

677 Espainiako Konstituzioaren arabera, norena da ondare-erantzukizunaren arloko legegintza-eskumena?

- 677a) Estatuarena, oinarritzko legeei dagokienez.
- 677b) Autonomia-erkidegoena, lege-garapenari dagokionez.
- 677c) Estatuak eta autonomia-erkidegoek partekatzen dute.
- 677d) Estatuarena da, oso-osorik.

678 Zein da Administrazioaren ondare-erantzukizunaren funtsa?

- 678a) Errua edo zabarkeria.
- 678b) Doloa eta errua.
- 678c) Partikularrak kalte antijuridiko bat jasatea.
- 678d) Izaera subjektibokoa da.

679 Administrazioaren erantzukizunari buruzko klausula orokorra, non jasotzen da lehenengo aldiz?

- 679a) Espainiako Konstituzioan.
- 679b) 30/1992 Legean.
- 679c) Nahitaezko Desjabetzearen Legean.
- 679d) Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (39/2015 Legea).

680 Administrazioaren erantzukizuna dela eta:

- 680a) Objektiboa da.
- 680b) Subjektiboa da.
- 680c) Hondarrezkoa da.
- 680d) Mugatua da.

681 Administrazioaren kalte-ordaina lortzeko, zer frogatu behar dute partikularrek?

- 681a) Administrazioaren errua.
- 681b) Ezinbesteko kasurik ez izatea.
- 681c) Administrazioak eragindako kalte antijuridikoa egotea.
- 681d) Funtzionarioaren intentzionalitatea.

682 Administrazioaren erantzukizun juridikoa dela eta:

- 682a) Erantzukizun penala da.
- 682b) Ondare-erantzukizuna da.
- 682c) Diziiplina-erantzukizuna da.
- 682d) Hautazko erantzukizuna da.

683 Administrazioak kalte bat sortzen badu zuzenbide pribatuan jardunez:

- 683a) Jurisdikzio zibilaren aurrean erantzun behar du.
- 683b) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan erantzun behar du.
- 683c) Haren langileek baino ez dute erantzun behar.
- 683d) Ez du erantzuten.

684 Nola ulertu behar da «zerbitzuen funtzionamendua» esapidea Administrazioaren erantzukizun-kausa gisa?

- 684a) Zentzu hertsian ulertu behar da.
- 684b) Salbuespentzat jo behar da.
- 684c) Funtsezko zerbitzu publiko gisa interpretatu behar da.
- 684d) Zentzu zabalean ulertu behar da.

685 Zer esan nahi du kaltearen antijuridikotasunak Administrazioaren ondare-erantzukizunaren sisteman?

- 685a) Haren jarduketa ez datorrela bat ordenamendu juridikoarekin.
- 685b) Haren jarduketaren erruduntasuna.
- 685c) Partikularrak jasan beharrik ez duen kaltea dela.
- 685d) Arau bat hausten duela.

686 Zer da ezusteko kasua?

- 686a) Aurreikusi ezin den eta zerbitzuaren funtzionamendutik kanpo dagoen gertakari bat.
- 686b) Zerbitzuaren funtzionamenduari atxikitako gertakari saihestezina.
- 686c) Ezinbesteko kasuarekin pareka daitekeen gertakari bat.
- 686d) Errua tartean duen gertakari bat.

687 Administrazioak administrazio-egintza bat deuseztatzeak:

- 687a) Ez du inoiz erantzukizunik sortzen.
- 687b) Erantzukizuna sortzen du beti.
- 687c) Erantzukizuna sor dezake.
- 687d) Erantzukizuna sortzen du, auzibideko jurisdikzioak deuseztatzen badu,.

688 Zer behar da lege baten konstituzio-kontrakotasunetik eratorritako kalte-ordaina erreklamatu ahal izateko?

- 688a) Ezespen-epai irmoa exijitzen da, konstituzio-kontrakotasuna alegatuz.
- 688b) Administrazioak aitortzea.
- 688c) Legea estatu mailakoa izatea.
- 688d) Legea legebiltzar autonomiko batetik etortzea.

689 Bide publiko bat oinezkoentzako bide izendatzea:

- 689a) Kalte-ordaina emateko modukoa da, antijuridikoa baita.
- 689b) Ez da kalte-ordaina emateko modukoa, ez dakarrelako kalterik.
- 689c) Ez da kalte-ordaina emateko modukoa, ez baita antijuridikoa.
- 689d) Kalte-ordaina emateko modukoa da, eskuratutako eskubide gisa aitortzen bada.

690 Administrazioako kontratista batek kaltea eragiten badu, nork erantzuten du?

- 690a) Administrazioak erantzuten du beti kalte-ordain osoaz.
- 690b) Kontratatistak erantzuten du beti kalte-ordain osoaz.
- 690c) Kontratatistak erantzun behar du, kaltea Administrazioaren agindu baten ondorio denean izan ezik.
- 690d) Kontratatistak ez du erantzuten.

691 Funtzionario batek doloz edo zabarkeria larritz jarduten badu:

- 691a) Lesionatuak funtzionarioari zuzendu behar dio erreklamazioa.
- 691b) Lesionatuak Administrazioari zuzendu behar dio erreklamazioa.
- 691c) Lesionatuak Administrazioari edo funtzionarioari zuzendu diezaioke erreklamazioa.
- 691d) Kalte-ordainaren % 50eraino ordaindu beharko du.

692 Kondizio-baliokidetasunaren teoriak adierazten duenez:

- 692a) Emaitzaren kausa pisu handiena duena baino ez da.
- 692b) Emaitzaren kausa garrantzi handiena duena da.
- 692c) Administrazioetik datorrena baino ez da kausa.
- 692d) Azken emaitzan eragina duen edozein kausa hartu behar da kaltearen kausatzat.

693 Kausalitate egokiaren teoriak dioenez:

- 693a) Kaltea eragiten duen guztia da kaltearen kausa.
- 693b) Emaitzaren sortzeko egokiena den kausa da kaltearen kausa.
- 693c) Kausa guztiak izan daitezke kaltearen sorburu.
- 693d) Beharrezkoa da emaitza kaltegarria objektiboki Administrazioari egozteko modukoa izatea.

694 Kausalitate-harremanari buruzko Espainiako legeriak:

- 694a) Kondizio-baliokidetasunaren teoriari jarraitzen dio.
- 694b) Kausalitate egokiaren teoriari jarraitzen dio.
- 694c) Egozpen objektiboaren teoriari jarraitzen dio.
- 694d) Ez du inolako teoriarik jasotzen.

695 Ezinbesteko kasua dela eta:

- 695a) Administrazioaren erantzukizuna baztertzen du.
- 695b) Lesionatuak frogatu behar du.
- 695c) Aurreuposatzen da.
- 695d) Administrazioaren erantzukizuna arintzen du.

696 Nolakoa izan behar du lesionatuak alegatutako kalteak?

- 696a) Benetakoa, orokorra eta juridikoa.
- 696b) Benetakoa, diru aldetik neurgarria eta indibidualizatua.
- 696c) Subjektiboa, benetakoa eta orokorra.
- 696d) Objektiboa eta orokorra.

697 Kalte-ordainaren ordezkatzeko konpentsazioa eman ahal izateko, zer behar da?

- 697a) Beharrezkoa da interesdunarekin akordioa lortzea.
- 697b) Beharrezkoa da kaltea zehatza izatea.
- 697c) Beharrezkoa da ezinbesteko kasurik ez egotea.
- 697d) Beharrezkoa da ezusteko kasua izatea.

698 Erreklamatzeko eskubidea dela eta:

- 698a) Bi urteren buruan preskribatzen du.
- 698b) Urte baten buruan preskribatzen du.
- 698c) Urte baten buruan iraungitzen da.
- 698d) Bi urteren buruan iraungitzen da.

699 Administrazioak administrazio-egintza bat deuseztatzen badu:

- 699a) Erantzukizuna sortzen da beti.
- 699b) Beti ez da erantzukizuna sortzen.
- 699c) Erabateko deusezetasuna gertatuz gero, erantzukizuna sortzen du.
- 699d) Deuseztagarritasuna gertatuz gero, erantzukizuna sortzen du.

700 Ondare-erantzukizuna erreklamatzeko prozedura dela eta:

- 700a) Ofizioz hasten da beti.
- 700b) Alderdi batek eskatuta hasten dira beti.
- 700c) Ofizioz edo alderdi batek eskatuta hasten da.
- 700d) 3 hilabete irauten dute.

701 Zein da erantzukizun-prozedura ebazteko epea?

- 701a) 3 hilabete.
- 701b) 2 hilabete.
- 701c) 1 hilabete.
- 701d) 6 hilabete.

702 Zein da Administrazioari erantzukizuna exijitzeko eskumena duen jurisdikzioa?

- 702a) Jurisdikzio zibila, Administrazioak zuzenbide pribatuan jarduten badu.
- 702b) Auzi-jurisdikzioa, beti.
- 702c) Jurisdikzio zibila edo auzi-jurisdikzioa, Administrazioak diharduen eskubidearen arabera.
- 702d) Kaltetuak aukeratzen duena.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA
AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO